



2012-10-08
ASTELEHENA
380. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Ontziak esleitzeko deialdia

Atez atekoaren hiru lizitazio deitu dute | 5



Organikorako kuboak. | GOIENA

UDAk, nahi eta ezin Bergararen aurka atzo Ibarran (0-0) | 22



Euskarazko telebistek, albistegi bateratua | 5

ZubiKua

Arantza Muruamendiaratzek agur esan die Zubikuako bezeroei | 17

Herritarrek eta banda, dukearen lorategian

Jendez bete zen Lazarraga jauregiko lorategia atzo bandaren kontzertuan. Gaur da jai-giroaz gozatzeko azken eguna Oñatin | 11



Musika bandaren kontzertua entzun zuten herritar askok, eta dukearen lorategiaz gozatu zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

Gaztetxea inauguratzeko jai aparta izan zen Antzuolan

Sukaldaritza lehiaketa, bazkaria... egin zituzten | 13



Platerak puntuatzen. | ZURIÑE V.D.M.

Jose de Azpiazuren omenezko kontzertu magikoa egin zuten Oñatin | 30

%15 eko
deskontua



► Zoaz 21. orrialdera.

Herritarrek dantzari hartu nahi dituzte plazak gurean

- ▶ Gertu daukate 'Herrixa dantzan' ekimenaren ikasturte berria
- ▶ Lau urtean bailarako dantzazaleak mobilizatu ditu proposamen horrek
- ▶ Plaza giroaren gorakada sasoia datorrela diote parte-hartzaileek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Herriak dantzarako gogo biziak ditu; hala erakusten du, behintzat, *Herrixa dantzan* ekimenak piztutako mugimenduak. Patxi Monterok orain urte batzuk egindako gonbidapenak zuztarrak hartu ditu gurean –2010ean Elgetan hasita, Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan orain–, eta ematen du dantzazale hasiera baten lotsakorrek kendu dituztela gainetik konplexu guztiak.

Hiru gaketan asmatu du *Herrixa dantzan*-ek plazak berpizteko: dantza talde antolatuen eskusibotasunetik ateratzea, dantzarako espazio berriak zabaltzea eta, azkenik, formazio atsegin eta erraza eskaintzea. Dantza ulertu eta bizi izateko era aldatu egin da.

Ikuskizunetik gozamenera

Monterok berak azaltzen duen moduan, "azken hamarkadetan plazako dantza saioen gainbeherarekin batera dantza bera ikuskizun bilakatu da eta dantza taldeek protagonismo ia hegemonikoa hartu dute", plazako saio herrikoi eta ludikoen kalterako. Entsegu orduetan taldeetako dantzariak lortutako "birtuosismoaren" aurrean herritar soilak kikhildu izanari egiten dio erreferentzia Monterok. "Konplexuak eta lotsak

sortzen" direla eta "plaza berreskuratzeko lehenbizi motibazioa eskaini" behar dela dio Monterok, ze "dantza beti plazan egon baita, gauza tradizionala, naturala baita, jolas egitea bezala da, eta edonork dauka gaitasun hori". Lehen gako hori, baina dantzarako aukerak ere sortu behar dira eta *Herrixa dantzan*-ek zaleak eroso eta aske sentitzen diren saioak antolatzen ditu. Hortik herriko plazarako urratsa errazagoa da. Helburua argi du Monterok: "Plazan herritarrak elkarrekin dantzan jarduteko kultura sustatzea, baina beti dibertimendurako tresna moduan".

Dibertitzea ez besterik

Dantza egitea oso atsegina baita, eta sarri inbidia ematen ei dute dantzariak. Horixe diote Ainhoa Lete eta Begoña Artzelus bergararrek. Biak ala biak dira Monteroren saioetako ohikoak. *Inbidia* berba da biek ahora dakartena, baina dagoeneko halakorik ez dute sentitzen *Herrixa dantzan*-en hasi zirenetik. Ainhoa Letek kontatzen du zelan hasi ziren seme-alabak Moises Azpiazu dantza taldean zeuzkaten gurasoak elkartzen. Astean ordubete egiten zuten, baina Patxi Monteroren saioen berri jakin bezain laster, haren Bergarako taldekoei batu

zitzazkien. Lehengo erromeriak ditu gogoan Letek, eta orain dantzarako hainbeste aukera ez egotearen pena ere badu. Haren moduan, Begoña Artzelusek zalarrik ez du halako ekimenak jendea asko animatzen duela. Artzelusek kontatzen du "hain ondo" pasatzen dutela, "saioa amaitzerakoan pena" hartzen dute. "Dantza egitea izugarri gustatzen zait niri", dio parte-hartzaileak, "eta deseatzten egoten gara erromeria bat noiz egongo". Grina hori kutsagarria da, antza, parte-hartzaile biek diotenez, jai eta ospakizunen egitarauetan geroago eta "erromeria eta dantza-saio gidatu gehiago egoten" direlako, eta "gazte jendea ere animatu egiten da", Artzelusek pozarren dioenez. Lotsa hori berehala gairatu zuen Ainhoa Letek ere, baina aitortzen du jendeak izan ditzakeen beldur horretan dantza taldeek ere asko lagundu dutela, "asko lantzen baitituzte dantzak, eta jendeari horrek atzera eragiten dio". Edozein dantzazaleri behin eta berriro egiten dio, hortaz, gonbidapena, "baita aurretik inolako ikastarotan ibili ez direnei ere". Loreak besterik ez dauka Monterorendako, eta azaltzen du haren "metodologia oso ona dela, ze ez baita ispiluairen imitazio teknika

erabiltzen, hark gidatzen du saioa eta, azkenean, hark nahi duen mugimendu horretara" eramaten zaituela azaltzen du.

Errepertorioa aberastuz

Herrixa dantzan-en lorpen esparrua, baina, harago doa, ohiko erromeria aberasteko helburuarekin ere badatorrelako. "Fandangoa, arin-arin eta biribilketaz gain, errepertorio zabala dago plazarako dantzetan gure tradizioetik atera gabe". *Gure tradizioa* dioenean, batez ere, Europako men-debaleko plazako dantzak eta Euskal Herrikoak marko kultural berean kokatzen direla azaltzen du Monterok, eta Okzitania, Ingalaterra eta erdialdeko Europako dantzak "kulturalki gertukoak" sentitzen ditugula. Saioetan egiten dituzten dantza gehienak Euskal Herrikoak badira ere, inguruko tradizio hain familiarren dantzak gehituta, aberastu egiten da dantzazalearen kultura. Hori bakarrik ez, "doinu berri eta goxoak, musika gozagarria" ere eskaintzen da, eta "horrek ere *engantxatzen* du".

Hastea, lehen urratsa

Patxi Monterok gogoan dauka txikia zenean domekero egoten ziren erromeriak eta heldu zein umeez elkarrekin egiten zutela

PATXI MONTERO | ANTOLATZAILEA ETA SAIOEN GIDARIA

"Dantza tradizionalaren eremu hori zabaldu nahi izaten dut"

Dantzaren munduan betidanik jardun du Patxi Monterok, baina *Herrixa dantzan* Elgetan abiatu zuen 2010ean, Espaloia aretoak berak taldeko dantzatarako ematen zituen aukerak aprobetxatu nahian. Dantzen gidaria da hura eta "ofiziotzat" du hori. Ikasleek ere oso estimuan dute haren metodoa, esperientziatik asko ikasi du eta Monterok.

Piztu den mugimenduak nola sentiarazten zaitu?

Pozik. Azken finean, niretzat ere nuen eta apur bat; gogo hori bete nahi nuen. Pentsatu nuen niretzat zen moduan, askorentzat ere erakargarria izango zela. Orain, ikusita jendeak

erantzuten duela eta oso ondo pasatzen duela, poza sentitzen dut.

Dantzak erakusteaz gain, haien istorioa ere kontatzen duzu?

Saioek duten alde hezitzaile ere gustatzen zait. Helburua beti da dibertitzea, jolas egitea, baina gustatzen zait azaltzea zer ari garen egiten. Sakonegi sartu barik, baina proiektzioen bitartez dantzaren musika zeinena den eta jatorria jartzen ditut, eta estimatu egiten dute hori. Sarri, gainera, Europako beste dantza batzuk ekartzen ditudanez, polita izaten da konparatzea.

Zein motatako dantzak dira?

Dantza tradizionala da, baina eremu hori zabaldu gura izaten dut. *Euskal dantza* delakoa oso mugatua da. Euskal Herrian egiten diren plazako dantzak eremu kultural baten barruan daude eta Europa men-debalean egiten diren dantzen familia berekoak dira. Kulturalki gertukoak senti ditzakegun dantzak egiten ditut. Hori erraz ikusten da, ze erraz antzemateko moduko dantzak izaten baitira.

"Hasieratik erraz antzemateko moduko dantzak izaten dira; gertukoak dira"

Zer esango zenieke dudana daude-nei?



JULIO CALLEJA

Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran, Elgetan... hilero-hilero daude hitzorduak. Herriko jende normala elkartu eta dantzan hasten gara. Gauza errazak izaten dira eta adin guztietarako pentsatuta daude dantza guztiak. Aitaita-amamak ere etortzen dira eta hasieratik dira jarraitzeko errazak egiten ditugun dantzak. Edoz nor etor daiteke.

HURRENGO SAIOAK

ARRASATE.

▶ **Noiz:** Hileko azken ostiraletan.

▶ **Non:** Garaia taberna-jatetxean.

▶ **Ordutegia:** 20:00-21:30.

▶ **Antolatzailea:** Portaloi Elkarte.

BERGARA.

▶ **Noiz:** Hileko lehen igandean.

▶ **Non:** Zabalotegi aretoan.

▶ **Noiz:** 18:00-19:00 haur eta gurasoak elkarrekin dantzan. 19:00-20:30 ohiko saioa (helduentzat batez ere).

▶ **Non:** Bergarako Udala.

ESKORIATZA.

▶ **Noiz:** Hileko hirugarren igandean (azaroan hasita).

▶ **Non:** Unibertsitateko kaperan.

▶ **Ordutegia:** 18:30-20:00.

▶ **Antolatzailea:** Eskoriatzako Udala.

▶ **Laguntzaileak:** Eskoriatzako Udala, Musika Eskola eta Mondragon Unibertsitatea.

ELGETA.

▶ **Noiz:** Hileko azken igandean.

▶ **Non:** Espaloia Kafe Antzokian.

▶ **Ordutegia:** 18:00-19:00 haur eta gurasoak elkarrekin dantzan eta 19:00-20:30 ohiko saioa (helduentzat batez ere).

▶ **Antolatzailea:** Espaloia Kafe Antzokia.



Aurten Eskoriatzan eginiko saioetako bat. | GOIENA



Bergarako Zabalotegi aretoan, Montero gidari lanetan. | GOIENA

dantza. "Gainbehera etorri da azken hamarkadetan, talderik ez dago eta ohitura ere galtzen" joan dela aitortzen du Monterok. "Aukera ematen den heinean, bai ikasi zein jarduteko, jendeak erantzun ona ematen" duela eta "gorantz doan fenomeno" dela, gainera, "bai Euskal Herrian zein kanpoan ere". Horren froga modura Monterok berak egiaztatzen duen dantza ikastaroen eskaeraren hazkundera dator. "Eskari hori hor zegoen, eta, behin hortik hasita, hurrengo urratsa kalean elkartu eta besterik gabe ondo pasatzeko dantzatzea" zetorrela kontatzen du. "Gizartean zegoen

eskari bati erantzun bat besterik ez diogu eman"; halaxe borobiltzen du Monterok.

Ikastaroak gura adina

Patxi Monterok, saioak gidatzeaz gain, ikastaroak ere eskaintzen ditu Arrasaten, Bergaran eta Elgetan. Leizarra Musika Eskolan, Aretxabaletan, ere badira eskolak; Eskoriatzan Beheko Errota eskolan baita ere. Oñatin aspalditik daukate herritarrekin eskolak antolatzeko ohitura, Aratusteei begira, batez ere, eta Antzuolan eta Aramaion, herriko taldeek ere badihardute formazio eta antolakuntza horretan.

'Dantzan.com', zaleen dantzarako plaza Interneten

Dantzazaleen zelanbaiteko pizkundera izan duela erakusten du erreferentziakoa den *Dantzan.com* webguneak. Indarberrituta ekingo diote etapa berri bati, finantzazio zailtasunak direla-eta 2012 osoa itxita egon eta gero. Eibarren sortutako gunea da eta Euskal Herriko zaleen topagune birtual lanak betetzen ditu.

Albisteak, agenda, multimedia edukiak eta batez ere Euskal Herrian han eta hemen jasotako material kopuru handia aurki daitezke *Dantzan.com*-en. Komunitatea ere sortu dute, zaleak elkarren artean harremanetan jartzeko.



Webgunearen orrietako bat. | J. B.

Uda ostean berreskura itzazu azalaren distira eta argitasuna.

Hidrata zaitez!

- Aurpegi-hidratazioa.
- Peelinga eta azala indartzea
- Aurpegi-gaztetzea laserra erabilita
- Azaleko orbanak kentzeko tratamendua
- Aurpegi-berrindartzea laserra erabilita.

AURPEGIA GAZTETZEKO TERAPIA MEDIKOAK.

Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073

UDAZKENEKO
ESKAINITZA*

%20ko
deskontua

Gorputz-hidratazioa
(peelinga, estalkia,
hidromasajea eta masajea).

* Urriaren 5etik azaroaren 30era



Amagara

Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

'Kanto'-ren eta Parot doktrina duten presoaren alde batu ziren bergararrak

- Bilduk, Aralarrek eta EAJk babestutako kale agerraldia egin zuten bariku iluntzean
- Herrira plataforma: "197/2006 doktrina duten presoaren egoera luzatu nahi du Espainiak"

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Jendetsua izan zen egubakoitz iluntzean Luis Mari Azkargorta *Kanto* presoaren aldeko kale-agerraldia eta geroko ekitaldia, Bergaran. Herrira plataformak deituta zegoen eta Bergarako osoko bilkuran Bildu, Aralar eta EAJren aldeko botoa jaso zuen Kanto-ren askatasuna eskatzeko mozioak. Kale-agerraldi isila izan zen, eta bi pankarta erakutsi zituzten: *Minutu bat gehiago ere ez, 197/2006 bizi arteko zigorrak ez, zioen batak, eta Euskal preso eta iheslariak etxera!*, besteak. Helburua zen Kanto-ren egoera salatzea, izan ere, orain zortzi urte, aske geratu behar zenean, Parot doktrina ezarri zioten eta kartzelan jarraitzen du horregatik. Bide batez, Parot doktrinak kaltetutako euskal presoak zein gaixorik daudenak ere aska ditzaten eskatu zuten herritarrek.

"Bahituta daukate"

Agerraldia isila izan zen, baina San Martin plazan entzun ziren hitzak, abesti bat, eta baita elkartasun txaloak ere, batez ere Markel Azkargortak, *Kanto*-ren semeak, hitza hartu zuenean. Han zeuden guztioi eskerrak eman zizkien, eta Goienari esan zion "pozgarria" dela hainbeste jende bildu izana, horrek erakusten baitu "euskal presoak ez daudela bakarrik".

Bere esanetan, aitaren egoeraren inguruko "gauzarik larriena, haserrea eta negargura ematen duena" da Espainiak "bahi-



Agerraldian joan zirenek korroa egin zuten gero Bergarako plazan. | LK

tuta" daukala. "Hanka bat kanpoan zuenean, asmatutako lege batekin beste 15 urterako kartzelan utzi dute", esan zuen.

Gobernuaren errekurtsioa

Markel Azkargortak berba egin eta gero, musikari batek kartzela-

la-politikaren aurkako abestia eskaini zuen eta, segidan, Herrira plataformako kide batek egin zuen berba. *Kanto*-ri "besarkada beroena" bidali eta gero, gogorazi zuen beste 68 euskal presok 197/2006, Parot doktrina dutela ezarrita. "Hauetatik 52 dira atzo-

tik kalean egon behar luketenak eta zigorra bere osotasunean betetzera kondenatu dituztenak. Baina hau nahikoa ez eta irteera data finkatu gabe duten beste 14 kideri ere ezarri diete 197/2006 doktrina", esan zuen. Gaineratu zuen Europako Giza Eskubideen

Epaitegiak "ilegal" aitortu duela doktrina hori, baina Espainiako Gobernuak "errekurtsioa sartu berri" duela eta doktrina hori ezarrita duten presoaren "egoera luzatu nahi" duela.

Txaloeekin bukatu zuten ekitaldia plazan batutakoek.

ESANAK

"Jende asko etorri da; argi dago presoak ez daudela bakarrik"

"la kanpoan zela, beste 15 urterako kartzelan utzi dute aita"

MARKEL AZKARGORTA
'KANTO'-REN SEMEA

"52 presok kalean behar lukete, baina zigor osoa ezarri diete"

HERRIRA PLATAFORMA

Frankismoaren zigorgabetasuna salatu zuten atzo Intxortako Atean

76 urte bete dira Francoren tropak Intxortako frontea hartu zutenetik



Xabier Amuritza herriko plazan egindako ekitaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRITXU BARRUSO | ELGETA

Elgetako Udalak eta Frankismoaren Aurkako Kereilen Aldeko Euskal Plataformak deituta Intxortako Ateatik abiatu eta Elgetara martxa egin zuten atzo, domeka. *Tolerantziarik ez frankismoaren zigorgabetasunari* lelopean egin zituzten Intxortatik herriko plazara bitarteko metroak.

Frankismoaren Aurkako Kereilen Aldeko Euskal Plataformak Euskal Herriko hamasei memoria elkarte batzen ditu eta

bertako bozeramaile da Juan Ramon Garai. "Duela 76 urte gudari eta miliziano pila bat hil zituzten hemen, gure herriaren nortasunaren alde borroka egiteagatik. Iraganeko kontu bat den arren, gaur egungo politikarekin lotura zuzena dauka. Garai hartako kriminalak ez dira zigortu eta gaur egungo agintariak politika berdina jarraitzen ari dira gure herriaren kontra".

Ekitaldia plazan

Elgetako plazan iristean, ekitaldi xume baina sentitua egin zuten trikitilariekin eta Xabier Amuritzarekin. Azken horrek Intxortako borrokaldian Basalgon bertsoan egiteko elkartu ziren frankista batek eta errepublikar batek botatuko bertsoak ekarri zituen gogora Elgetako plazan.

Agipadeko prebentzio programa 7.000 ikasletara helduko da

Agipad, drogomenpekotasunen prebentzioan lan egiten duen elkarteak, aurkeztu du ikasurte berria. Aurten, Gipuzkoako 50 hezkuntza zentrotara heltzeko asmoa dute, tartean Oñati eta Arrasateko ikastetxeetara. Hori horrela, prebentzio programa, 2 eta 19 urte arteko 7.000 bat ikaslerengana helduko da.

Ekimen honek Eusko Jaurlaritzaren babesa dauka, Drogomenpekotasunen Zuzendaritzaren bitartez; Kutxarena, Gizarte Ekintzen bidez; eta zerbitzua ematen duten Udalen. Agipadeko prebentzio taldeak 1986. urtean hasi ziren lanean.

U-21



ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

EH Bilduren aldeko argazkia, Antzuolan

Hauteskunde kanpainan sartuta, zapatuan EH Bilduren aldeko argazkia egin zuten Antzuolan. Gazte eta heldu ugari hartu zuten parte eta udaletxe aurrean egin zuten hitzordua. Esku bat sortu zuten eta, taldeko argazkirako, bakoitzaren afizio edo ofizioa adierazten zuen zerbait eramateko eskatu zieten parte-hartzaileei. Hala, frontoian jokatzeko palak, aliketak zein ortutik hartu berria zuten kalabaza ikus daitezke. Bere herrialdeko bandera ere eraman zuten irudian ageri den irlandarrak.

Arriolak dio PSE-EEK bakarrik berma dezakeela ongizatea

L.K. | ARRASATE

PSE-EE alderdiko Gipuzkoako zerrendaburuak, Iñaki Arriolak, hauteskundeetarako kanpaina Laubide plazan hasi zuen egubakoitzean. Bertan, Arriolarekin

batera, besteak beste, Arrasateko alderdi sozialistako kideak eta Jesus Egiguren izan dira.

Arriolak kanpaina kalean egingo duela nabarmendu du. Iñigo Urkulluk "plan sekretua"

duela esan du, hauteskundeak irabaziz gero murrizketak egingo dituela uste baitu. EH Bilduri independentziarekin "arazoak konpontzen ez" direla esan dio, eta PPK murrizketak aurrera eramango dituela uste du. Ongizate estatua bermatzeko, PSE-EE aukera bakarra dela dio Arriolak.

Bihar, astelehena, Blanca Roncal eta hainbat zinegotzi Aretxabaletan izango dira, 11:00etan.

Ekitaldia egingo du egubakoitzean EH Bilduk Bergaran

Hauteskunde kanpainaren barruan, EH Bilduk ekitaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilak 12, Bergarako Munibe plazan, 20:00etan. Zapatuan, hilak 13, ekitaldi nazionala egingo dute BECen.

EAJk hiru ekitaldi egingo ditu Debagoienean datozen egunotan

Bihar, M. Eugenia Arrizabalagak hitzaldia egingo du Olanaran, 19:00etan; etzi, Joseba Egibarrek Bergarako elikagaien bankua bisitatuko du; eta zapatuan, Elgetan, jendearen galderak erantzungo dituzte M. Eugenia Arrizabalagak eta Markel Olanok.

Ezker Anitzeko lehendakariagaia Arrasaten da gaur

Ezker Anitzeko lehendakariagaia, Mikel Aranek, estatu ereduaren gaineko hitzaldia egingo du gaur, astelehena, Kulturaten, 19:00etan. IUko Joan Josep Nuet Espainiako Kongresuko diputatua ere hantxe izango da.

Euskarazko telebistek Gipuzkoarako albistegia egingo dute egunero

'Gurean gaur' du izena, eta aldi berean sarean ekoiztu eta emitituko da

M.B. | ARRASATE

Goiena, Goierri, Tolosako 28. kanala eta Hamaika telebistek bat egin dute, egunero-egunero, sarean, albistegi bateratua emititzeko. Hau da, euskarazko telebistek Gipuzkoarako albistegia egingo dute. *Gurean gaur* da albistegia izena, eta aurkezle lanak egingo ditu Nagore Uriarte kazetari bilbotarrak.



Gipuzkoako telebistetako eta Aldundiko arduradunak. | GOIENA

Albistek eta elkarrizketa

Gipuzkoako Foru aldundiak diruz lagunduta, lurraldeko telebistek elkarlanean ekoiztutako proiektu baten berri aurkeztu zuten Foru Aldundian. Orain arte, bakoitzak ekoiztutako saioak

trukatu eta beren telebistan eman izan dute, programazioa osatuz. Baina beste urrats bat eman dute: aurrerantzean, telebista bakoitzak, bere eremuan, ekoiztutako albis-

teak kontatuko dituzte albistegi bateratuan. Albisteez gain, egunero elkarrizketa luze bat jasotzen du saioan, gaurkotasanarekin lotutako gonbidatuei egina.

Atez atekoaren ontziak eta zintzilikarioak adjudikatzeko deialdia

- ▶ Deialdiak urriaren 2an kaleratu zituzten Aldizkari Ofizialean
- ▶ Informazio guneak urri erdi aldera zabalduko dituzte

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Atez Atekoaren inguruko hiru deialdi kaleratu ziren aurreko astean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; hain justu ere, *Ekoizle handiek sorturiko etxeko hondakinen zatikiak biltzeko edukiontziz hornitzeko; Etxeko hondakinen zatikiak biltzeko zintzilikarioz hornitzeko; eta Etxeko hondakinen zatikiak biltzeko ontziz hornitzeko* lizitazio iragarkiak. Deialdiak urriaren 2an publikatu ziren eta interesatutako enpresek hilaren 17ra arte epea dute euren proposamenak aurkezteko.

Proposamenak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta proposamen ekonomikoa Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten duen bulegoan entregatu behar dira. Mankomunitateak 355.790 euro bideratu ditu hiru lizitazioetara.

Elkarte gastronomikoak

Bestalde, atez atekoaren gaineko informazio puntuak urri erdi aldera zabalduko dituzte. Bina Bergaran eta Oñatin. Leheanean, Martokon eta Azokan, eta bigarreanean Kale Zaharrean eta San Lorentzon.

Gainera, irailaren 19an bi herrietako enpresetako arduradunekin batzartu ziren. "Gustura egon ginen. Batzarretan egondakoek atez atekoaren gaineko informazio eskertu eta jarrera ona erakutsi zuten", esan digute informatzaileek.

Hurrengo pausua, elkarte gastronomikoekin emango dute. Datozen egunetan, Oñatiko eta Bergarako bina elkartetan lanean hasiko dira. Zenbat zabor sortzen duten, elkarteak non dagoen, nolako zintzilikarioa behar duten... Proiektu pilotua izango da.



ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

Ekitaldi jendetsua EMUNena

EMUNen 15. urteurrena ospatzeko Garaia Berrikuntza Gunean egindako ekitaldi jendetsua izan zen: 140 bat lagun egon ziren. Berbaldiak, ikus-entzunezkoak eta tailerrak egin zituzten, eta aurrera begirako asmoak azaldu: "Erronketako bat euskaraz lan egin gura dutenen komunitate bat sortzea izango da".

Ekonomiaren aldeko euskal akordioa eskatu du Adegik

Alderdi, sindikatu eta enpresekin egin nahi du

L.K. | ARRASATE

Adegik hazkundera eta enplegua sustatzeko "euskal akordioa" aldarrikatu du. Hori ezinbestekotzat jotzen du Gipuzkoako enpresen elkarteak, izan ere, atzeraldia "gero eta sakonagoa" da. Horrela esan zuen eguenean Pello Gibelalde, Adegiko presidentea, egoera ekonomikoaren diagnostikoa jakinarazteko aurtengo agerraldian.

Adegiren esanetan, industria-jarduerak 1999ko mailaren pare-raino egin du atzera eta enplegu asko galtzea espero da: 2012an, 7.000 enplegu. Abuztura arte, 500 enpresa kotizatzaile baino gehiago desagertu dira Gipuzkoan; aurreko bi urteetan desagertutako enpresen baturaren parekoa da ia kopuru hori. Adegiren kalkuluen arabera, Gipuzkoako BPG % 1,2 jaitsiko da 2012an eta bigarren seihilekoan jaitsiko da gehien.

Atzeraldiak 2013an jarraitu egingo duela esan du Adegik. Hori aurreikusita, "euskal akordioa" egiteko nahia agertu du. Eragile politiko, sindikal eta enpresakoekin egin nahi du, eta inbertsioaren alde apustu eginez hazkundera eta enplegua sustatu nahi ditu horren bidez. Izan ere, Adegiren hitzetan, "inbertsiorik gabe ez dago hazkunderik eta hazkunderik gabe ez dago enplegurik".



'Euskal Y'-ak %40 gutxiago jasoko du Espainiatik 2013an

L.K. | ARRASATE

2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektuan agertzen den arabera, *Euskal Y*-aren aurrekontua ia %40 txikitu du Rajoyren exekutiboak, eta 193 milioi izango ditu; aurtan, 314 izan ditu. Eusko Jaurlaritzak "azalpenak" eskatuko dituela iragarri du.

Sustapen Ministerioak partida garrantzitsuak gorde ditu datorren urtean Abiadura Handiko Trena egiteko, baina batez ere Galizian. Hala, Sustapen Ministerioaren aurrekontuaren %33 inguru trenarendako da, 3.302 milioi euro, hain zuzen

ere; eta horren herena inguru, 1.079 milioi, Galiziako AHT egiteko da.

Uste baino polikiago

Orain arte, Euskadiko AHT 2016rako bukatuta egongo zela esaten zuten agintariek, baina orain dagoeneko 2018a darabilte epe gisa. Espainiako Gobernuko Euskadiko ordezkariak, Carlos Urquijok, esan duenez, "kasurik okerreanean", AHTk "uste baino abiadura txikiagoa" izango duela, baina ez dela geratuko, Espainiako Gobernuarendako "proiektu estrategikoa" delako.

"Txina asko gustatu zaigu, oso ekintzaile ez den arren"

Bi ikasle arrasatear KooperAKTibistak proiektua garatzen izan dira Txinan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Esperientziarekin oso pozik bueltatu dira Arrasatera Jon de Andres eta Danel Mazmela 20 urteko ikasleak. MUREn Lidergo Ekintzaile eta Berritzaileko gradua egiten dabilta, eta aurreko promozioekoez hasi zuten proiektu bat garatzen ibili dira han. Hain zuzen, Mondragon Korporazioak Kunshanen duen industrialdean KooperAKTibistak delako proiektua aurrera errotan ibili dira uztail erdialdetik irail erdialdera arte, euren taldeko beste lau ikaslerekin batera. Besteak beste, Kunshango langileekin lidergo programa kooperatiboak landu dituzte.

AEBetan, Finlandian... egon izan dira, baina Txina gustatu zaie gehien: "Ez da munduko herrialderik ekintzaileena, baina badauka zerbait. Hango bizimodua kaos ordenatu antzeko bat da", esan digute.

Lanaren zati bat enpresekiko harremana egitea zen, izan ere, urtarrean promozioiko ikaskide guztiekin batera bueltatuko dira eta enpresa horiekin lan egiten jarraituko dute. Performics, Web2asia, Haworth, Dad Asia eta beste enpresa batzuekin komunikatu dira. Bada, hau esan digute: "AEBetan izan ginenean enpresekin harremana egitea oso zaila zen; askotan ez genuen erantzunik jasotzen. Txinan, aldiz, beti erantzuten ziguten eta harrera oso ona zen. Txinatarren atzeritarrenganako kontzeptua nahiko ona da. Esku zabalik hartu gaituzte".

"Sinestezina"

Jonen eta Danelen esanetan, txinatarrek oraindik ez dute ekiteko kultura handirik: "Hierarkia oso barruan daukate; langileek



Danel Mazmela eta Jon de Andres, Shanghai. | JUMP IN COOP.

ESANAK

"Hango langileek hierarkia oso barruan dute"

JON DE ANDRES | LEINN-EKO IKASLEA

"Txinako bizimodua kaos ordenatu antzeko bat da"

DANEL MAZMELA | LEINN-EKO IKASLEA

enpresako buruak esaten duena egiten dute". Eskubideak "pixka bat murriztuta" daukate langileek, euren iritziz. Dena dela, "ekintzaileak egon, badaude" han ere. Kooperatibismoa azaltzerakoan, haiek "sinestezintzat" hartzen zuten, baina.

Mendebaldekoa bezala

Shanghai Txinako hiri populatuena da (20.000.000 biztanle). Hura turista gisa ikusteko aukera aprobetxatu dute. Euren esanetan, "turista askok zioten Shanghai mendebaldeko antzeko hiria zela, baina beste leku askotan Txina oso bestelakoa zela, itxiagoa".

Lourdes Azkoaga | Bastida akademiako zuzendaria

"Etxeko enplegu eta autoenplegu ikastaroak eman gura ditugu aurten"

Arrasateko Bastida akademiak diruz lagundutako ikastaro asko emango ditu aurten ere

L.K. | ARRASATE

Bastida akademiako zuzendariak, Lourdes Azkoagak, uste du langabezia norbera prestatzen jarraitzeko aprobetxatu behar dela.

Nola hasi duzue ikasturtea?

Plangintzak oraintxe bertan irten dira, Hobetuzek oraintxe onartu ditu. Lanbidek badaki zer ikas-

taro eman behar duen, baina oraindik ez dugu banatu ze zentrok zer izan behar duen. Baina jendea informazioa eskatzen dabil, eta aurten ez dugu formazio guztia emateko adina diru. Izan ere, jende pilo dabil etortzen.

Zelako jendea da eta ze eskatzen du?



Lourdes Azkoaga. | L.K.

Lehen lana zegoelako formazioa utzi zuen eta orain langabezian dagoen jendea dago. Baita beste alternatibarik ez eta ikastera datorren jendea.

Krisiak asko aldatu du perfila, orduan.

Bai. Jendeak formazioa du, baina merkatua beste toki batera

doa, eta merkatura egokitu behar gara. Eskaintza egon, badago, subentzionatua gainera, eta nik uste dut merkatuak ze eskatzen duen ikusi eta horren arabera prestatzen hasi behar dela jendea.

Orain, badago Lanbideren eskaintza, profesionalitate-ziurtagiriekin formazioa bukatzerakoan.

Lan merkatua aipatu duzu. Zer eskatzen du?

Etxeko laguntzan, nagusiak zaintzen, oso aukera handiak daude orain. Aurten hasi gara, modu experimentalean, etxeko enplegu ikastaroa ematen, profesionalitate-ziurtagiriarekin. Bestalde, aurten, enpresak sortu eta kudeatzeko ikastaroa eman gura dugu. Ia urtero ematen dugu, baina aurten autoenpleguaren gainekoa eman gura dugu.

Langabezia bada ikasteko aukera bat, hortaz.

Bai, oso inportantea gainera. Merkatua oso zail dago, eta ez baduzu formaziorik, are konplikatuagoa.

Lanean dauden ikasleak ere izango dituzue, ezta?

Bai, baita horrelakoak ere. Bastidak gehien subentzionatutako formazio eskaintza (%100) egiten du. Dirulaguntzak Lanbidetik, Hobetuzetik eta Adegitik datoz. Adegik plan bat aurkezten du eta akademiei ematen dizkiete ikastaroak, bailara osora ailegatzeko. Oso eskaintza handia dago, eta Hobetuzen eta Adegiren ikastaroetako plazen %60 langabezian daudenendako dira, eta %40, gainerakoendako. Hortaz, hor badago beste aukera bat ere, langileek formazio bat lor dezaten.

Olatz Olaso | EMUNeko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria

"Euskararen normalizazioa maratoni bat da; poliki goaz, baina aurrera"

- ▶ EMUNen 15 urteurrena dela-eta, 'Euskara lanean bidea egiten' jardunaldia egin zuten
- ▶ Kooperatibaren iraganaz, orainaz eta etorkizuneko erronkez egin dugu berba Olasorekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

EMUN kooperatiba sortu zenetik 15 urte pasa dira, eta urteurren berezi hori aitzakia hartuta *Euskara lanean bidea egiten* jardunaldia egin zuten egunean Garaia Berrikuntza Gunean. 140 lagun inguruk jarraitu zuten, gehienak EMUNen bezeroak. Izan ere, lan esparrua euskalduntzeko kooperatibak haiei eman zien protagonismoa. Olatz Olaso izan zen hizlarietako bat, eta harekin egin dugu berba; EMUNen iraganaz, orainaz eta etorkizunaz.

15 urte lan arloa euskalduntzen. Ibilbide luzea egin du EMUNek, baina euskararen alorrean beti dago zer egin, ezta?

Bai. Askotan aipatzen dugu euskararen normalizazioarena maratoni bat dela. Aspaldi hasitako ibilbidea da eta oraindik luze joko du. Erritmoa geldoa da, aurrerapausoak ematea zaila izaten da-eta. Hori bai, poliki goaz, baina aurrera.

Noraino da garrantzitsua lan arloa euskalduntzea?

Lan mundua gizartearen zentroan dagoen aldagaia dela esan genezake. Eguneroko bizitzan lanaren inguruan mugitzen gara, hein handi baten, eta, beraz, euskara hor sartzeak berebiziko garrantzia du. Lan arloan dauden hutsuneak betetzen ez baditugu, euskarak ezingo du aurrera egin.

Lan arloan aholkularitza eskaintzen du EMUNek. Nola egiten da hori?

Hasteko, gure bezeroen etxean egoten gara. Hau da, enpresa barrura sartzen gara, aholkularitza zerbitzua bertatik bertara eskaintzeko. Dinamizazio eta kudeaketa lana egiten dugu; orokorrean, lau arlo lantzen ditugu. Lehen arloa ezagutzarena da; hau da, euskara ikastea bultzatzen dugu. Baina era berean, guretako oso garrantzitsua da motibazioarena, jendea euskara erabiltzera animatzea.

Hirugarren arloa erabilera bera da; enpresako leku ezberdinetan euskara erabiltzea bultzatzen dugu; bileretan, idatzietan edota deskantsurako guneetan, esaterako. Laugarren arloa da enpresak euskararen gaia berea egitearena, euskararen auzia egunerokotasunean txertatzea.

EMUNek zein enpresa mota bisitatu ditu azken 15 urteotan?

Ezin da ahaztu EMUN Arrasateko kooperatiba bat dela. Beraz, hemen sortu zen eta hemengo errealitatea hobetzea du lehen



Olatz Olaso, Arrasaten, jardunaldiak hasi baino lehenago ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

helburu. Euskara planak hemengo kooperatibendako egin ziren hasieran, baina eremua zabaltzen joan gara; poliki-poliki enpresa pribatuetara zabaldu gara, eta industria enpresetatik zerbitzuen sektorerara ere egin dugu salto. Azken urteetan eskaera asko jaso ditugu, euren zerbitzua euskaraz ere eman gura duten enpresena. Administrazioan ere lan mardula egiten ari gara une honetan. **Zeintzuk dira bide horretan aurkitzen dituzuen oztopo nagusiak?** Oraindik ere asko dira. Segurue-

"Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da batere erraza, oso prozesu luzea da"

"Immigrazioan eta kulturen ere ari gara lanean, euskara normalizatzeko"

nik, euskararen normalizazioaren alde egiten duten beste eragileek dituzten antzerakoak izango dira oztopo horiek. Hizkuntza ohiturak aldatzea dakar prozesu honek, eta ohitura oro aldatzea ez da batere erraza. Kanpoko faktoreez gain, enpresa bat euskalduntzeak barne aldaketa eskatzen du, eta, beraz, oso prozesu luzea da.

EMUNen bilakaeraren barruan zeintzuk izan dira urrats nagusiak?

Euskara izan dugu abiapuntu hasieratik, baina urteek aurrera egin ahala konturatu gara eus-

karak hainbat arlo dituela. Adibidez, herri txikietan gertatu zaigu etorkinekin euskararen gaia zeharka landu beharra. Hala, immigrazioaren gaia hizkuntzaz haratago ere lantzen dihardugu. Era berean, kulturaren zentroan ere hizkuntza dago eta euskaratik abiatuz kultura gaiak ere lantzen hasi ginen; bi arlo horiek, immigrazioa eta kultura, modu berezian lantzen ditugu.

Eta zeintzuk dira, bada, bi alor horietan EMUNek eskaintzen dituen zerbitzuak?

Kulturari dagokionez, herri mailako kultura planak egiten ditugu. Herriko eragile ezberdinak sare berean sartzen saiatzen gara; izan ere, herri askotan hainbat talde ezberdin egon arren, elkarren artean ez dago sinergia-rik.

Etorrinen kasuan, bestalde, harrera planak egiten ditugu, bereziki. Hezkuntzan ere formazio berezia ematen diegu etorkinei, ikusten dugulako behar handia dagoela.

Zein izan zen eguneko Euskara lanean bidea egiten jardunaldien helburua?

15 urte hauetan egindako ehunka euskara planetan gure bidelagun izan direnekin urteurren berezia partekatzea. Hala, eguna lanerako egun moduan hartu genuen. Horregatik, jardunaldietako protagonistak bezeroak eurak izan ziren; euskara planak bizi dituzten enpresetako ordezkariak, hain justu.

Zer landu zenuen Garaian?

Nik hartu nuen hitza lehendabizi, EMUNen ikuspegi orokorra azaltzeko. Gero, *Eta protagonistok zer diogu?* izenburu jarri genion bidea erakutsi genuen, 10-12 enpresetako ordezkariak euskara plana nola bizi duten azaltzen zuena. Euren ahotsa emateko egin genuen ikus-entzunezko hori. Gero, Julen Arexolaleibak hartu zuen hitza euskalgintzaren ikuspegitik enpresetan egiten ari den lana baloratzeko.

Jardunaldien bigarren zatian pisu berezia eman genien tailerrei, gure bezeroak direnak komunitate bat direla kontura zitezten.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira EMUNen erronka nagusiak?

Asko egin dugu 15 urteotan, baina asko dugu egiteko. Bi erronka nagusi ditugu epe luzera: batetik, enpresek zerbitzua euskaraz ematea eta, bestetik, enpresa barruan ere euskara erabiltzea.

ZABALIK

MANU ARREGI
http://goiena.net/iritzia/



Zertarako ETB?

Hogeita hamar urte dira Eusko Jaurlaritzak EITB sortu zutenetik. Helburu teoriko batekin: euskararen normalkuntza. Teorikoa, hogeita hamar urte hauetako praktikak beste zerbaitek erakutsi duelako. Komunikabide publiko guztiak bezala, agintariek euren ideiak zabaltzeko tresna garesti bat besterik ez delako EITB.

Gobernu guztiak egiten duten zerbaite da. RTVEn gertatu dena ikustea besterik ez dago. Juan Ramon Lucas eta Toni Garrido, besteak beste, kanporatuak izan dira, euren programen audientzia behin eta berriz gora egin arren. Baina ez dezagun gure burua engainatu. Ez dira horiek eskuineko partiduen praktikak soilik. Teleirradi espainolean orain sartu direnak ere kalera joango dira gobernua berriz kolorez aldatzen denean, beste ezeri erreparatu gabe.

Dena den, hau guztia tristea bada, tristeagoa da EITBren errealitatea. Irrati eta telebistaren gaztelaniazko bertsioek audientzia gehiago dutenez, horien alde egin dute apustu jaurlaritzak guztiak, komunikabide horren hasierako helburua alde batera utziz. Gaztelaniaz geroz eta gehiago egiten dute gure gazteek. Arazo konplexua da, baina komunikabide hauek erruaren zati majoa dutela uste dut. Entrenimenduko saio nagusiak gaztelaniaz egiten ditu ETBk. *El conquis* horren adibide. Gaztelania entrenimenduaren hizkuntza dela barneratzen dute gazteek. Euskara, berriz, asunto serioetarako dago.

Bereziki mingarria izan da uda honetan ETB2k emititu duen *Conquis Tour* ikustea. Lehenengo atala besterik ez nuen ikusi. Negargarria izan zen Bergarako euskaldunak gaztelaniaz hitz egiten ikustea. Non geratu dira komunikabide hauen sorkuntzako asmoak?

Ez dut komunikabide publikoetan sinesten. Ez du gizarte honek kalitatezko eta askeak diren komunikabideak izateko behar den kultura. Baina, gutxienez, manipulatzeko jarraitu behar badute, euskara hutsean egin dezatela, mesedez.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Kanpainen gaude; berriz?

az maiatzean udal eta foru hauteskundeak izan genituen, azaroan Espainiako Gorteetarakoak eta hamabost egun barru Eusko Legebiltzarrerakoak. Hori gutxi ez eta, kanpainen egubakoitzean sartu ginela entzun behar, gainera, abuztuaren 21ean Patxi Lopezek hauteskundeen aurrerapena iragarri baino dezente lehenagotik ari direnean politikariak euren mezuak "saltzen". Ia lorik egin gabe ibiliko dira batetik bestera, seguru; nahiz eta herritar askok dioten *-goiena.net*-eko *Hauteskundeak 2012* atalean orain arte elkarrizketatu ditugunek, urrunago joan barik- kanpainak ez duela eraginik izango euren botoetan. Bete samar gaude, egia, baina hauteskunde gaua iristeko gogoz; egia da hori ere.

KALE INKESTA

Gipuzkoako Aldundiak lehentasuna emango dio euskarari bere eguneroko jardunean. Zer iruditzen zaizu?



ANASTASIO
LOPEZ DE IPIÑA
ARRASATE

"Nik neuk ez dut euskaraz hitz egiten, ez dakit. Baina hala ere, ondo iruditzen zait, hoherako baldin bada".



NAGORE
LLODIO
ARRASATE

"Ordua zen. Hizkuntzari garrantzia eman behar badiogu, administrazioari eskatzen hasi behar gara, beharra ikusiz, ikasteko".



ANA
MURILLO
ARRASATE

"Ideia ona da Aldundiak euskara bultzatzea. Beste administrazioek ere bide hori hartu beharko lukete".



KARLOS
ZUBIALDEA
ARAMAIO

"Hemengoendako ondo, baina hala-moduz dabilzanendako, ba ez hain ondo. Euskara kalean erabili behar da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Eta burujabetza 1986an aldarrikatu izan bagenu?

Urko Apaolaza
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

1986ko hastapenetan, Galdakaoko baserri batean bildu ziren alde batetik Xabier Arzalluz EAJko burua eta bere bi kolaboratzaile, eta bestetik HBko Iñaki Esnaola eta kazetari bat. Negoziazio prozesua erretzen ari zen, gerora Aljerreko elkarrizketak izango zirena, eta Txomin Iturbe ETako buruzagiak jakin nahi zuen EAJ zertara iristeko prest zegoen armak utziz gero. "Arzalluzek interesa izango du hasieratik, eta ozen pentsatzen ariko balitz bezala, gelatik paseatzen hasten da: 'Eusko Legebiltzarrean euskaldunoi dagokigun autodeterminazio eskubidea onartu dezakegu EAJren eta HBren gehiengo zabalaz...'. Jose Felix Azurmendik kontatu du bere *PNV-ETA. Crónica oculta (1960-1979)* liburuan bilera hartan gertatutakoa, bera baitzen Esnaolaren ondoan zegoen kazetaria, *Egin*-eko

zuzendaria hain justu.

Liburuak aurreragoko garaiak ditu ardatz, Agirre lehendakaria hiltzen denetik (1960) Leizaola lehendakaria Hego Euskal Herrira itzultzen den arte (1979). [...]

Hurbilagokoak diren urteetan ere zenbait buruzagiren artean harreman hori mantendu dutela dio liburuaren amaieran kazetariak. Hortxe kokatzen du hasieran aipatu dugun 1986ko pasarte. Bilera hartatik beste bilera publiko bat egitea adostu zuten EAJk eta HBk Bergaran, apirilaren 25an, ETak Madrilen bost guardia zibil hil zituen egun berean. Hortik gutxira Frantziako polizia Txomin Iturbe atxilotu zuen eta Aljerrera deportatu zuten; 1987ko otsailean hil zen, istripuz, prozesu hartan giltzarri izan zitekeen etakide historikoa.

[...] Kataluniako Parlament-an autodeterminazio kontsulta egitea onartu berri duten honetan, Arzalluzek baserri hartan gure burujabetzaz "proposatutakoa" ezerezean geratu izanak, halako sentsazio garratza sortzen dio bati, 22 urte igaro baitira. U-21eko hauteskundeon ondoren jakingo dugu berriz ere halako zerbaitek gehiengo zabalik, eta batez ere, borondaterik ote dagoen.

Hauteskunde kanpaina sufritzen

Oier Gorosabel Larrañaga
http://eibar.org/blogak/orakulua/

Zertarako hainbeste diru eta tabarra, alperrik? Militantiak ez dabe bere botua aldatuko; eta botua aldatzen dabenak, barriz, ez dabe egingo propagandian matrakiangaittik. Nekatu xamarra najagok alternantzia politikuan ezinttasun kronikuekin: batetik turnoko agintarixak aurreko agintarixen heredentzixari leporatzen jeteak gaur egungo arazuak; bestetik, lehengo agintarixak oinguen akats beretsuak egin zittuezen arren, gormutu izatetik kritikiko zorrotzenak izatera pasatzen ditudak; podere aldaketia dagon bakotxian, txandia; ni hor eta hain hamen, eta joko gogaikarrira barrio hasten da... Elkargarian biharra egitteko inkapazidade hau ikusitta, tentaziño haundixa dok despotismo ilustrauan ideia. Ni neu momentuz tentaldixari eusten najabik (ondiok etxuat guztiz galdu gizakixanganako esperantzia). Baiña zelan ez ulertu faszismuan gorakadia? Normala, hauteskunde kanpaina asko *sufritzen* dirazengan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketaria Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitate Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino kalea 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

HERRIAK

BERGARA

Elosuko mendiko ferian, ganadu eta Nafarroa, protagonista

- ▶ Nafarroako Erresumaren garaian egon zen gaztelura kalejira egingo dute
- ▶ Idi-proben ordeztu, zaldi-probak egingo dituzte, Elosu bertako zaldiekin

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Urriaren 12an ospatuko dute Elosun 34. Mendiko Ganadu Feria. Elur Txiki elkarteak da antolatzailea, eta egiteko horretan Bergara zein Azkoitiko udalek, Elur-mendi Elkartek eta Ixaun jate-txeak lagundu dute. Gutxi gorabehera, sei lagun aritu dira aurtengo jaia antolatzeko batzordean, baina egunean bertan 40 pertsona inguru bertaratuko dira laguntza ematera.

Mendikoa, bakarrenetarikoa

70eko hamarkadaren amaieran aurreneko aldiz antolatu zutenetik, urtero jende ugari erakarri duen feria da Elosukoa. Jaiaren antolatzaile den Ainhoa Beristainek adierazi digunez, "mendiko" izendapenarekin egun egiten den bakarrenetarikoa da gainera: "Izendapen hori ematen zitzaien salerosketetarako feria izaten zelako, eta kalekoak azokak berriz, erakusketa edo lehiaketak egiteko izaten ziren".

Aurten, azken urteetan bezala, 150-200 animalia buru egongo dira azokan. "Gaur egun gremioak beherakada izan duela kontuan hartuta, "geroz eta gutxiago dira Elosuko moduko ganadu azokak", baina oraindik ere tratuak egiten direla gaineratu du, neurri apalagoan bada ere.

Egitaraua, berritasunekin

Goizeko bederatzietan hasi eta gauerdia ingurura arte egongo da zer egin Elosun. Epelde eta Lutxurdio trikitilariak alaituko dute feria egun osoan zehar. Gainera, txosna ere egongo da pilotalekuan:

EGITARAUA

09:00 Feriaren hasiera.

12:00 Napar sustarren kalejira gaztelura.

13:30 Sari banaketa eta trikitilariak.

17:30 Zaldi proba. Eta ondoren, erromeria.

22:00 Kontzertuak: Bergarako Garate eta Shut Up.

Egun osoan zehar Epelde eta Lutxurdio trikitilariak.



Zaldi bat zuhaitzari lotuta, Elosuko ferian. | ARTXIBOA

"Auzo batzordeak ipintzen zuen lehen, baina geroz eta gazte gutxiago gaude lan hori egiteko. Eta egunean bertan dena kontrolatuta edukitzeko 40 lagun inguru aritzen gara; ohartu ginen ez ginela guztira iristen. Modu horretan, azken urteetan Elurmendi elkarteak ipintzen du txosna".

Bestalde, zantzarrek kalejira egingo dute urriaren 12an Elosun, eta arratsaldean, 17:30ean, zaldi proba egongo da ikusgai, auzoko bertakoen zaldiekin gainera: "Beste urte batzuetan idi-probak egin izan ditugu eta aurtengo zaldiekin izango da ikuskitza. Beti saiatzen gara protagonistak auzotarrak izatea, bai feriarak animaliak eramanez, baita arratsaldeko ekitaldian parte hartuz". Mikel Juaristi Kortatxo-k zaldiak horretarako prestatuta zituela aprobetxatuta,

zerbait desberdina egitea otu zitzaien. "Egun horretan Elosura etortzen den jendea horrelako gauzak gustatzen zaizkie, eta kasu honetan ere gozatuko dutela iruditzen zait".

Egun ezberdin bat igarotzeko gogoak duenak, beraz, "urriaren 12an hitzordu polita" topatuko du Elosun.

Elosuko gazteluaren aztarnen bila

Nabarraldeko lagunak eskatuta, *Napar sustarren bila*, kalejira gaztelura antolatu dute. Garai batean Elosun gaztelu edo dorre bat egon zen eta indusketa egin gura dituzte, historia berreskuratu asmoz. Kalejira egingo dute zantzarrek gaztelua egon zen tokira, Nafarroako bandera ipini eta ekitaldi txiki bat egingo dute bertan, "jendea egun batean Nafarroa izan ginela gogoratuz".



Elosuko Mendiko Ganadu Feria, 1979an. | ARTXIBOA

DATUA

150

GANADU BURU

150-200 ganadu buru inguru egongo dira aurten ere Elosuko mendiko ferian.



Oñatiko Sagardogileen postua jendez gainezka, zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Astotxoa. | JOSETXO ARANTZABAL



Fritu, barazki, gazta eta abere lehiaketetako sarituak. | JOSETXO ARANTZABAL



Ezker abertzalekoek egin zituzten taloak aurten ere. | JOSETXO ARANTZABAL



Fritu eta barazki postuetan herritarrek erosi ere egin zuten. | JOSETXO ARANTZABAL



Las Culebras taldea. | MIREN ARREGI



Txistulariek eta trikitilariak alaitu zuten herri bazkaria. | JOSETXO ARANTZABAL



Ikaragarria Lazarragako lorategian batu zen jende kopurua. | JOSETXO ARANTZABAL

rako ez zen bat bera ere gelditzen. Gustura ziren ekoizleak, jendearen erantzuna oso ona izan baitzen.

Kantu eta dantza, bazkaritan

Adin guztietako herritarrek batu ziren herri bazkarian. Berritasuna, bazkaria prestatzeko erabili ziren produktuak Oñatikoak bertakoak zirela eta hori oso ondo hartu zuen herriak. Kanturako eta dantzarako aukera ere izan zen eta ondo aprobetxatu zuten herritarrek. Txistulari eta musika eskolako trikitilari, fin ibili ziren herritarrek dantzan eta kantuan ipintzerako orduan.

Lorategian, jende mordo

Atzo, Errosaixo domeka, musika bandak horrenbeste esperotako kontzertua eskaini zuen Lazarraga jauregiko lorategian. Aurreikuspen guztiak gainditu zituen gainera ekintzak, jende mordo batu baitzen kontzertuan. Herritarrek gustura ikusi zuten laster zabalik egongo den lorategia.



OÑATI

Urteko asteburu ederrena atzean, gertu da herria gaurkoari ekiteko

Gaur esango diete agur jaiei oñatiarrek; ez, baina, aurretik mozorro eta karroza ederrak kalera atera barik

MIREN ARREGI | OÑATI

Azkar, azkarregi pasatu da oñatiar askorendako urteko asteburu politena izaten dena. Zapatuan herriko baserritarrek kalera jai-

tsi zituzten euren jardunaren erakusle, ganadu, asto, ahari, bildots, ardi, asto, txerri, barazki, fruitu zein etxeko gaztak. Artisauak ere ez zuten hutsik

egin; ezta urteroko talogileek ere. Beste behin, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitate ingurua baserritarrez jantzitako jendez lepo egon zen goiz guztian zehar.

Herriko sagardoa, bukatu

Aurten lehenengoz atera zuten herriko 15 sagardogilek etxean ekoiztutako sagardoa kalera. 400 botila inguru atera eta 13:00eta-



FERMIN LEZETA
ARRASATE

"Berandu etorri gara eta jendez lepo dago, baina toki ederra da bueltatxo bat eginaz erakusgai dagoena ikusteko. Aspaldi etortzeke ginen, badira dagoeneko 6 bat urte, baina merezi du taloa janda artisauak eta beste ikustea".



SANTI IDIGORAS
OÑATI

"18 urte nituenetik Oñatitik kanpo bizi naiz baina gaurko egunean urtero-urtero etortzen naiz. Ezinbesteko hitzordua dut; ganadua ikusi, barazkiak, sagardoa edan, erosketak ere egin ditut. Oso egun ederra izaten da".



UXUE ETA NEREA
OÑATI

"Herri bazkarira koadrilan gatozen lehenengo aldia da. Egia esan, etxean hobeto jaten da baina koadrilan egoteko toki ederra da. Gaur, gainera, etxera berandu joateko baimena daukagu eta oso pozik gaude".



LUCIA ETA LEIRE
OÑATI

"Musika banda askotan ikusi izan dugu, eta gaur, horretaz aparte, lorategia ikustera ere etorri gara. Joan den domekan ezin izan genuen ikusi eta ederra, handia eta kurioa iruditu zaigu. Aprobetxatu beharko dugu lekua".



JAVIER MUGARTZA
OÑATI

"Gaztetan ezagutu nuen lorategia. Leku ederra da, eta bikaina da hemendik aurrera herriak honetaz gozatu ahal izatea. Ni neu gaur banda entzutea etorri naiz, egia esan; gustuko dut eta askotan entzuten ditut kontzertuak".



Eskapulario salmenta. | J.A.



Kalabazaren pisua asmatzeko lehiaketa. | AED ELKARTEA



Maritxu Kajo. | JOSETXO ARANTZABAL



Irrien Lagunak. | JOSETXO ARANTZABAL



Plaza, jendez beteta. | J.A.



Makala, jendez inguratuta, arratsalde. | J.A.



Jendea dantzan eta suak, irudiaren azpian. | J.A.



Lore eskaintza bat. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE

Herriko zaindari aldarrikatu du bere burua Maritxuk mirarian

San Juanek ezin izan zuena Maritxu Kajoik egin du, makala plaza erdi-erdian altxatuaz

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Gauaren itzalpean egin du aurten mirakulua kutzako birjinak, goizean goiz, egubakoitzean, arrasatear guztiak artean, izaren

goxotasunean, lozorroan zeudela. Askok, kalera irten eta plazatik igarotzean, eskapularioak eta puntaren puntan hainbat kamiseta zeuzkan makalarekin egin

zuten topo. Eta galdera, ea brigadakoak nahastu eta sanjoanak zirela pentsatu zuten ala Maritxu umore bereziko iratzartu ote zela. Goiztiar eta lanerako gogoz ibili

da Maritxu aurten eta makala jaso du, itxura guztien arabera, herriko gazteei indarrak emateko. Izan ere, makina bat buruhauste eragin izan die herriko gazte

koadrilei makalak azken urteetan. Aurtengo sanjoanetan, adibidez, ezin izan dute jaso. San Juan Bataiatzaileak, antza, ezin izan zuena Maritxu Kajoik aise ahal du. Herriko zaindari lanak agian berak hobeto egingo lituzkeela ulertzeraz eman nahi izan du Maritxuk. Urak baino gehiago ardoak konbentzitzen baititu *fededunak*, bari-kuan kaleetan zen giro bikainak beste behin ere argi erakutsi duen moduan.



OIHANA
ARETXABALETA

"Goizetik etortzen gara koadrilakoak girora Aretxabaletatik. Bazkaltzeko itzuli gara eta arratsaldean berriz Arrasatera. Aurten behintzat miraria ikusteko aukera badaukagu, eguraldiarengatik".



BLANCA ETA ELENA
ARRASATE

"Gure plana umeendako moldatutakoa da eta horrek esan gura du hamabietarako etxean egon beharra dugula. Arratsalde bizi dugu guk festa: bueltatxo, miraria ikusi eta hori guztia. Ondo pasatzen dugu".



JOSE FELIX
ARRASATE

"Argazki eder askoak atera ahal izan ditut gaur. Jende asko dabil eta giro ederra dago, eta esango nuke aurten bereziki gazteak oso dotore jantzi direla. Halako egunetan ederra izaten da argazkiak ateratzea".



TXUS ETA MARIJO
ARRASATE

"Gurea iluntze eta gaueko plana izaten da. Txikiteoa, elkartean koadrilakoekin afaldu, eta gero, gerokoak. Onena afaria izaten da. Guraso izanda, baina, ezin biak atera eta urtero batek umeekin geratu beharra dauka. Hala ere, aprobetxatu, iluntzea aprobetxatu ohi dugu eta gaur benetan giro ederra dago herri guztian. Momentuz hasi besterik ez gara egin eta ikusiko dugu ea egunak ze itxura hartzen duen aurtengo *maritxuetan*".

ANTZUOLA

Giro apartean inauguratu zuten gaztetxe berria Antzuolan zapatuan

Plater konbinatuen lehiaketa egin zuten eta sukaldean bikain dabilzala erakutsi zuten guztiek

ZURIÑE V.D.M. | ANTZUOLA

Anbulatorioa zegoen tokian ireki dute Antzuolako gaztetxe berria eta asteburuan inauguratu dute ofizialki. Egubakoitzean eta zapatuan ekintza ugari egin zituzten: pintxo-potea, bazkari jendetsua, haurrentzako jolasak eta rock kontzertuak...

Plater konbinatuen lehiaketa ere antolatu zuten zapatuako gaztetxeak, eta menu goxoak prestatu zituzten parte-hartzaileek:

tomate beteak gulekin, txitxi-burruntziak, hanburgesa txikiak patatekin... Pozik agertu ziren antolatzaileak.

Etorkizunera begira, asmo ugari dituztela adierazi dute gaztetxeo kideek; garrantzitsuenera bat, herrira eta herritarrei gaztetxea irekitzea. Lan egiteko modua ere zehaztu dute: sei lantalde osatu dituzte funtzionamendua hobetu asmoz, eta bertan arituko dira 35 lagun inguru.



Zapatu goizean, sukaldaritza proba eginez hasi zuten ospakizuna. | Z.V.D.M.



ARRASATE

JOSETXO ARANTZABAL

Hogeitaseigarrena ospatzen

Arrasateko Alkartetxeak 26 urte bete dituela eta, zapatuan ospatu zuten Eusko Alkartasuneko alderdikideek efemeridea. Modu horretan, eguerdian San Frantzisko elizan, hildako alderdikideen omenezko meza egin zuten, eta segidan bazkaltzeko elkartu ziren Alkartetxean bertan. Bertaratutakoek kontu zaharren gainean egin zuten berba, eta etorkizunari buruz ere bai; dena, giro alaian.




ARAMAIO

JOSETXO ARANTZABAL

Untzillan, haurrak protagonista

Untzillako jaiak ospatu dituzte asteburuan. Peñagarikano eta Lizasoren bertso animatuek alaitu zuten egubakoitzeko afaria. Zapatuan ere egon zen zer egin, eta batez ere, umeez gozatu zuten egitarauarekin: puzgarriak, antzerkia, jinkana eta txokolate-jana egon zen beraientzat. Bolo txapelketak ere jende ugari erakarri zuen zapatu gauean beste behin, bere 31. edizioan. Domekan, Murura igoera egin zuten, itzuli lasaian.



2012/2013 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN
ZIURTAGIRI
BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	Orduak
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua	UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	60
		UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	40
	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizatze makinak eta sistemak prestatzea	UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak	80
		UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena	30
(FMEO0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG	MF0099_2 Arku elektrikoarekin elektrodo estali bidezko soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekien karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
		UF1624 Basiko elektrodo estaliekien karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
		UF1625 Elektrodo estaliekien karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea	90
	MF0100_2 Gas babeslepeko arkuarekin elektrodo ez-kontsumigarriaren bidezko soldadurak (TIG) egitea	UF1626 karbono altzairuen TIG soldaketa	90
(FMEO0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektio termikoak egitea	UF1672 Oxigas soldadura	70
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF0249_2 Etxean egiten den higieena eta osasun arreta	UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higieen-osasun beharrak	70
		UF0120 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua	50
		UF0121 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak	50
(SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF1017_2 Erakundeetan, higieen -elikaduraren arretan esku hartzea.	Erakundeetan, higieen -elikaduraren arretan esku hartzea	70




LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)


ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEO0210 Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG	430	Altueran lan egitea	20
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEH0109 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	280	Garbietan lan egitea	20
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: TMVL0109 Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan	270	Eskorgan lan egitea	20
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: SSCS0208 Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitaria	480	Soldadoreen homologazioa	60

DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

DOAN



heziketa
formación profesional

ETXEBARRI AUZOA Z/G 22 PK.
20550 ARETXABAETA (GIPUZKOA)

WWW.IARETXABAETA.COM
IA@IARETXABAETA.COM

T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

Julian Urkiola | Gipuzkoako erlezain elkarteko presidentea

"Hemengo erlearekin amaituko du asiarrak"

Gipuzkoan 700 bat habia kendu dituztela kalkulatu du Urkiolak; bestalde, Administrazioari eskatzen diote berrikuntza egitasmo bat abian jartzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Duela hiru urte izendatu zuten Julian Urkiola (Usurbil, 1945) Gipuzkoako erlezain elkarteko presidentea. *Vespa Velutina* edo erle asiarra agertu zela bi urte pasatxo dira: "Entomologo batek duela bi urte pasatxo ziurtatu zigun lehen aldiz", dio.

Arrasaten aurten ere agertu da erle asiarraren habia bat. Gipuzkoan zenbat diren esaterik bai?

Kontuan izan behar dugu orain hasi direla indartzen eta hala ari-tuko direla urri amaierara arte. Baina datu bat eman behar badut 700 bat habia kentzera helduko ginen. Oraindik ez dira ikusten, baina laster, hostoak erortzen direnean, bistaratuko dira.

Habia bat aurkitzerakoan, zeintzuk dira eman beharreko pausuak?

Hasteko, 112ra deitu. Gero larrial-



Julian Urkiola, habia batekin. | TXINTXARRI

di zerbitzuek zehaztuta dute protokoloa, azkeneraino eramaten dutena. Kasuak kasu aztertzen da nola tratatu, suhiltzaileak

behar diren, basozaina joan behar den edo nor izan behar den habia kentzearen arduraduna. Izan ere, kasu batzuetan ezinezkoa izaten da suhiltzaileak bertaratzea.

Zergatik da hain arriskutsua?

Gizakiarendako ez du aparteko arriskurik. Zitada gehienak habia nahi barik ukitzeagatik ematen dira. Baina gure ekosistemarendako oso kaltegarria da, hemengo erlea akabatuko duelako. Hemengo erlerik ez bada naturak ez du aurrera egingo. Gainera, hemengo erlea hiltzeaz gain, liz-tor txikiak ere jaten ditu.

Bestalde, proba batzuk egiten ari gara haragiarekin. Asko harr-ituko zinatekete haragia nola jaten duten ikusiko bazenute. Eta ez hori bakarrik, fruitu gozoei ere eraso egingo dietela uste dugu; mahatsari, adibidez. Mahats bil-



Habia, MU eta Uribarri etorbidearen arteko plazan, zuhaitz baten. | IÑAKI ZULOAGA

Habia bat Uribarri etorbidearen ondoan

Iñaki Zuloaga arrasatearrak erle asiarraren habia bat dagoela jakinarazi digu. Habia MUko Eskola Politeknikoaren eta Uribarri etorbidearen arteko plazan –erreka igarota– ikusi zuen Zuloagak: "Hilbehera tabernakoek aurkitu zuten habia eta argazki batzuk ateratu nizkion. Zuhaitz horretan dagoen bakarra da baina erraz atzeman daiteke, saskibaloirako baloi baten tamainakoa da-eta. Nik dakidala bizilagunen artean ez du eragozpenik eragin".

ketan dihardutenei ziztatzeko arriskua ere badago. Argi esango dut: nik neuk nahiago ditut hemengo erlearen hamar zitada, asiarraren bakarra baino.

Nola egin diezaiokegu aurre?

Tranpak jartzen ditugu baina horietan %0,2a erortzen da, eta askoz lehenago ugaltzen dira. Tranpa

horiek selektiboak egiteko lanean gabiltza, erle asiarra bakarrik eror dadin. Administrazioari lan horretan laguntzeko eskatu diogu. Laztik eskatu genuen berrikuntza eta garapen egitasmoa abian jartzeko, arazoari aurre egiteko ezinbestekoa delako. Baina oraingoz ez digute kasurik egin.

Berriketan taldea eguenean: energia handiko ikuskizuna

J.B. | ARRASATE

Joan den eguenean Irungo Lisabö taldeak eman zion hasiera *Kooltur Ostegunak* ekimenaren hirugarren ikasturteari. 150 lagun inguru elkartu ziren, horietatik asko kanpotik etorritakoak. Horrek argi utzi zuen Lisabök hainbat zale amorratu dituela. Ordu eta erdi inguru iraun zuten

emanaldian, intentsitate eta sendotasun handia erakutsi zuten irundarrek. Ezin da ahaztu egun instrumentuak bikoiztuta dituen taldea dela, hau da, bi bateria, bi baxu eta bi gitarra izan ziren agertokian. Ilusio handiz etorri ziren, gaztetxea ospitale zaharrean zegoenetik kontzerturik ez zutelako eman Arrasaten.

Berriketan: ikuskizun berezia

Eguenean Berriketan taldeak hartuko du lekukoa (gaztetxea, 22:00). Euskal sustraiak eta flamenkoa uztartzen dituen proiektua da: perkusio, gitarra eta *kejidoen* artean, dantza eta txalapartaren arteko elkarrizketak nagusituko dira. Alegria, *buleria*, tangoak, fandangoa eta bestelako erritmoak, goxotasun eta energia handiko ikuskizun berezi baten. Nortzuk diren? Askoa Etxebarrieta *La Pulga* flamenko dantzaria, Raquel Cabello abeslaria eta Simon Moreno gitarra jotzailea, besteak beste.



Berriketan taldea: txalaparta eta flamenkoa, bat. | BERRIKETAN

TXALOAK ETA TXISTUAK

Oinezkoendako lekurik ez, autoa dagoelako



Ondoko argazkia irakurle batek bidali digu, Aragoa kalean. Azaldu duenez, Arrasaten hainbat dira

autoa aparkatzerako orduan espaloia okupatzen duten gidariak. Herritarra kexu da gidari horiek oinezkoak errespetatzen ez dituztelako: "Ez digute ematen espaloia erabiltzeko aukerarik", dio.



GOIENA

ARTE tailagileen elkarteak taila ezagutzen ez duten herritarrendako ikastaroa antolatu du

ARTE Arrasateko tailagileen elkarteak taila ikastaroa antolatu du, Arrasateko Udalaren laguntzaz. Hastapen ikastaroa izango da eta beraz, taila ezagutzen ez duenarendako antolatu dute bereziki. Jose Mari Etxabe elkarteko arduradunak jakinarazi duenez, urriaren 23an hasiko da ikastaroa eta 30 ordukoa izango da. Izena emateko honako bi telefono zenbakietara deitu behar da: 620 17 42 55 (Jose Mari) edo 618 88 64 32 (Imanol).

Baserritar jantzia egiteko ikastaroa antolatu du Ekin elkarteak, urriaren 16tik abenduaren 18ra

Aurten Ekin emakumeak elkarteak baserritar jantzia norberak egiteko aukera eman gura die arrasatearrei. Hala, ikastaroa antolatu dute, urriaren 16tik abenduaren 18ra. Martitzenero elkartuko dira, 18:00etatik 20:00etara, Ekin elkartearen egoitzan. Amaia Albes izango da irakaslea eta bakoitzak nahi duen eran eta nahi duen koloreko jantzia egin ahal izango du. 35 euro da ikastaroaren prezioa –bazkideek 33 euro– eta honako bi telefono zenbakietara deitu behar da izena emateko: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36.



Besaideko mendi bizikleta martxako aurreko edizio bat. | ARTXIBOA

Hitzordu ugariz dator Besaideko hamabostaldia

Bazter berriak ezagutzeko irteerak, eskaladaren gaineko ikus-entzunezkoa...

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Urriaren zehar egitarau oparoa eramango du aurrera Besaide Mendizale Elkarteak. Irteerak egingo dituzte, ikus-entzunezko emanaldiak eskaini...

Irteera ugari

Mendi hamabostaldiaren harira, irteera ugari antolatu dute Besaidek. Picos de Europa joango dira egubakoitz honetan, asteburua pasatzera. Espinama, Aliva, Collado Jermoso eta Fuente Dera joango dira.

Urriaren 20an mendi bizikleta martxan egingo dute. "Urtetik urtera jende gehiago animatzen da, iaz 280 lagun inguruk hartu zuten parte".

Hilaren 27an herriko bide zaharrak ezagutzeko irteera egin-

go dute. Roman Martinez elkarreko presidenteak hala adierazi du: "Arrasaten antzina erabiltzen ziren bideak berreskuratu eta azaleratzen ari gara. Epe luzera begirako proiektua da; udaletxearen laguntza daukagu, bideak garbitzeko azpiegitura mailan laguntzen digute. Izan ere, bideen sare bat hedatu gura dugu, markatu, mantentzea bermatu eta jendeak erabiltzeko moduan ipintzea da asmoa". Kurtze Txiki ingurura joango dira aurten. "Haur zein helduentzako jardura da, bi ordu eta erdi inguruko irteera, bide errazetatik, gainera".

Urriaren 28an berriz, Gipuzkoako Mendi Federazioak Mutriku egingo martxara joateko autobusa antolatuko du mendizale elkarteak.

Ikus-entzunezkoak

Bi ikus-entzunezko ere eskainiko dituzte hamabostaldiaren baitan. Aurrenekoa urriaren 17an izango da, Aloñako mendi espeologia taldearen eskutik *Uraren bidea* izeneko lana emango dute. "Urak gure lur azpian nolako eragina duen, nolako paisaia osatzen duen erakusten digun lan interesgarria da".

Bestalde, hilaren 24ean, Adolfo Madinabeitiak Acopan Tepuyin oinarritutako *Mundo Perdido* lana emango dute: "Euskal Herri mailan eskaladan erreferentea izan da, pareta zailtan teknika berriak erabili izan ditu". Debagoienean eskalaren inguruan zaletasun handia dagoelako antolatu dute jardunaldia. Biak Kulturaren izango dira, 19:00etan.

Z.V.D.M. | ARRASATE

Eguazten honetan, urriak 10, Carmen opera entzutetsuaren aurkezpena egingo dute. Kulturaren izango da hitzordua, 19:15ean hasita eta Ozenki elkarteak antolatu dute.

Opera arrakastatsua

Urriaren 23an, martitzena eskainiko dute Carmen opera Arrasateko Amaia Antzokian. Bete egingo da aretoa, sarrerak salgai ipini eta egun gutxira ia guztiak saldu zituzten eta.

Modu horretan eta etorriko denaren aurrerapen bezala, Cristina Cubillo arrasatearrak Eduardo Arzamendi pianoan lagun duela, Georges Bizet konpositorearen obra ezaguneko bi pieza interpretatuko ditu; alde batetik Micaela aria eta bestetik, Carmenen Habanera.



Carmen obraren une bat. | ARTXIBOA

Sukalde begetarianoari eta ogiari buruzko ikastaroak, Bedoñan

Bedoña Batu elkarteak antolatu ditu: urriaren 18an eta azaroaren 10ean egingo dituzte


ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Urte guztian zehar hainbat ekimen antolatu ostean, datozen bi ikastaroak ere prest ditu Bedoña Batu elkarteak. Lora-mendi Elkartearen izango dira biak eta izena emateko epea irekita dago.

Patxi Marina sukaldariaren eskutik, sukaldaritza begetarianoaren gaineko ikastaroa egingo dute, urriaren 18an. Kalabazina izango da protagonista eta errezeta ezberdinak ikasiko dituzte. Eta behin jatekoa pres-

tatu ostean, afaria egingo dute elkartean bertan. Izan emateko azken eguna urriaren 11n izango da

Bestalde, ogiari buruzko ikastaroa egingo dute azaroaren 10ean. Dena den, dagoeneko izena emateko epea irekita dago; iaz ikastaroak eduki zuen arrakasta ikusita, izenematea lehenbailehen egiteko gomendioa egin dute Bedoña Batukoek. Ikastaroetan izena eman gura izanez gero, 688 887 902 edota 688 887 909 telefonora deitu.



Ogiaren gainean gehiago ikasiko dute. | BEDOÑABATU

Salgai daude AEDn Zizur Txikin egingo den Nafarroa Oinez 2012ra joateko autobus txartelak

Urriaren 21ean egingo dute Zizur Txikin aurtengo Nafarroa Oinez. Debagunek, Debagoieneko euskara elkarten federazioak autobusa antolatu du bertara joateko. Hauteskunde eguna izanik bestetan baino beranduago irtengo da, Bergaratik atera, eta Arrasatera 10:00etan iritsiko da. AEDn erosi daitezke txartelak, 15 eurotan (13 euro euskara elkarteotako bazkideek).

1956an jaiotakoek urteroko irteera egingo dute azaroaren 10ean Mutrikura

Aurten 56 urte bete edo beteko dituztenen urteroko hitzordura deia egin dute antolatzaileek. Azaroaren 10a hautatu dute beraien eguna ospatzeko eta Mutrikura egingo dute irteera. Horretarako 10:00etan elkartuko doira Garibaien eta egun pasa egingo dute. Parte hartu gura dutenek, 60 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako kontu honetan: 0011154565..

Gaur hasiko dute ikasturtea Goienagusiko lagunek literaturan eta maitasunari buruzko eskolekin

Goienagusi kultura elkarteak prest du 2013ko maiatza bitarteko egitaraua, eta gaur emango die hasiera bere ikastaroei. Hala, goizeko 10:00etan hasita Etxaluzeko eraikinean elkartuko dira, J. Domingo irakaslearen eskutik *Maitasunak literaturan* gaiaren gainean gehiago ikasteko. Urriaren 15, 22 eta 29an eta azaroaren 5, 12, 19, 26an jorratuko dute gai hori.

Gaur irekiko dute La Caixako alokairuko etxeetako zerrendetan izena emateko epea

Arrasateko La Caixako alokairuko etxebizitza gura dutenek izena eman dezakete gaurtik aurrera zerrendetan. Gela bateko edo biko etxebizitzak dira eta alokairua gehienez 277 eurokoa izango da, garajea barne. Zenbait baldintza bete beharko dira, diru sarrerari edota jabetzan etxe edukitzeari buruzkoak, esaterako. Informazio gehiago: <http://obrasocial.lacaixa.es> helbidean.



Aitor Muruamendiaratz, plaka jasotzen. | ERREAL ZALEAK LAGUNARTEA

Aralar taberna da Erreal Zaleen egoitza berria

Lagunarteak Aitor Muruamendiaratz eta Angel Bideluze omendu ditu

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Erreal Zaleen lagunartekoak Matxiategin dagoen Aralar taberna izendatu du partiduak ikusi eta Reala animatzeko egoitza berri bezala. Bi denboraldiz Agorrosingo tabernan egon ondoren, egoitzaz aldatu dute, Agorrosingo taberna itxi egin dute eta. Hain justu ere, eguen iluntzean izendatu zuten ofizialki Aralar Erreal Zaleen topaleku.

Taberna Realeko ikurrekin jantzi zuten eta kanpoaldean Realaren bandera jarri dute. Ekitaldian luncha egon zen, bertaratutako guztiendako.

Omenaldia ere bai

Ekitaldira lagunarteko kide guztiak zeuden gonbidatuta; izan ere, omenalditxo bat ere egin nahi zuten eta ahalik eta politena ateratzea nahi zuten.

Hain justu ere, Aitor Muruamendiaratz eta Angel Bideluze zenari egin zieten omenaldia. Plaka bana jaso zuten: lehenengoa, Aitor Muruamendiaratzek, Agorrosingo tabernaren orain arteko arduradunak; bestea Angel Bideluzeren senitartekoek jaso zuten. Angel Bideluze lagunarteko lehenengo kideetako

bat izan zen, eta hil den lehenengoa, hain zuzen ere.

Dagoeneko badute, hortaz, Realaren partiduak ikusteko egoitza berria Erreal Zaleek, eta aurrerantzean hara joateko gonbitea egin zieten ekitaldira joan ziren guztiei eta talde txuri-urdinaren jarraitzaileei.

Gabonetako Loteria salgai

Gabonetako Loteria banatzeko prest dutela ere ekarri dute gogora Erreal Zaleek. Talonarioak Matxiategi elektrizitate-dendan jaso dezakete lagunarteko bazkideek.

Marrazki maratoia antolatu dute Beartek eta Euskalerrria's Sketchcrawl taldeak hilaren 13rako

M.B. | BERGARA

Beart elkarteak eta Euskalerrria's Sketchcrawl taldeak Euskal Herriko 37. sketchcrawl topaketa egingo dute gurean urriaren 13an.

Sketchcrawl-a edo marrazki maratoia hiri-margolarien topaketa da. Bertan bildutakoek toki desberdinen marrazkiak egiten dituzte paperean, horretarako arkatzak, boligrafoak eta errotuladoreak erabilita.

Bergaran egingo den sketchcrawl-ak herriko parke eta lorategiak izango ditu gai nagusi bezala. Hori horrela, topaketara hurbiltzen direnek gai horren inguruan egin beharko dituzte euren marrazkiak eta Udalak

lorategiak hobeto baloratzeko informazioa banatuko du marrazkilarien artean.

Egun osoko egitaraua

10:30erako egin dute hitzordua udaletxeko arkupeetan, eta haxe da egingo duten ibilbidea: 11:00etan Errekalde jauregian egongo dira; 12:30ean, Errotalde jauregian; 14:15ean, Santa Marina elizan; eta 14:30ean, berriz, bazkaria egingo dute Sirimiri jatetxean. Eguneko menua 12,90 euro izango da. Tokia erreserbatzeko bidali mezua beartelkartea@gmail.com helbidera.

Arratsaldean, alde zaharreko lokaletan jarritako artelaren



Josu Marotoren sketchers-a. | J.M.

erakusketaren ibilbidea egingo dute, zenbait egilek lagunduta: Antton Arrillaga, Maite Azkargorta, M. Paz Alustiza, Ramon Arantzabal eta Ricardo Azkargortak, esaterako. Egunari amaiera emateko, talde argazkia egingo dute San Martin plazan.

Europako lau proiektutan parte hartuko du Miguel Altuna institutuak

Txandakako formazioan oinarritutako HEZIBI programa ere abiaraziko dute azaroan

M.B. | BERGARA

Europatik 2012rako egin diren deialdien barruan, Miguel Altuna lau proiektutan hartuko du parte. Hain justu ere, *Fem-forging* izeneko proiektuaren sustatzailea da; hau da, hotzeko eta beroko estanzazioaren simulazioa lantzeko proiektua. Bestetik, Know-Tech 3D delako proiektuan ere hartzen du parte. Transferentziarako proiektua da, hotzeko estanzazioan aplikatutako 3D simulazio teknologian egindako ikerkuntzen emaitzetara zuzendua. *eBridge 2* proiektuan ere badihardute. Europako hizkuntzak lantzeko mugikortasunerako proiektua da; eta *EnTraiMo* proiektuan ere ari dira, talde lana eta espe-

rientzia bultzatzera zuzendutako ikasle eta irakasleen mugikortasunerako proiektua, hain zuzen ere.

Txandakako formazioa

Bestalde, Martxan da HEZIBI programa Bergarako Miguel Altunan. Programa horren bidez heziketa zikloetan bigarren mailan ari diren ikasleek ikasi eta lana egiteko aukera izango dute azarotik aurrera, urtebeteko kontratuarekin. Danobat Koop. Elkarteak egindako gonbidapenari esker, irailean Alemaniako hezkuntza sistemaren metodologia hori nola lantzen duten ikusteko aukera izan zuten zenbait irakaslek.



Miguel Altunakoak, Alemaniara egindako bisitan. | MIGUEL ALTUNA

'Zu bezalakoa naiz' Uliazpi zentroaren argazki erakusketa ikusgai dago osoko bilkuren aretoan

Uliazpi zentroak Espoioian duen zentroak 10 urte bete ditu, eta urtemuga hori dela-eta ireki dute egoitzako erabiltzaileak islatzen dituen erakusketa hori. 21era bitartean egongo da ikusgai osoko bilkuren aretoan, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Udal Musika Bandaren kontzertua astebete aurreratu dute: urriaren 21etik 14ra, hain zuzen ere

Udal Musika Banda urriaren 21ean egitekoa zen hileko kontzertua urriaren 14ra aurreratu dute, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeekin bat egiten zuelako.

Udal Musika Bandak Udal Pilotalekuan egin ohi izan ditu hileroko kontzertuak, eta, egun horretan hauteslekua izango denez, emanaldia aurreratzea erabaki dute. Urriaren 14ko emanaldia 12:30ean izango da.

Urriaren 1a ezker zabalik dago ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Erreziboen ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxe beraren bidez bidali eta kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituztenei, ondorengo egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo Udal bulegoetatik pasa daiteke ordainketa egiteko. Borondatezko epea azaroaren 10ean amaituko da. Orduetik aurrera errekararekin kobratuko dute.

Muruamendiaratz: "Bezeroei ezin genien edozein modutan agur esan"

► 73 urtean bezeroak mimatzen eta aholkatzen jardun du Zubikua jantzi-dendak Bergaran

MAIDER ARREGI | BERGARA

Arantza Muruamendiaratzek Zubikua jantzi-dendaren errelebu pasatu die Edurne Gallastegi eta Kristina Agirrerri. Eta modu original eta deigarrian egin du, gainera: erakusleihoan agur eta esker oneko mezua jarrita. "Bezeroekin horren harreman ona izan dugunez eta horrenbeste eman digutenez, ezin ginen edozein modutan agurtu. Buelta pare bat emanda, burura etorri zitzaigun erakusleihoan, jendaurrean, agur mezua uztearen ideia. Donostiako talde batek lagundu zigun ideia garatzen", azaldu digu.

Gerra osteko ausardia

Garai gogorak bizi ostean, gerra ostean zabaldu zuten, orain 73 urte, Zubikua jantzi-denda. "Nire amak eta izebak ireki zuten den-

da, Amillaga auzoko Zubikua baserritik kalera jaitsita. Oso argiak ziren. Jertseak egiten hasi ziren eta ondoren mertzeria bat ireki zuten, pixkanaka zabalduz eta herritarren laguntzari esker aurrera eginez".

"Denetik saltzen genuen, hariak, bularretakoak, barruko gonak, alkandorak... herriko denda txiki polit bat zen". Muruamendiaratzek hiru belaunaldi, hiru lan egiteko modu ezagutu ditu: "Jendeak eskatzen duena asko aldatu da. Orain, erosotasuna bilatzen dute. Saltzaileak kontaktu zuzena izan behar du bezeroarekin, eta herri baten gehiago. Ezagutzen duzu nola bizi diren, ze behar duten. Hori esperientziak ematen du". Anekdotak, baina, denda barruan geratuko direla esan digu.

Errelebu

Gogotsu ekin diote etapa berriari Kristina eta Edurnek. "Arantzak bidea erraz utzi digu. Jendearen babesa ere jaso dugu eta oso pozik gaude", dio Kristinak. Gogotsu ekin diote etapa berriari Kristinak eta Edurnek. "Arantzak bidea erraz utzi digu, maisu oso ona izan da. Jendearen babesa ere jaso dugu; oso pozik gaude", dio Kristinak. Ia 30 urte daramatzate biak Arantzarekin lanean eta ikasitakoa eta esperientzia lagungarriak direla aurrera egiteko azaldu digute. "Ziurtasuna dugu, eta hori garrantzitsua da".

"Orain ardura gehiago ditugu, ez da saltzea bakarrik; atzean daudenak eta ikusten ez direnen ardurak ditugu", dio Edurnek. Hirurek eskertu gura izan dute urteetako herritarren babesa.

ESANAK

"Saltzaileak kontaktu zuzena izan behar du bezeroarekin; esperientziarekin ezagutzen da pertsona"

ARANTZA MURUAMENDIARATZ | ZUBIKUA

"Arantzak bidea erraztu digu; maisu ona izan da eta asko ikasi dugu; jendearen babesa ere izan dugu hasieratik"

KRISTINA AGIRRE | ZUBIKUA

"Orain ardura gehiago ditugu, ez da saltzea bakarrik; atzean ikusten ez den lan eta ardura asko daude"

EDURNE GALLASTEGI | ZUBIKUA



Hainbat belaunaldi; Kristina eta Edurne etapa berrirako prest. | MAIDER ARREGI



Arantza, Kristina eta Edurne agur mezua erakusten. | MAIDER ARREGI



Edurne eta Kristina esker ona adieraziz erakusleho aurrean. | MAIDER ARREGI



Mi semana con Marilyn film biografikoa egunean. | GOOGLE.COM

Marilyn Monroek emango dio hasiera zinema zikloari

Zabalotegi aretoan eskainiko dira zinema historikoko emanaldiak urriko eguaztenetan

M.A. | BERGARA

Simon Curtis zuzendariaren *Mi semana con Marilyn* film biografikoa izango da ikusgai hilaren 10ean Zabalotegin.

Zinema ziklo historikoa

Guztira, lau film historikoz gozatzeko aukera egongo da ondorengo asteetan. Urriaren 17an, *La*

dama de hierro -Meryl Streep-ek aktore onenaren 2011ko Oscarra eskuratu zuen- ikusteko aukera egongo da.

Urriaren 24an, beste film arrakastatsu bat: *El discurso del Rey* -2010eko film onenaren Oscar saria jasotako film txalotua.

Azkena urriaren 31n izango da: Manolo Luppichini zuzendariaren *La mafia del TAV* filma.

Zinema historikoko emanaldiak Zabalotegi aretoan izango dira, 20:00etan hasita, urriko eguaztenetan.

Bihar zabalduko da eskulanen ikastaroetan izena emateko epea

Orratz eta tela lanak, zeramika, eskulan dekoratiboak, bitxigintza eta pintura dira aurtengo eskaintza

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bihar, hilak 9, zabalduko da epea Udaleko Kultura Sailak urtero antolatzen dituen eskulanetako ikastaroetan izena emateko. Bihartik hilaren 19a arte egongo da zabalik. Plazak mugatuak dira.

Bost aukera

Aurtengo eskulanen ikastaroetan bost aukera daude: zeramika, eskulan dekoratiboak, bitxigintza, pintura eta orratz lanak (patchwork, hardenger, myreska, ajour, mayorquin eta richellier teknikak). Zeramika eta pintura ikastaroak, gainera, nagusiendako eta umeendako izango dira aurtengo ere, eta gainerakoak, nagusiendako bakarrik.

Orratz eta tela ikastaroa Arantzau Lizarraldeko emango du aurtengo ere. Lau talde egingo ditu: astelehenak edo asteazkenak eta 14:30etik 17:00etara edo 17:30etik 20:00etara. Zeramika ere astelehen eta eguaztenetan erakutsiko dute. Imanol Aranburu izango da nagusi zein umeen irakaslea. Nagusien txanda astelehen eta asteazkenetan izango da, 19:00etik 20:30era, eta 7 eta 12 urte bitarteko umeena, berriz, eguaztenetan 17:00etik 19:00etara.

Eskulan dekoratiboen irakaslea ere ez da berria: Jasone Agirrek emango du aurtengo ere ikastaro hori. Martitzenetan izango da, 15:00etik 17:00etara edo 18:00etik 20:00etara. Bitxigintzan, Inma Graña izango da irakaslea. Ostegunetan emango ditu eskolak,



Emakume bat koadro bat margotzen. | FERMINET

18:00etatik 20:00etara, eta kurtsoan zehar bi ikastaro emango ditu: hastapeneko bata eta aurreratua bestea. Ikastaro biak 14 ordukoak izango dira.

Pinturan, Luis Laskurain bergararra izango dute irakasle nagusiek. Astelehen eta martitzenetan izango da ikastaro hori, 16:00etik 18:00etara edo 18:00etik 20:00etara. Gaztetxoaren irakaslea, berriz, Lexeia Larrañaga izango da eta eguen edo egubakoitzetan emango ditu eskolak, 17:00etik 18:30era.

Matrikula, 23tik 30era

Eskulanen ikastaroen izen-ematea kultura etxean egin behar da, bihartik 19ra. Talde bakoitzeko zerrendak osatuko dituzte gero, eta ondoren, matrikula ordaintzeko epea zabalduko dute. Urriaren 23tik 30era izango da hori. Nagusien matrikula 70 euro da, bitxigintzakoak salbu; hori 33 euro da. Haurrena, berriz, 51 euro. Ikastaroak 40 ordukoak izango dira eta plazak baino jende gehiago apuntatzen bada, aukeraketa zozketa bidez egingo dute.

Etxean su detektagailuak jartzeko aukera dago

Bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren 80 urtez gorako herritarrentzako eskaintza

O.E. | OÑATI

Etxe partikularretan su detektagailuak jartzeko kanpaina jarri du martxan Udalak. Eskaintza bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren 80 urtez gorako herritarrei zuzenduta dago.

Bi hilabeteko epea

Udalak orain bi urte, 2010ean, onartu zuen etxebizitza partikularretan su detektagailuak jartzeko ordenantza. Orduan egin zen lehen kanpaina, 183 etxebizitzatan 222 su detektagailu jarri ziren. Orain, tarte horretan 80 urte bete duten herritarrei edo hasieran ezezkia eman arren prebentzio neurri hau jartzera animatu diren herritarrei eman gura zaie aukera. Bada, bi hilabeteko epea dute dagokien eskaera

Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuan egiteko. Aurreko kanpaina, su detektagailuak jartzeko Udalak kontratatu zuen enpresako langileak izan ziren zuzenean kanpainaren berri eman zutenak. Oraingoan, beste era batera zabaltea erabaki dute. Gizarte Zerbitzuetatik kanpainaren berri emateko gutuna bidaltzeko asmoa dute. Idatzia 80 urte edo gehiago duten herritarrei bidaliko diete. Ke detektagailu horiek instalatu aurretik, eskatzailearen etxera joango diren teknikariek sua sortzeko arrisku fokua identifikatuko dituzte, prebentziarako oinarritzko gomendioak emango dizkiete etxean bizi diren lagunei eta etxearen krokis bat egingo dute, beharra izanez gero, ebakuazioa erraztu eta azkartzeko.

Bihar da azken eguna Imsersoko bidaietara joan ahal izateko izena eman eta tramiteak egiteko

Imsersok kaleratu du urteko bidaia programa, eta izena emateko epea oso txikia da. Hilaren 9a, bihar, da azken eguna Imsersorekin egin gura diren bidaietan izena eman eta beharrezko tramiteak egiteko. Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan egin ahal da hori. Kontuan hartu behar da, baina, gaur, astelehena, itxita dagoela bulegoa; beraz, bihar da azken aukera.

Etzi, eguaztena, zabalduko dituzte igerilekuak eta uretako jarduerak hilaren 15ean hasiko dira

Igerilekuen garbiketa sakona eta desinfektazioa egiteko, itxita daude igerilekuak bihar arte, eta eguaztenean zabalduko dituzte. Bestalde, igeriketa ikastaroen hasiera astelehenean izango da, urriaren 15ean. Ikastaroetan izena eman duten behin betiko onartuen zerrenda ikusgai dago Zubikoa kiroldegian eta Udaleko webgunean: www.oinati.eu.

Gazteen kultur sormena eta hedapenerako dirulaguntza eskaera zabalik dago

Gazte taldeek garaturako jarduerak eta egitarauetarako dirulaguntza eskaera kaleratu du Udalak. Kultur sormena eta hedapenerako izango da laguntza ekonomikoki hori. Gazteek, banaka edo taldeka, urria bukatu arteko epe berria dute Gaztedia Departamentuko dirulaguntza horiek eskatzeko. Martxoko deialdian ez zen partida osoa agortu, eta bigarren deialdia da hau.

Arantzazuko ibilbidea egiten duten autobusek udako ordutegia izango dute baita urrian ere

Oñati eta Arantzazu lotzen duten autobusek udako ordutegia izango dute urrian ere: urriaren 28a arte, hain zuzen ere. Hau da, 07:30ean aterako da lehen autobusa Oñatitik eta 19:00etan azkena Arantzazutik. Goizeko linea bat eta arratsaldeko beste linea bat Arrikruzera joango dira.

Hiru hilabetez luzatu dute Udalak langileen garraio kolektiborako enprekin zuen hitzarmena

Oñatiko Udalak eta Ulma Construcción, Packaging eta Piping enpresek hiru hilabetez luzatuko dute langileen garraio kolektibo zerbitzuen finantzazioarekin duten hitzarmena, Lanbus zerbitzuan jatorria duena. Hala, Udalak egungo garraio kolektiboa bateratu egin gura du.

Lehiaketako margoen erakusketa zabalik dago

San Migel jaietako aire zabaleko margo lehiaketara aurkeztu zituzten lanak ikusgai daude kultura etxeko erakusketa gelan, nagusien mailakoan eta 16 urtetik beherakoan mailakoan. Erakusketa urriaren 11 arte egongo da zabalik, eta egunero dago ikusteko aukera, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean.



OIHANA ELORTZA

ARETXABALETA / ESKORIATZA

Emakume kubatarren erakusketa Arkupen

Eskoriatzan egon ostean, Aretxabaletara eramango dute erakusketa

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA
Joan zen astelehenetik ikusgai egon da Eskoriatzako kultura etxean *Emakume kubatarrak, iraultza bat beste baten baitan* izeneko erakusketa. Gaur, astelehena, ere oraindik Eskoriatzan gozatu ahalko da erakusketa horrekin, baina bihurtik aurrera Aretxabaletako Arkupera eramango dute eta hilaren 22ra arte egongo da bertan.

Aretxabaletan Emakumearen Astea ospatuko dute hilaren 15etik 20ra bitartean eta horren

harira eramango dute emakume kubatarren erakusketa Aretxabaletara.

Erakusketa

Erakusketak Kubako emakumei buruzko informazioa jasotzeko aukera ematen du. Besteak beste, osasuna, sexu eta ugalketa eskubideak edota botere parte-hartzean duten presentziari buruzko informazioa irakur daiteke.

Kubako Iraultzaren lorpen handienetako bat emakumeak

herrialdeko bizitza ekonomikoan, politikoan, sozialean eta kulturean parte hartzea izan bada ere, kultura patriarkaletik jasotako aurreiritzi eta estereotipo sexistak gainditzeko erronkari aurre egin behar diote oraindik. Horregatik, eskolaren, komunikabideen eta komunitateetako federatuen bidez, berdintasun-kultura indartzeko aldatetako bultzatzen dituzte.

Horretaz guztiaz informatzeko aukera dago orain, beraz, Aretxabaletako Arkupen.



Emakume kubatarren erakusketan ikusgai dagoen irudi bat. | MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA

Udalak kirol jardueretarako bi diru-laguntza deialdi egin ditu

A.T. | ARETXABALETA

Kirola sustatzeko helburuarekin, hauek dira Aretxabaletako Udalak kirol jardueretarako egin dituen bi deialdiak: herriko kirol taldeen jarduera arruntarentzat egindakoa, eta bertako kirol taldeek eta entitateek antolatutako jarduera berezietarako edo noizean behingo jardueretarako emango dituzten laguntzak.

Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten joan zen martitzenean, hilak 2an.

Lehenengo deialdirako diru-laguntza eskabideak 30 eguneko

epean aurkeztu behar dira, GAOn deialdia argitaratu zenetik kontatzen hasita. Bigarren deialdirako, berriz, 2012ko abenduaren 15a baino lehen, aurkeztu behar da dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoa, diruz lagundu den jarduera egin dela egiaztatzeko. Dirua biltzeko diren diru-laguntzetan, ez da aurkeztu behar izango jatorrizko fakturarik edo dokumenturik, eta dokumentazio hori aurkeztu barik, diru-laguntzaren onuradunek bidali dezaketek ekintza egitean sortu diren gastu eta diru sarreren balantzea.

ARETXABALETA

Loramendi kultur eskaintzaren gaineko galdeketa bat egiten dabil herritarren iritzia jasotzeko

Loramendi elkarteak kultura lantaldea sortu dute eta euren kultur eskaintzari buruzko galdeketa pasatzen ari dira korreo eta baita herrian dauden elkarteetan ere utzi dituzte. Helburua da kultur eskaintza aberastea eta hauxe galdetzen dute, besteak beste; aisialdian zer egiten duzun eta aukera izanez gero zer egingo zenukeen.

ESKORIATZA

Frontoiko kantxa itxi egingo dute Udal pilotalekuko teilatua aldatzeko obrak direla-eta

Gaur, hilak 8, hasiko dira Udal pilotalekuko teilatua aldatzeko obrak. Espero dute gutxi gorabehera obra horiek hilabete irautea eta ondorioz, uste da azaroaren 5era arte luzatuko direla lanak. Denbora horretan frontoiko kantxa ezin izango da erabili, eta obrak sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu nahi die Udalak udal pilotalekuko erabiltzaileei.

ESKORIATZA

Udako Argazkien Lehiaketako erakusketa itxita, bihar, martitzena, jakingo da nortzuk irabazi duten

Egubakoitzera arte egon ziren ikusgai Ibarraundi museoa Eskoriatzako I. Udako Argazki Lehiaketako lanak. Bertaratu zirenek euren gustuko argazkiak bozkatu zituzten eta saretik ere herritarrek izan dute aukera lan onenak bozkatzeko. Horiek guztiak zenbatu ostean, bihar, martitzena, jakinaraziko dute nortzuk diren lehen edizioako irabazleak.



Pier Paul Berzaitz, Petti, Alex Sardui, Arantxa Irazusta, Mikel Urdangarin eta Eñaut Elorrieta. | SORTUKO DIRA BESTEAK

ELGETA

Musika izango da protagonista Espaloia kafe antzokiaren ikasturte hasieran

'Sortuko dira besteak' musika emanaldiak lehen mailako musikariak ekarriko ditu Elgetara azaroaren 25ean; sarrerak salgai daude dagoeneko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hamabost ekitaldi iragarri ditu Espaloia kafe antzokiak aurkeztu berri duen abendura bitarteko programazioan. Musika emanaldiak bost izango dira, antzerkiak bi, erakusketak hiru, eta dantza saio irekiak hiru. Euskal zinemagintza oinarri hartuta *Gartxot* pelikula eta *Gazta zati bat* dokumentala ere ikusgai izango dira udazken honetan antzokian.

Musika emanaldietan estilo oso ezberdinetako saioak izango dira hiruhileko honetan Espaloian. Guztien artean azaroaren 25erako iragarritako dagoen *Sortuko dira besteak* saioa nabarmentzen da. Pier Paul Berzaitz, Petti, Alex Sardui, Arantxa Irazusta, Mikel Urdangarin eta Eñaut Elorrieta musikariak egingo dute Xabier Leteren omenez egindako ikuskizuna. "Ahalegin berezia egin

dugu ikuskizun hori Elgetara ekartzeko", esan dute antolatzaileek. "Apostu handia da, baina pentsatzen dugu maila handiko emanaldia dela, eta aretoa bete egingo dela". Interesatuei gomendatu diete sarrerak aurrez erosteko. Online bidez eros daitezke Kutxan, bestela antzokian bertan. Prezioa 15 euro da aurrez erosiz gero, eta 18 euro txarteldegian.

Gainerako musika emanaldiak ere kontuan hartzeko modukoak dira. Urriaren 19an Mikel Markez eta Erramun Martikorena izango dira Espaloian, azaroaren 11n Jabier Muguruza eta Iñigo Mugaruzaren Lurra taldea, abenduaren 12an Bergarako Alai taldea—Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta—, eta abenduaren 15ean BC Bombs, Rat-zinger, Frydays Crews eta Screammers and Sinners punk-rock taldeak.

Bi antzeulan

Dos hombres solos sin punto com ni ná antzeulan komikoa egingo dute Espaloian Manolo Medinak eta Rodrigo Ponce de Leon aktoreek. Arrakasta handia lortzen ari den antzezlana da, eta azaroaren 16an izango da Espaloian. Bigarren antzerki saioa Oñatiko Ikusi Makusi taldearen eskutik izango da abenduaren 5ean. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatutako saioa da honakoa.

Dantza eta erakusketak

Herri dantzanek urriaren 28an abiaraziko du ikasturte berria, eta azaroan afari baten bueltan egingo dute saioa. Erakusketak, berriz, hiru izango dira; ikusgai dauden Nerea Villaren argazkiak, Juan Manuel Arruabarrenaren margoak azaroan, eta Kontxi Idigorasen margoak abenduan.

ANTZUOLA

Gai libreko argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

Lanak entregatzeko azken eguna azaroaren 9a da; udaletxeko bulegora eraman beharko dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Argazki lehiaketan Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Hiru mailatan dago lehiaketa banatuta: lehen maila, 6-12 urte; bigarren maila: 13-18 urte; hirugarren maila: 19 urtetik gora. Argazkiak aurkezteko epea azaroaren 9an bukatuko da; udaletxera eraman behar dira.

OINARRIAK

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ditzake. Lanak koloretan edo zuri-beltzean egin daitezke, eta euskarriaren barruko argazkiaren neurriak, gehienez, 25x35 zentimetrokoa izan beharko du. Argazkiak egi-leari buruzko datu barik entre-

gatu beharko dira, baina argazki bakoitzari gutun-azalaren atzealdean izenburua ipini behar zaio. Argazkiarekin batera, gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da: gutun-azalaren gainean lanaren izenburua eta zein kategoriatan parte hartzen duen jarri beharko da; gutun-azalaren barruan, berriz, parte-hartzailearen datuak eta argazkiaren izenburua sartu beharko dira. Aurkeztu diren argazkiekin erakusketa egingo dute azaro bukaeran Olaranen.

Oinarriak www.antzuela.com udal webgunean dituzue irakurgai. Azaroaren 9ra arte dago zabalik parte hartzeko epea.

ARAMAIO

Zuiako Koadrilako mintzalagun taldea gertu dago ikasturte berrirako

Aramaion, kultur etxean zein udaletxean eman daiteke izena urriaren 31 baino lehen

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Iritsi da mintzalagun taldeak beste ikasturte batez martxan jartzeko unea. Hainbat urtetan zehar, Topagunea elkartearen eta Zuiako Koadrilako euskara elkartearen ekimenez, eskualdeko hainbat talde elkartu izan dira euskaraz hitz egiteko helburuarekin. Aurten ere horretarako aukera egongo da.

Izena emateko epea urriaren 31n bukatuko da, eta honako lekuetara jo beharko du interesatuak: Aramaion, kultur etxean edo udaletxean.

Mintza Eguna hilaren 20an

Zuiako mintzalagunak, asteroko hitzorduaz gain, hil honetan beste hitzordu garrantzitsu bat

izango dute. Izan ere, urtero Arabako mintzalagun talde guztiak biltzen dituen Arabako Mintza Eguna urriaren 20an izango da aurten, Murgian, koadrilan bertan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, ez da asperzteko astirik egongo. Hasteko, Murgiatik bertatik bisita gidatua egingo dute, ordubate inguruko ibilaldi bat. Gero, mintza probak egingo dituzte: Aramaiotik *berbapasa*, Izarratik esaera zaharren txapelketa eta Gasteiztik palindromo lehiaketa. Jolasen ostean, herri bazkaria egingo dute. Izena emateko 20 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korronte zenbakian: 3035 0014 620140074035. Azkenik, antzerkia ere egongo da.



Mintzalagun talde bat, aramaioarrak barne, iazko irteera baten. | JOSU ALDAMA

LEINTZ GATZAGA

Urriaren 23an onartuko dituzte tasen igoerak

Ordenantza fiskalak, hau da, tasak eta zergak, eztabaidatzeko osoko bilkura egingo dute

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Urriaren 23an, martitzena, udalbatzak egingo duen osoko bilkuran onartuko dituzte datorren urtean aplikatu beharreko Udal zergak eta tasak. Orduan jakinaraziko dute igoerarik izango duten horiek edo dagoenetan utziko dituzten.

Bien bitartean, 2012ko jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dagoela gogorarazi du Udalak—argibideak, www.leintzgatzaga.com—. Irailaren 10a baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren bitartez kobratuko dituzte zuzenean, ordaintzeko borondatezko epea bukatzen den egunean. Helbideratu gabeko ordainagiriak, ostera, herri-tarrek adierazitako helbidera bidaliko dituzte urrian zehar, ordainketa gero, banketxe baten

bitartez egiteko. Urriaren 20ra-ko ordainagiri hori etxean jaso ez dutenek jakinarazi egin beharko dute.

Diru-laguntzak

Bestetik, Bideberri mankomunitateak—Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako Gizarte Zerbitzuen mankomunitatea—zabor bilketa eta estolderia zerbitzuen tasa ordaintzeko diru-laguntzen oinarriak onartu ditu eta deialdia egin. Eskaera horiek nork bere herriko udaletxean aurkeztuko ditu; baita ondorengo agiriak ere: gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzeko aurkeztutako dokumentazioa; eta azken ordainagiria ordainduta dagoela ziurtatzen duen agiria. Urtea bukatu bitartean eskatu ahal izango dira laguntza horiek.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



Joxefel2



JAKION
Jakionek emandako
Produktu sorta*
* Jakioneko produktuz osatutako otarra.

Zein herritan dago Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza?

Argazkia eta galdera > Joxefe Diaz de Tuesta

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
SMS bidez: Bidali KLUBA ERANTZUNA

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

DVD

'Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa'

DVD dokumentala
36ko gerraren eta haren osteko krudeltasunaren testigantza jasotzen duen DVD dokumentala.

Parte hartzeko epemuga: Urriak 10.



Intxorta 1937
Kultur Elkarte



Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
SMS bidez: Bidali KLUBA DVD
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
E-postaz: kluba@goiena.com
Whatsapp bidez: 688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



Atera etekina

goienakluba 2012

%15 eko deskontua



BEGIONDO
optika
Aretxabaleta
943 79 98 21

- %15eko deskontua produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL



AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03



AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39



EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78




ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41



GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentroak
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55



GUZTIZ
EDER
edertze zentroa
Oñati, 943 78 01 46.



IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48



IZENADUBA BASOA
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61



JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45



LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71



MULTIÓPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75



NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta, 943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72




TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia, 943 46 44 00

KIROLA

FUTBOLA

UDAk nahi baina ezin, azkenean Bergarakoen defentsarentzat puntua

- ▶ Une batzuetan temati ibili baziren ere, UDAkoek ez zuten derbia etxean irabazterik lortu
- ▶ Defentsari tinko eutsita, azkenean errentagarria izan da Bergarakoentzat


JON BEREZIBAR | ARETXABALETAKO

Saiatuagatik eta sortutako auke-
rengatik, erraz beharko zukeen
garaipenak etxekoentzat, baina
azken ukitu horren faltan egon
ziren UDAkoak eta azken txanpan
amorruez ekin bazioten ere, nahi
eta ezin hutsa izan zen atzoko
partidua aretxabaletarrentzat.

Bergarak defentsa tematia
aurkeztu zuen lehen unetik, etxe-
ko aurkariaren sasoi onaren jakitun.
Aretxabaletarrek jakin zuten
Bergarakoen atean jokoari eusten,
baina ezin asmatuta ibili ziren,
batetik, eta, gainera, atezaina
txukun ibili zen lanean. Interes
txikiko lehen zatian, soilik epai-
leak lortu zuen jokalaria eta ikus-
leak piztea, etxeko taldearen
jarraitzaileak bereziki sutuz.

Amorruez ere ezin

Bigarren zatirako, aldiz, amorrue-
handiagoa erakutsi zuten bi talde-
deek eta pase luze eta jokaldi
zabalen apustua egin zuten. Oldar-
tzearen abantailak hobeto etxeko
taldeak baliatu zituen, nahiz eta
Bergarak ere eutsi zion aurka-
riaren demari. Baina nahi eta
ezin, bigarren zatian ostera ere,
eta golik ez zen egon atzo Ibarren,
ez behintzat ligako partiduan. Bi
taldeek elkarri presio handia
egin zioten, gogor heldu ere; fal-
ta eta txartel horien bilduma da
horren froga. Hutsa berdinke-
ta amaieran eta ezin asmatu izan-
naren frustrazioarekin joan ziren
aldageletara etxekoak eta bisita-
riak, aldiz, borrokatu behar izan
zuten puntu batekin. Bergarak
defentsan egin zuen lanik handi-
ena eta azkenean, joko ausarta
eta hobia aretxabaletarrena izan
bazen ere, bergararrena izan zen
erabakirik errentagarriena. Ber-
garak berriz ere frogatu du indar-
gunea zein duen eta UDA kontu-
ratu da azken momentuko ukitu
hori falta zaiola emaitzak esku-
ratzeko.



Aukera gehiago UDAk sortu zituen. | JOSETXO ARANTZABAL

HARITZ IGARTUA | UDAKO JOKALARIA

"Sortutako aukerekin, partidua irabaztea merezi genuen"

Nahi eta ezin ibili zarete, ezta?

Partidua irabaztea merezi genuen, sortu ditugun aukera guztiak ikusita, baina ez da posible izan. Argi dago partidua irabazteko baloia ate barruan sartu behar dela. Hala ere, aurkariak ere ez dut uste puntu hori merezi duenik.

Epailea ere ez duzue oso aldeko izan.

Akaso ez, baina epaileak ez du zerikusirik izan emaitzean. Guk golik ez sartu izana da akatsa.



J.B.

Une batzuetan joko urduria antzematen zitzazuen.

Ez dut uste. Baliteke kanpotik horrela ikustea, akaso, baina ez dut uste urduri egon garenik. Beharbada ez dugu ondo jakin izan joko lotzen.

Aukerak egon dira, sortu ditugu, hor ez dago zalantzarik. Beraz, gol faltan egon da hutsa, ez beste ezertan. Hala ere, esango nuke irabazteko moduko nahikoa ahal legin egin ditugula partiduan eta irabaztea merezi genuela.


AITOR ALONSO | BERGARAKO JOKALARIA

"UDAk gehiago, akaso, baina geuk ere irabazteko aukera geneukan"

Defentsan ahal legin handia egin duzuela ematen zuten.

Bagenekien UDAk oso talde ona zeukala eta lau zapabost jokalaria oso onak direla. Horietako batzuk hirugarren mailak jokatuak dira, gainera. Beraz, bagenekien zeren aurka jardungo genuen.

Gu presiorik gabe eta ondo jokatzeraz etorri gara. Buruan hori geneukan. Eustea eta aukerak sortu ahal izatea zen asmoa eta horretara joan gara. Aretxabaletak



J.B.

akaso gehiago, baina geuk ere irabazteko aukera geneukan.

Defentsan insistitu duzue?

Guk defentsan ondo ikusten dugu gure burua eta, hor ondo ibiliz gero, baliteke gero aukera bat edo bi lortzea. Halaxe izan da. Badakigu, defen-

tsan ondo jarduten badugu, aukerak sortuko direla. Beraz, horri eusten diogu. Azkenean 0-0 izan da emaitza eta puntu bat eskuratu dugu, eta puntu hori ona da, zalantza barik.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak eta Mondrak, garaipen bana kanpoan

GOIENA | ARRASATE

Bai Aloña Mendik bai Mondrak irabazi egin zituzten etxetik kanpo zituzten konpromisoak.

Andoni Azkargortaren Aloñako mutilek azken partiduetan erakutsi duten seriotasuna mantendu zuten zapatuan Trintxerperen kontra egindako partiduan. 90 minutuak partiduan oso sartuta eman zituzten. Gola egiteko hiruzpalau aukera izan zituzten, baina bigarren zatiko 17. minutuan iritsi zen markagailua irekiko zuen gola. Azkargorta pozik dago taldea erakustean ari den sendotasunarekin eta horrela jarraitzea espero du hurrengo jardunaldi-dietan ere.

Arrasatearrek 1-2 irabazi zitoten Lesakan Beti Gazteri, eta garaipen berezia lortu zuten, izan ere, Lutxo Iturriño entrenatzailearen iritziz, "orain arteko denboraldiko partidu onena" jokatu zuten, eta "talde osoa" ibili zen ondo. Gainera, 0-2 joan ziren irabazten, baina, azkeneko 10 minutuetan, etxekeok penal-tiz sartu zuten gola.

EMAKUMEEN EUSKAL LIGA

Aurkari zail baten kontra berdindu eta puntutxo bat lortu du Mondrak

San Juan taldearen kontrako norgehiagoka 0-0 bukatu zen Mojategin

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Maritxuk ez zuen miraria egin, ez eta askorik lagundu ere Mondrako neskei, izan ere, oraingoan ere ezin izan dute etxean irabazi. Atzo Iruñeko San Juan taldea izan zuten lehiakide Mojategin, eta golik gabe bukatu zen norgehiagoka.

Lehenengo zatian, San Juan izan zen nagusi. Arrasateko neskek ez zuten aukera garbirik izan. Bigarrenean, "ondoxeago" irten direla uste du Andoni Ezkurra entrenatzaileak; hala ere, izan zituzten aukera apurrak ez zituzten gauzatu ahal izan. Azkenean, puntu banaketa, beraz, Mojategin.

Gehiago lor izan zitekeen

"Pixka bat triste eta pixka bat pozik", horrela sentitzen zen bukaeran Andoni Ezkurra. Pozik dago, azkenean, puntu bat poltsikoratu dutelako, horrek duen balioarekin; eta triste, "gehiago egiteko aukera" izan zutelako bere neskek. Dena dela, ez zuten nolanhiko lehiakidea aurrez aurre: "Saillkapenean goialdean ibiliko den taldea da San Juan; gol gutxi jasotzen ditu eta oso



Baloirengatik lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

partidu estuak egiten ditu", baloratu du Andoni Ezkurra.

Kontuan hartu behar da, gainera, talde berria eta gaztea dela: "Baja asko izan ditugu, eta aurtengo taldea, poliki-poliki, badoa maila hartzen". Errodaje pixka bat egin artean pazientzia izan beharko dute zaleek, eta konfiantza ipini neskengan. Bi partidu galdu, bat berdindu eta bat irabazi dute oraingoz, eta 10. daude euren taldean.

Ezustea ematera

Garaipen gosez daude Mondrako neskek; aukeran, etxeko zaleei garaipena eta ikuskizuna eman gura diete.

Datorren zapatuan, Osasunaren aurka, Iruñera joango dira. "Partidu zaila izango da; Osasunaren filialak talde onak, gogorak izaten dira. Baina partidu guztiak desberdinak dira, eta gure asmoa ezustea ematea eta irabaztea da", esaten du entrenatzaileak.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Aretxabaletak adorea hartzeko garaipena lortu du (0-2)

Aretxabaletako gazteek garaipen garrantzitsua lortu zuten zapatuan, Tolosaren etxean 0-2 irabazita. Saillkapeneko beheko partean zeuden 4. jardunaldi amaieran, eta etxetik kanpo irabazteak adorea hartzeko balio izan die.

Datorren aste bukaeran, Lengokoak taldea etorriko da Aretxabaletara. Donostiarrak lehiakide gogorra izango dira, duda barik; momentu honetan, saillkapeneko goialdeko postuetan daude.

ERREG. PREFERENTEA

Antzuolak berdinketa bakarrik lortu zuen etxean

Antzuolak ezin izan zion Zumaiari irabazi, eta bana-ban berdinketarekin konformatu behar izan dira oraingo jardunaldian. Horrela, aurreko partiduetako bolada ona zertxobait okertu da. Bi garaipen eta berdinketa bat dute, eta bigarren dira euren taldeko saillkapenean, Amiak Baten atzetik.

Datorren aste bukaeran, domekan, Anaitasunaren zelaira joango dira, puntuak etxera ekarri nahian.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA
2 URTE1200 b/min
6 Kg

A+ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-865 E

299 €

BERMEA
2 URTE1200 b/min
6 Kg

A++ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-6012

340 €

BERMEA
2 URTE1200 b/min
7 Kg

A++ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-7212X

450 €

BERMEA
2 URTE1200 b/min
8 Kg

A++ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-8212

430 €

BERMEA
2 URTE

A++ Saillkapen energetikoa

ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13


399 €

BERMEA
2 URTE

8 Kg

KONDENSAZIOZKO
LEHORGAILUA SF 820CE

399 €

BERMEA
2 URTELAPIKOAK
OPARI

INDUKZIO PLAKA IF-33BS


430 €

BERMEA
2 URTEBARBAKOA
OPARI

A++ Saillkapen energetikoa

LABEA 6H-760AX

450 €

BERMEA
2 URTEINDUKZIO PLAKA
HK-633220XB

450 €

LABEA
BP-3313091M

475 €

BERMEA
2 URTE1860
x
600
x
600

*NO FROST

A+ Saillkapen energetikoa

HOZKAILUA FTC-682

475 €



Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Natra Oñati taldea zapatuan, partidua hasi baino minutu batzuk lehenago. | NATRA OÑATI

EUSKAL KOPA

Emaitzek erakutsi ez arren, ondo defendatu da Natra

- ▶ Aurtenetxeren kontra irabazten joan ziren ia partidu osoan zehar
- ▶ Epaileen erabakiek min handia egin zioten taldeari zapatukoan

MIREN ARREGI | OÑATI

Ez du zapore ona ekarri Natra Oñatik asteburuan Bilbon jokatu duen Euskal Kopatik. Txapelketako beste hiru taldeak LEB mailako -goragoko maila- taldeak izanik, bazekiten irabaztea zaila zela, baina lortutako emaitzek ez dute txapelketan egindako lana islatu eta pena horrekin bueltatu dira etxera.

Zapatuan Aurtenetxeren kontra jokatu zuen Natrak finalerdia eta 67-50 galdu zuen. Talde horren kontra duela bi aste irabazi egin zuten oñatiarrek baina, orduetik hona bi fitxaketa on egin ditu

taldeak eta hori asko igarri zen.

Bigarren laurdenean irabazten

Ondo hasi zuten partidua oñatiarrek, bigarren laurdenean aurkariari hamalau puntuko aldea ateratzera heltzeraino. Baina, epaileak kiroltasunik gabeko hiru falta adierazi zituen euren kontra eta hor hasi zen gainbehera. "Horrek min handia egin zion taldeari eta ondorioz, atsedenera orduko, hamalau puntuko aldea zortzi puntukoa zen dagoeneko" dio Eneko Blanco entrenatzaile oñatiarrek.

Epaileekin desadostasunak

Hirugarren laurdenean ere goitik bukatzea lortu zuten baina ordurako taldea desadostasun eta gorabehera handiak ari zen izaten epaileekin. "Ezin dut esan epaileen lana justua izan balitz irabaziko genukeenik, aurkari oso gogorra baikenuen aurrean eta bukaerarako gu gainbehera eta eurak gora zetozen, baina badakit erabaki batzuek eragin

handia izan zutela gure lanean". zioen Blancok. Hala, azkenean, 67-50 galdu zuten oñatiarrek.

Zapatuko porrotaren ostean hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten atzo. Azpeitiko Iraurgiren kontra 89-58 galdu zuten. "Zapatukoak oso zapore txarra utzi zigun eta atzo ezin izan genion horri bueltarik eman", zioen Blancok. Pena bat, taldeak orokorrean itxura polita erakutsi baitzuen.

ENEKO BLANCO | ENTRENATZAILEA

"Taldea gogor dago eta ni gogotsu"

Denboraldiaurrean murgilduta, denboraldiari ekiteko gogotsu da Eneko Blanco Natrako entrenatzaile berria.

Nola aurreikusten duzu denboraldia?

Taldea gogor dago eta helburua da etxeko partiduak irabaztea eta kanpoan ere garaipen bat edo beste eskuratzea. Nik uste dut gai garela horretarako. Jokalari berriak ere baditugu eta bikain



ARATZ LOSADA

egokitu dira taldera, beraz, gauzak nahiko ondo ikusten ditut.

Eta zuk zeuk, nola ikusten duzu zure burua?

Nik ez daukat esperientziarik kategorian honetan eta errespetu pixka bat ematen dit. Baina denboraldiaurrean balio izan dit jokalarien konfiantza eskuratzeko, eta ilusio handiz hasien dut urtea.



Artxiboko irudian, Natra Oñatiren partidu bat. | GOIENA

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatzako neskek hirugarren postuan, puntu bakarrarekin

Soilik hiru puntugatik galdu zuten Eskoriatzako neskek Easo Alde Zaharra taldearen kontra. Atzo jokatu zuten partidua, etxean bertan, baina zaleen animoek ere ezin izan zuten lortu markagailuan eskoriatzarrak gailentzerik. Hurrengo jardunaldian Take-Aralar Kirolak taldean kontra jokatu dute eskoriatzarrek, Tolosan.

SENIOR GIZONEZKOAK

Hirugarren jardunaldia jokatu, hiru puntu ditu Soraluze BKE-k

44-71 galdu zuen zapatuan Soraluze Bergara KE taldeak Donostiako Santo Tomas Lizeoaren kontra. Bergarako Labegarietan jokatu partiduaren ondoren, talde donostiarra lehenengo postuan da, sei punturekin; Bergarako taldeak, berriz, hirugarren jardunaldia jokatu hiru puntu ditu, kategorian bereko beste lau taldek bezala.

SENIOR GIZONEZKOAK

Gutxigatik baina ezin MUK Goierri Verkol mendean hartu

Mondragon Unibertsitateak gutxigatik ezin izan zuen Goierri Verkol talde aurkaria mendean hartu. Zapatuan jokatu zuten partiduan Urretxukoek lau puntuko aldea atera zioten talde arrasatearri. Bukaeran, 58-54 zen emaitza. MUK urriaren 21ean jokatu du laugarren jardunaldiari dagokion partidua, Allerru SBTren kontra.

SENIOR BIGARREN MAILA

Aloña Mendik ere ezin irabazi, saskiratze askoko partiduan

Aloña Mendik Eibarren jokatu zuen zapatuan Ruibal Alquier de Vehiculos taldearen kontra. Partiduan saskiratze asko egin zituzten bai batak zein besteak, baina azkenean, eibartarrak gehiago izan ziren. 86-81 bukatu zen partidua. Hurrengo lehia Viento Sur taldearen kontra izango du Aloña Mendik Oñatin. Urriaren 20an izango da hori.

SENIOR HIRUGARRENA

MUren bigarren taldeak garaipena lortu zuen etxetik kanpo

Mondragon Unibertsitatea B taldeak irabazi egin zuen atzo C.D. Internacional taldearen kontra. Kanpoan jokatu zuten arrasatearrek eta, hala ere, arerioak baino gehiago izan ziren. 49-62 bukatu zuten partidua. Hurrengo jardunaldian Mutrikuren kontra egingo dute, Arrasaten bertan. Musakolako kiroldegian da hitzordua.

ERRUGBIA

Irunek nazional mailako jokalaririk ekarrita, ART beste behin esku hutsik

Hurrengo Getxoren aurkako partiduan gauza bera gertatzeko arriskua dago



Arrasate Errugbi taldeko mutirik domeka eguerdian Irun B taldearen kontra jokatuak partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Igor Isasiren mutirik garaipenik lortu barik jarraitzen dute. Denboraldiko bigarren partidua zuten atzo Mojategin Irun B taldearen kontra, baina 19-62 galdu zuten.

Dena dela, ezin esan Arrasateko mutirik partidu txarra egin zutenik; hori baino gehiago izan zen irundarrak beste maila bat erakutsi zutela. "Irunek senior mailan bi talde ditu eta maila goreneko, nazionaleko, fitxa duten jokalaririk ekarri ditu. Beste maila batean daude eta hori igarri egin da gaurko partiduan", azaldu zuten entrenatzaileak partidu amaieran. Aurrean nahiko parekatuta ibili ziren arren, esan behar da irundarrek hiru laurdenetan beste maila bat erakutsi zutela, pase eta jokaldi hobeak egin.

Lehenengo zatian txukun

Lehenengo zatia 3-17 amaitu zen, baina arrasatearrek markagailuari eustea lortu zuten. Bigarren zatian hasi ziren arazoak; irundarren entseguak bata bestearen atzetik etorri ziren eta markagailuan alde nabarmena lortu zuten. Dena dela, azken minutuetan Isasiren mutirik indarra hartu zuten eta bi entsegu egitea lortu zuten.

Hurrengo partidua Getxo B taldearen kontra izango da eta Isasiren beldurra da beste behin ere nazional mailako jokalaririk aurkitzea zelaian; Getxok ere bi talde ditu. Lehenengo jardunaldian ere gauza bera gertatu zitzaizen Uribealde B-rekin.

ESKUBALOIA

Zorte txarrari joko ona erakutsita, irabazi egin zuen Ford Mugarrik

Denboraldian sartzen hasi dira Arrasatekoak, Corazonistasi 26-19 irabazita

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Senior mailako bi taldeek nor-gehiagokak irabazi zituzten aste bukaeran, baina ez zituzten partidu errazak izan.

Ford Mugarrik etxean jokatu zuen Gasteizko Corazonistas taldearen aurka, eta, aurreikusten zen bezala, oldarkor etorri ziren, Arrasateko talde indartsua gainditzeko itxaropenarekin. Hasierako 10 minutuetan, bazirudien itxaropenak egia bihurtuko zirela, izan ere, oso motel hasi ziren Arrasatekoak, bai erasoan, bai defentsan. Lau penalti adierazi ziren epaileak, eta lauretatik bakarra sartu zuten arrasatearrek.

Motelaldi horri buelta eman zion, baina, Ford Mugarrik, defentsa doitu eta erasoan gola egiten asmatuz. Hala, lehenengo zatia 12-9 emaitzarekin bukatu zen.

Isasmendik min hartu zuen

Bigarren zatia lasaiagoa izan zen. Hasierako bost minutuetan, elkar neurtu zuten berriz bi taldeek. Batez ere bigarren zatiko 15. minututik aurrera etorri zen benetako lasaitasuna Ford Mugarrirendako, abantaila handituz. Azkenean, 26-19 etxekoendako.



Kepa Isasmendi, erasoaldi baten. | JOSETXO ARANTZABAL

Ane Herrero entrenatzaileak "ondo" ikusten du taldea, "gogoarekin eta lan egiteko gertu". Denboraldi hasieran, "zorte txarra" izan dutela diosku. Domekan, Kepa Isasmendik min hartu zuen eta Josu Herrero ere arazoekin dabil.

Datorren astean, Bilboko Escorialpios taldea izango dute aurre.

Soraluce BKE ere, ondo

Soraluce BKEk 23-24 irabazi zion Trapagarani, oso partidu gorabeheratsuan. Berdinduta joan ziren atsedendira. Bigarren zatian, 17-21 ipini ziren bergararrak, baina berdintzea lortu zuten etxekoek. Azken erasoan, Soralucek gola egin zuen. 20 segundo falta zirela, Trapagaranez ez zuen erasoan asmatu.

FUTBOLA

Mondrak 2001 eta 2004 artean jaiotako umeen gurasoak deitzen ditu Futbol Eskolako batzarrera

Mondraren Futbol Eskola aurkeztuko dute gaur, astelehena, Mojategin, 17:00etan. Klubeko arduradunek dei egiten diete interesa duten gurasoei batzarrera joan daitezela. Hain zuzen, 2001., 2002., 2003. eta 2004. urteetan jaiotako neska-mutikoei eman dezakete aurten izena. Batzarrean, 2012/13 denboraldirako asmoak azalduko dizkiete gurasoei.

MENDIA

Leongo San Isidroko mendietara irteera antolatu dute Pol-Polek eta Gorla Alpinok egubakoitzerako

Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok Leonera mendi irteera antolatu dute. San Isidro inguruko mendietara joango dira. Autobusa urriaren 12an, egubakoitzean, 05:00etan irtengo da Udal Pilotaleku aurretik. Bidaiarako txartelak Pol-Poleko bulegoan eskura daitezke. Pol-Polek adierazi duenez, "irteerak ez du aparteko zailtasunik".

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati krosa egiteko izenemate epea zabalik dago, eta Interneten ere egin daiteke hori

Urriaren 13an egingo duten Arrasate-Oñati lasterketan izena emateko epea zabalik dago, eta Interneteko webgune honetan egin daiteke: www.kirolprobak.com. Lasterketa 17:00etan hasiko dute, baina patin gainean egingo dutenak bost minutu lehenago irtengo dira. Gainera, Oñatitik Arrasatera joateko autobusa jarriko dute Antxintxika atletismo taldeko antolatzaileek.

ATLETISMOA

Azaroaren 1era arte eman daiteke izena Olatz Rementeria Memorial krosean

Zabalik dago Euskal Herriko IV. Errepide Gaineko Txapelketa-Olatz Rementeria Memorial krosean izena emateko epea, Antxintxika triatloi taldeak antolatuta. Azaroaren 3an jokatu da proba, eta izenemate epea zabalik dago azaroaren 1era arte, www.kirolprobak.com webgunean. Ohi bezala, Soraluzetik Bergarara doa ibilbidea, eta 10 kilometro hartzen ditu.

PIRAGUISMOA

Sekula lortu gabeko bigarren postua eskuratu zuen Beti-Bustik

Osintxun egindako saioarekin hasi dute denboraldia Gipuzkoako piraguistek

ARRITXU BARRUSO | BERGARA
Denboraldi hasiera "historikoa" egin du Beti-Bustik, elkarteko *Kuxi*-ren esanetan: "Santiagotarrak bezalako talde indartsuari aurrea hartu diogu eta lehenengo aldiz talde moduan bigarren postua eskuratu dugu".

Bergararrek lan bikaina egin zuten infantilen K-1 kategorian. Ordezkarri gehien zituzten bertan eta podiumeko lehengo bi postuak

eskuratzea lortu zuten. Lehenengo Mikel Zubizarretarentzat izan zen, eta bigarrena, Unai Otaduirentzat. Neskak ere fin ibili ziren eta Leire Ugaldek, esaterako, bigarren amaitu zuen infantilen K-1 kategorian.

Osintxu piraguaz beteta
2012/13 denboraldiari hasiera eman zitzaion zapatuan Osintxun egindako txapelketarekin. Dena

dela, hori ez zen izan lehiaketaren helburu bakarra. Osintxu girotu eta zerbait ezberdina egitea nahi izan zen: "Osintxuarrek egin dute hau guztia posible eta pozik gaude horregatik", adierazi zigun *Kuxi*-k. Eta baita lortu ere. Piraguek, piraguistek eta horien lagun eta familiarrek Osintxu bete egin zuten eta eguerdian, sari banaketan, herriko plazan giro ederra sortu zen.



Neska-mutikoak lehiaketa hasteko zain. | JOSETXO ARANTZABAL



Beti-Busti taldeko piraguista. | JOSETXO ARANTZABAL



MIKEL ETA IKER
BETI-BUSTI

"C2 kategorian lehiatu gara eta pozik gaude egindako lanarekin. Irabazi egin dugu, kategoria horretan bakarrik ginen (barre). Ez zegoen korronte handiegia eta erraza izan da. Bergaran Labegarieta inguruan entrenatzen dugu".



MIREN
BETI-BUSTI

"Ondo joan da, baina amaieran arazo txiki batzuk izan ditut eta ezin izan dut lehenengo txandan parte hartu. Duela urte eta erdi hasi nintzen piraguismoa egiten eta oso pozik nago; itsasoa baino nahiago dut erreka".



ENEKO AUZMENDI
C.A. SAN SEBASTIAN

"Ez nuen Osintxu ingurua ezagutzen. Bergaran egonda nago eta nahiago dut Bergara, ibai mugituagoa delako. Dena dela, oso ondo egon da goiza. Infantil kategoriako bigarren mailan jardun dut eta irabazi egin dut".

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Berio-Zarautz	2-0
Hondarribia-Urola	1-0
Lagun Onak-Real Union	0-1
Ostadar-Tolosa	0-1
Aurrera-Hernani	1-3
Aretxabaleta-Bergara	0-0
Trintxerpe-Aloña Mendi	0-1
Diartzun-Touring	2-1
Beti Gazte-Mondra	1-2

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	12	4
2 Hondarribia	9	4
3 Tolosa	9	4
4 Diartzun	9	4
5 Aretxabaleta	8	4
6 Berio	7	4
7 Bergara	7	4
8 Touring	6	4
9 Zarautz	6	4
10 Real Union	5	4
11 Aloña Mendi	5	4
12 Beti Gazte	4	4
13 Trintxerpe	4	4
14 Ostadar	4	4
15 Aurrera	3	4
16 Mondra	3	4
17 Urola	1	4
18 Lagun Onak	0	4

HURRENGO JARDUNALDIA

Bergara-Trintxerpe
Zarautz-Mondra
Hernani-Aretxabaleta
Berio-Hondarribia
Urola-Lagun Onak
Tolosa-Aurrera
Real Union-Ostadar
Touring-Beti Gazte
Aloña Mendi-Diartzun

EUSKAL LIGA, EMAKUMEAK, 2. MAILA

Mondra-San Juan	0-0
-----------------	-----

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Tolosa-Aretxabaleta	0-2
---------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Zumaiako	1-1
-------------------	-----

1. ERREGIONALA

Aretxabaleta B-Soraluze B	1-0
Ikasberri B-Arizmendi	1-0
Bergara B-Urki	1-6

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Orioko	2-1
Aloña Mendi-Mondra	3-0

GAZTEEN 1. MAILA

Bergara B-Soraluze	6-3
Aretxabaleta B-Eibartarrak	5-1
Eibartarrak B-Arizmendi	4-1

OHOREZKO KADETEAK

Aurrera-Aloña Mendi	7-0
Arrasate-Amaiak Bat	1-3
Tolosa-Aretxabaleta	1-0

GAZTE EMAKUMEAK

Anaitasuna-Bergara	4-3
--------------------	-----

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Bergara-Lagun Onak	0-1
Ikasberri-Arizmendi	2-1
Aloña Mendi-Beasain	0-4

ESKUBALOIA

SENIOR GIZONEZKOAK

Ford Mugarri-Corazonistas	26-19
---------------------------	-------

Trapagaran-Soraluze BKE	24-25
-------------------------	-------

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

Arrasate-Tolosa	25-28
-----------------	-------

Bergara-Amenabar B	23-23
--------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK

Usurbil-Bergara	39-14
-----------------	-------

GIZONEZKO KADETEAK

Arrasate-Amenabar B	24-22
---------------------	-------

Karibe Zaharra-Soraluze BKE	41-25
-----------------------------	-------

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Arrasate-Irun B	19-62
-----------------	-------

SASKIBALOIA

EBA MAILA, EUSKAL KOPA

Aurtenetxe-Natra Oñati	67-50
------------------------	-------

Iraurgi-Natra Oñati	89-58
---------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Easo Alde Zaharra	55-58
------------------------------	-------

SENIOR GIZONEZKOAK

Goierri Verkol-Mondr.Uniberts.A	58-54
---------------------------------	-------

Soraluze Bergara-Sto. Tomas Liz.	44-71
----------------------------------	-------

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

Ruibil Alq. Vehic.-Aloña Mendi	86-81
--------------------------------	-------

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

C.D.Internacional-Mondr.Unib.B	49-62
--------------------------------	-------

KADETE GIZONAK, ERRENDIM.

Soraluze BKE-Take Tovar	60-48
-------------------------	-------

Aloña Mendi-Easo	57-52
------------------	-------

Mondr.Unib.A-Cafes Aitona	44-95
---------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eraso Alara-Eskoriatza	6-4
------------------------	-----

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
22:03, 23:56



goiena

KIROLA

Rafa Mungia | Basqueteam taldeko komunikazio arduraduna

"Elite mailako kirolariei zerbitzu integrala eskaintzea da Basqueteam taldearen helburua"

- ▶ Rafa Mungia arrasatearra 2008tik dabil Basqueteam-en lanean, marka sortu zutenetik
- ▶ Urte hauetan gertutik jarraitu ditu eliteko kirolarien lorpenak, eta baita atsekabeak ere

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Lanean harrapatu dugu Rafa Mungia (Arrasate, 1975), Naturgas BBK Nuptse 2012 espedizioa kideek mendian egin dituzten azken hiru egunetako irudiak jasotzeko zain dago. Irudiok jasotzeaz batera ikusgai jarriko ditu, eta komunikabide eta sare sozialen bitartez mundu osora hedatuko dira seguitan –Ikustekoa izan zen iazko Transartirikako espedizioak izan zuen oihartzuna. Duela lau urtetik hona horretaz arduratzen da Arrasatekoa, besteak beste, Basqueteam barruan dauden kirolarien lorpenak ahalik eta gehien edatzeaz, proiektuak aurkezteaz, kirolarien ondoan egoteaz...

Ohitu gara elite mailako kirolariak Basqueteam markaz ikustera. Baina, zehazki, zer da Basqueteam?

Basqueteam Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 2008an, Euskal Herri mailako eliteko kirolariei laguntzeko asmoaz. Basqueteam-en babesa lortzen duten kirolariei zerbitzu integrala eskaintzen diegu: laguntza ekonomikoa, teknikoa, mediku zerbitzua, formazioa... Hala, Basqueteam-en finantziazioaren %75a Eusko Jaurlaritzatik dator, eta %25 enpresa pribatutik; eta azken horren portzentajea handitzeko ari gara lanean.

Basqueteam-en babesa lortzea ez da erraza.

Ez, baldintza zorrotzak bete behar dira, eta hala behar du, gainera, elitera zuzenduta daudelako. Bartzelonako Joko Olimpikoetarako Fernando Sanchez Bañuelosek kirolariak baloratzeko sistema bat sortu zuen, eta gaur egun horretan oinarritzen dira ADO bekak. Eta, Euskal Herri mailarako ere sistema propioa egin zuen Sanchez Bañuelosek. Horretan oinarritzen gara bekak banatzerako orduan, erabaki subjektiboak egin ez daitezten.



Rafa Mungia arrasatearra, prentsaurre bateko irudian. | BASQUETEAM

Kirolari olinpikoekin egiten duzulan handia, baina ez eurekin bakarrik.

Bai, badira kirol jarduera batzuk interesgarriak iruditzen zaizkigunak eta Basqueteam-ek hor egon behar duela uste dugunak. Esaterako, Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltzak proiektu interesgarri bat aurkeztu zuten duela urte batzuk, eta hasieran gure laguntza izan zuten. Orain, berriz, bitartekari lana baino ez dugu egiten eurekin, enpresa pribatutik jasotzen dutelako laguntza guztia.

Kirolariak eskertuko dute laguntza hori.

Bai, eta beste lurralde batzuetako kirolariarekin elkartzen direnean, kontzentrazio edo txapelketetan,

"Kirolariak oso esker onekoak dira, emandako laguntza eskertzen digute"

"Basqueteam-eko babesa lortzea ez da erraza, neurriak zorrotzak dira"

konturatzen dira besteak baino hobeto daudela. Adibide moduan, aurrekoan Aritz Aranburuk kolpe galanta hartu zuen olatu batekin, txapelketa baten atarian. Erradiografia lehenbailehen egitea ezinbestekoa zen, eta hurrengo egunerako txanda zeukan. Ekonomikoki laguntzea eskertzen dute, baina badira beste zerbitzu batzuk ere izugarri eskertzen dituztenak. Esaterako, beste lurralde batzuetan elite mailako kirolaria erretiratzen denean aparteko laguntzak izaten ditu, ondo gizarteratu dadin. Espainia mailan arlo hori oso txarto dago, eta Basqueteam-en garrantzia ematen diegu kirolaria formatzeari; ikasteko erraztasunak ematen dizkiegu unibertsitate-

kin ditugun hitzarmenen bitartez... Lehen aipatu dugun zerbitzu integralaren barruan egongo litzateke hori ere.

Urte hauetan bizi izanduzun momentu gogoangarri bat?

Hainbat egon dira. Kirolari batek helburua betetzen duenean lorpen hori gure ere sentitzen dugu. Esaterako, Maider Undarekin daukagun harremana oso ona da. Haren ondoan egon gara momentu onak bizi izan dituean, baina baita, esaterako, belauna hautsi zuenean. Eta, brontzezko domina irabazi zuenean izugarri poztu ginen, eta baita Maialen Chorraturen dominarekin ere. Bestalde, Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza Hego Polara iritsi zireneko uneak ere oso bereziak izan ziren, oso espedizio potentea izan zen...

Gogorak ere egongo dira.

Kirolari batek beka berritzeko aukera galtzen duenean... Edo lau urteko lana minutu batean bertan behera geratzen denean. Oihana Blanco karatekak urte ederrak egin zituen Jokoak prestatzen, eta hitzordua iristerakoan zozketan txapelkunaren kontra [Tomoko Fukumi] tokatu zitzaion; minutu bateko borroka-saioan kanpoan geratu zen.

Zein da orain Basqueteam taldearen erronka?

Esaterako, Rioko Joko Olimpikoetarako prestatzen hasi behar dugu. Eta etorkizunera begira erronka handia dugu. Londresean, proportzionalki, beste lurralde batzuek baino kirolari gehiago eraman ditugu (24), gauzak ondo egiten ari diren seinale. Baina duela 10 urte jaiotze-tasan beherakada handia izan zen gurean, eta 2020ko Jokoetan igarri egingo dugu hori. Hala, ustezko beherakada hori sahiesten ahalegindu beharko gara eta orain arte moduan, apustuak egiten jarraitu beharko dugu.



Rafa Mungia Maider Undarekin, Londrestik bueltan. | BASQUETEAM



Vallejo, Zabaltza eta Iñurrategirekin. | BASQUETEAM



Belako txapelkun Iker Martínez eta Xabi Fernándezekin. | BASQUETEAM



Haurra mukiak zintzilik. | MAROONED

Mukiak gure aliatuak dira, ez hartu etsai moduan

Jesus Martinez pediatria madrildarrak mukien aldeko aldarria egiten du

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Idatziak gure atentzioa deitu du eta *Guraso.com* atarira ekarri dugu. Martinezen esanetan sarri kezkatzen gara mukiak direla-eta. Udazken sasoi honetan gehienbat ugaritu egiten dira ume *mukizuak*. Normala dela dio. Hasi da ikasturtea, eta haur asko toki itxi batean pilatzeak bakteriak ugaritzea dakar nahitaz. Pediatrak, baina, mukiak desagerrarazteko dugun joeraz egiten du berba

bere artikuluan. "Mukiak gure aliatuak dira, ez etsaiak", dio. "Sudurra gure arnas-aparaturako sarrera naturala da, eta mukiak bakterio gaiztoak bide horretatik ez igarotzeko zainzaileak. Tapoi naturala dira", azaltzen du.

Martinezek onartzen du ez direla estetikoki politak, baina bere funtzioa betetzen dutela gogorarazten du. "Estatu Batuetan bakarrik okurrizten zaie horrelako ikerketak egitea, baina

laster batean zabaldu da emaitza bat argitzen duena nola hobe den zenbait gaixotasun infekziosoren prebentziorako mukiak jatea kentzea baino".

Martinezek bere blogean argitaratu du idatzia, eta erantzun ugari jaso ditu. Batzuk arrazoia ematen, beste batzuk kritikitzen. "Helduok mukiak kentzen baditugu, haurrei utzi egin behar dizkiegu?", erantzuten dio *guraso.com* batek.

Europar Batasuna dirurik gabe Erasmus finantzatzeko

L.Z. | ARRASATE

Badirudi 2012rako Europako estatuak eta Europako Batzordeak aurrekontuetan eginiko murrizketek ondorioak izango dituztela Erasmus programan ere. Alain Lamassouere Frantziako eurodiputatuak emandako datuen arabera, litekeena da Espainiako Estatuak 900 milioi euro gutxiago jasotzea Erasmus eta bestelako programa batzuetarako. Europako Batzordeak ez ditu datu horiek ziurtatu; datu gehiago EB-ko zuzendaritzak urriaren 23an egingo duen bilera ezagutuko ditugu.

Likidezia arazoak

Argiako albistea ekarri dugu *Guraso.com* atarira. Likidezia arazoak daude tarteko. "Urtarrila eta iraila bitarteko lagun-

tzen zatirik handiena ordainduta dago; aldiz, irailetik urte amaiera bitarteko %70a dago finantzatuta".

Adierazpenak EHUtik

Euskal Herriko Unibertsitateak adierazi du 2012-13 ikasturtean proiektua normaltasun osoz garatzen ari dela, eta lehenengo zein bigarren lau hilabete korako aski funts daukala. "EHU-k ia 1.000 ikasle izango ditu 2012-13 ikasturtean Erasmus programan parte hartzen. Horietako gehienak dagoeneko Europako unibertsitateetan daude ikasten (...), eta gainontzekoak Gabonak eta gero joango dira. Ikasturtean Erasmus programan parte hartuko duen ikasle bakoitzari 110 euro ordainduko zaizkio hileroko Europar Batasunetik etorritako funtsetatik".



Unibertsitateko ikasleak. | UPNA

Eskola-jantokien gaineko dekretu berri baten aldeko agiria plazaratu dute hainbat eragilek

L.Z. | ARRASATE

Martxan da ekoizpen eta kontsumo arduratsua kontuan hartuko dituen eskola-jantokien dekretu berri baten aldeko lantaldea. Hezkuntza, nekazaritza eta lankidetzaren arloko eragile ezberdinek hartzen du parte lantalde horretan. Eskola-jantokien gaineko dekretu berri baten aldeko agiria plazaratu dute, eta sinadurak bertako kanpaina zabaldu dute.

Eskaerak

Agiri horretan indarrean dagoen kudeaketa-eredu bakarra salatzen dute: "Kudeaketa-eredu bakar, baztertzaila eta erabat zentralizatzaileak eragin baitu eskola-jantoki publikoen kudeaketa negozio huts bihurtzea, enpresa pribatuaren irabaziak handitzeko", irakur daiteke. Helburua da "ekoizpen eta kontsumo arduratsurako irizpideak

lantzen dituzten eskola-jantokien proiektuak laguntzea", eta adituz ematen dute hurrengo legegintzaldian legekoa ez den proiektu proposamena aurkeztuko dutela, eskola-jantokien inguruan indarrean den dekretua aldatzeko. "Gure asmoa da, tokian-tokiko kudeaketa zuzena egin nahi duten eskolek horretarako aukera izatea, eredu arduratsua, iraunkorra eta konprometitua hobetsiz", azaltzen dute.

Baserritik.com

Gaiarekin lotuta beste albiste bat aurki daiteke *Guraso.com* atarian: *Baserritik.com* Zarauzko Haurtzaroko haurtzaindegiarekin hasi da lanean. Elkarlana haurrek zentroan jaten dutenarekin kezkatuta dagoen *guraso.com* talde baten ekimenez lortu da.

Seme-alaben arteko armonia lantzeko pista batzuk

L.Z. | ARRASATE

Sarri *guraso.com* gainezka egiten dugu seme-alaben arteko liskarrak, ika-mikak, haserrealdiak eta eztabaidak direla-eta. Jeloskortasuna egon ohi da nagusiki liskar horien atzean. Egoera horiek zelan arindu azaltzeko Gloria Pastorrek idatzitako artikulua ekarri dugu asteon *Guraso.com* atarira.

Konparaziorik ez

Saihestu seme-alaben artean konparazioak egitea. Haur bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta *guraso.com* bakoitzaren gaitasunak ikusten eta potentziazten jakin behar dugu. Etiketak ipintzeko joera ere oso zabalduta dago; "argia", "motela", "arduratsua", "lotsatia"... Garrantzitsua da baita ere haurrak entzutea; umeek kexak izaten dituzte, eta

kontuan hartuak direla sentitu behar dute. Oso garrantzitsua da familian eroso aurkitzea sentitzen duten horren berri lasai emateko.

Zenbait adituk haur bakoitzari bakarkako denbora eskaintzeko gomendioa ere egiten dute. Astean 10-20 minutu aipatzen dituzte. Denbora horrek asko lasaitzen ditu umeak, eta jeloskortasuna baretzen laguntzen du. Kontuz egin beharreko kontua da, izan ere beste umea ezin da baztertua sentitu. Familia 'klan' bat da, eta eredu izan behar dugu; familiak bat eginda egon behar du beti.

Ez egin epaile lanak

Eztabaida pizten denean saihestu epailearen rola. Umeei euren arteko liskarrak konpontzen erakutsi behar diegu, eta asko-

tan epaile lanak egiten ditugu. Bestalde, txalotu egin behar ditugu ondo ari direnean. Hau da, modu baketsuan elkarrekin-tzan ari direnean.

Familian gozatu

Familiarendako denbora topatzen ere ahalegindu behar dugu. Kirola, txangoa, eskulanen bat... familian egiteak garrantzitsua da haurrendako baita *guraso.com* dako ere. Zer egin erabakitzeak aukera ematen badiegu, berriz, asko gozatuko dute.

Hitzegin haurrekin hitzak beharrezkoak dira-eta zer sentitzen dugun adierazteko. Adierazi daitezela, haur biak, sortu den liskararen inguruan. Lagungarria izango da eztabaida berdina bigarrenez ez pizteko, eta ikasteko arazoak berba eginez konpon daitezkeela.



KULTURA

Organo zikloaren lehen kontzertuak zutik ipini zuen Santa Marina parrokia

- ▶ Ana Belen Gartzia organo jotzaileak eta Andra Mari abesbatzak batera jardun zuten
- ▶ San Pedrokoarekin alderatu ezin arren, Santa Marinako organoak soinu dotorea erakutsi zuen

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Abian da organo erromantikoa nazioarteko XIII. zikloa. Hain justu ere, zapatuan abiatu zen, Azkoitian eta Bergaran egindako kontzertuekin.

San Pedro parrokia eraberritzen dabilzala-eta, bigarren urtez Santa Marinan egingo dira Bergarako kontzertuak. San Pedroko organoa Gipuzkoako 30 garrantzitsuen artean dago, beraz ezin da Santa Marinakoarekin alderatu, baina azken hau organo ziklorako propio garbitu eta eraberritu egin zuten pasa den urtean, eta soinu ederra eta dotorea eskaintzeko gai dela erakutsi du aurtengo ere; are gehiago, organo-jotzailea Ana Belen Gartzia kategoria berea bada.

Erregistro guztiak agerian

Andoainen jaioa, Gartzia Donostiako Andra Maria basilikako organista titularra da eta bere maisutasuna agerian gelditu zen zapatuko emanaldian. Santa Marinako organoari etekina ateratzen jakin zuen; izan ditzakeen erregistro guztiak atera zizkion organoari, bereziki, Jesus Guridiren *Final* piezan –bakarririk eta abesbatzaren laguntza barik eskainitako abesti bakarra–. Ikusleek ondo baino hobeto baloratu zuten andoaindarraren meritua. Txalo zaparrada benetan luzea jaso zuen abestiaren amaieran.



Ana Belen Gartzia organo jotzailea Santa Marinan, zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Andra Mari abesbatzarekin

Organo jotzaileak instrumentu polita izan zuen aldamenean: Andra Mari abesbatza. Europan barrena hainbat bira egin dituzte eta 18 disko grabatu. Abesbatza sendoa eta oso orekatua dela erakutsi zuten Santa Marinan.

Emakumeek protagonismo berezia izan zuten erreperitorioan. Felix Mendelssohnen *Veni Domine* bereziki polita izan zen eta

DATUA

13

KONTZERTU

Zikloaren barruan Azkoitia, Azeitia eta Bergaran emango diren kontzertuak.

baita Jesus Guridiren *Ave Maria* ere, ahots zuriek soilik abestutakoa. Francisco Escuderoren *Misa* ere ikusgarria izan zen, abesbatzaren oreka erakutsiz.

Santa Marina zutik

Kontzertuaren amaiera borobila eta hunkigarria izan zen. Erreperitorioik kanpora Haendelen *Aleluia* abestia eskaini zuten, entzuleen gozamenerako; eta horiek, baita

eskertu ere. Santa Marinan batutakoak zutik, abesbatzari begira eta txalo zaparrada luzearekin amaitu zen emanaldia.

Hurrengo kontzertua urriaren 20an izango da, Mario Duellaren eskutik.

EMANALDIEN EGUTEGIA

URRIAK 13

20:00 Sopranoa: Ana Salaberria

Mezsoa: Ainhoa Zubillaga

Organoa: Ana Belen Gartzia

URRIAK 20

20:00 Organoa: Mario Duella

URRIAK 27

11:00 Bergarako eta Azeitiko J. Barrenetxea musika eskoletako organo ikasleak

20:00 Aritzeta abesbatza

Etxarri Aranatz abesbatza

Organoa: Aitor Olea



Organo jotzaileak Andra Mari abesbatzaren laguntza izan zuen zapatuko kontzertuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Kontzertu magikoa eskaini zuten Bidaurretan De Azpiazuren omenez

Jose de Azpiazuren konposizioak interpretatu zituzten, Ugartek, Azpiazuk eta haren alabak

MIREN ARREGI | OÑATI

Jose de Azpiazu musikari oñatiarraren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzen da aurten, eta horrek bide eman du urtean zehar haren omenezko kontzertu eta bestelakoak egiteko. Horietako baten testigu izan zen joan den egubakoitzean Oñatiko Bidaurretako monasterioa; Xabier

Ugarte gitarra jotzaileak eta Amaia Azpiazu abeslariak ohorezko gonbidatu bat izan zuten lagun: Jose de Azpiazu zenaren alaba bera.

Lupe de Azpiazuk Ginebran pasatu ditu bere bizitzako urte gehienak, baina ez du ahaztu bere jatorria. Oñatira egin duen bisitaxoa aprobetxatu dute, haren

Jose de Azpiazuren konposizioekin kontzertu bat egiteko.

Askotarikoa eta magiaz betea

Jose de Azpiazuk gitarra arloan eremu askotan lan egin zuen; besteak beste, kantu eta gitarrarako lanak transkribatu edo konposatzen eta, hain zuzen, horiek eskaini zituzten kontzertuan. Amaia Azpia-

zuk kantuan eta Xabier Ugartek eta Lupe de Azpiazuk gitarran -batek abesti bat, besteak hurrengo-, antzinako musika, euskal musika eta XX. mendeko konposizioak eskaini zituzten. Oso garai eta estilo desberdinetako musika, bikain defendatu zutena. Nabarmenezkoa, Amaia Azpiazuren gaitasun paregabea Claudio Mon-

teverdiren XVI. mendeko pieza bat zein espiritual bat bikain interpretatzeko.

Artxiboa, Oñatin

Kontzertua alde batera, Jose de Azpiazuren artxiboa ia osorik Agustinoetara ekarri du haren alabak: "Ziur nago hemen baino hobeto inon ez dagoela".



Xabier Ugarte, Amaia Azpiazu eta Lupe de Azpiazu, kontzertuan. | MIREN ARREGI

LUPE DE AZPIAZU | JOSE DE AZPIAZUREN ALABA

"Oñatik aitarekiko erakutsi duen maitasuna asko eskertzen dut"

Jose de Azpiazu musikari eta konposatzaile oñatiarraren alaba da Lupe de Azpiazu; hura ere, aita bezala, gitarra irakaskalea.

Zer dela eta zaude Oñatin?

Irakaskuntzan jardundut bizitza osoan zehar, eta orain erretiroa hartu dudanez, lehen aldiz, jaietan Oñatira etortzeko aukera izan dut.

Gaurko kontzertuan hemen egotea ez da kasualitatea.

Ez noski. Jaietan hemen egongo



MIREN ARREGI

nintzela-eta, eta aitaren jaiotzaren 100. urteurrena izanik, pentsatu genuen ederra litzatekeela kontzertu bat egitea.

Zure aitarekiko herriak erakusten duen maitasuna nola bizi duzu?

Askok eskertzen dut Oñatik aitarekin izan dituen eta oraindik dituen detaileak. Badakit herriak ez duela inoiz nire aita ahaztu. Jose de Azpiazuren bizitzak jarraitu egiten du horrela; hor goitik begiratuko gaitu, segurua.

Neska-mutikoak, zapiaren jokoan, soka saltoan edo uztaiarekin izan, beti euskaraz

Egubakoitzean 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutiko dezente batu zen Jardunen jolasleku ibiltarira; hurrengo saioa hilaren 19an izango da, Iralan.



Neskatala taldea, soka-saltoan. | JOSETXO ARANTZABAL

M.A | BERGARA

Egubakoitzean izan zen Jardunek antolatutako jolasleku ibiltariaren bigarren saioa. Hiru saio antolatu ditu guztira; lehenengoa irailaren 28an izan zen Matxiategin eta egubakoitzean izan zen bigarrena. Espoioan egin zuten hori eta 16:30etik 18:30era, 3 eta 12 urteko neska-mutiko mordoak elkartu ziren bertan. Asmoa, arratsalde pasa ederra egitea, lagunekin eta jolasean, eta beti ere euskaraz. Eta lortu zuten, gainera. Besteak beste, jolastu zuten zapiaren jokoan, soka-saltoan ere aritu ziren eta uztaiarekin ere ibili ziren.

Urriaren 19an, Iralan

Hirugarren eta azken saioa hilaren 19an izango da, Irala kalean. Hori 17:00etatik 19:00etara izango da eta, besteetan bezala, euskaraz jolasteko aukera egongo da.



JOSETXO ARANTZABAL

Berriz ere, Zabalotegi gainezka

Zalantza barik, Bergarako gaztetxoek primeran pasatzen dute Zabalotegin egiten diren DJ saioetan. Beti egon ohi da aretoa lepo beteta eta gaztetxoek dantzan eta kantuan gogoz egiten dute saio horietan. Zapatuan egin zuten azkena Zabalotegin, eta hori ere arrakasta hutsa izan zen. Bereziki 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako saioak izaten dira, eta horiek ez dute hutsik egiten.

'Paradisuko Atea' lanarekin Arrasateko mugak gainditu ditu Doke antzerki taldeak

- ▶ Zapatuan Aramaion aurkeztu zuten azken antzezlan
- ▶ Zortzi urte hauetan antzerki talde sendoa osatu dute

ARRITXU BARRUSO | ARAMAIO

Zortzi urte daramatzate oholza gainean eta urtetik urtera gero eta talde sendoagoa eta profesionalagoa osatzen dute. Doke antzerki taldeaz ari gara berbetan. Azken egunotan lanpetuta ibili dira; Aretxabaletan eta Aramaion aurkeztu dute taldearen laugarren lan handia: *Paradisuko Atea*.

Komedia eta drama uztartzen dituen lana dela kontatu digu Doke taldeko aktore Mariasun Pagoagak: "Antzezlan tanatorio batean kokatzen da eta hildako bat dago, beraz badu alderdi dramatiko. Dena dela, zalantza barik komediatik du gehien. Tanatoriora hildakoaren lagun eta familiarakoak gerturatuko dira eta hildakoak guztia ikusi eta entzungo du. Horrek egoera nahiko barregarriak sortuko ditu tanatorioan".

Arrasateko mugetatik kanpo

Orain arte egindako antzezlanek (*Eskuak Elkarri*, *Gabonetako Ikuskizuna* eta *Iragana Iragan*) Arrasate zuten kokaleku edo Arrasaterekin zuten zerikusia. Bada, oraingo honetan Arrasateko mugak gainditu nahi izan dituzte: "Pena ematen zigun, horrenbeste lan hartu eta gero, Arrasate eta inguruan bakarrik aurkeztu ahal izatea gure lanak. Horregatik oraingoan Arrasaterekin loturarik ez duen antzezlan prestatu dugu. Modu horretan beste herri batzuetan ere taularatzea da asmoa".

Oraingoz nahiko ondo doaz asmo horiek. Arrasaten, Aretxabaletan eta Aramaion aurkeztu dute dagoeneko *Paradisuko Atea* antzezlan eta Arabako beste lau herritan ere lotuta daukate dagoeneko ema-

naldia. Horrez gain, beste hainbat udalekin ere harremanetan dabilta.

Eskola bikaina

Zortzi urte hauetan sendotu egin da Doke taldea. Gaur egun hogeitabat lagun dabilta bertan, eta zapatuan, esaterako, hamabi ikusi ahal izan ziren taula gainean, aktore bikainak guztiak ere. Baina eszenaratzea ere benetan zaindua eta berezia erakutsi zuten, izan ere, agertokiaren atzeko aldean benetako profesionalak jarduten dute lanean. Mariasun Pagoagaren esanetan, eskola bikaina da Doke taldea: "Gehienondako eskola bikaina izan da; bertan ikasi dugu dakigun apurra. Nire kasuan ere, zinemaren atera zaizkidan lanak Doke taldean ikasitakoari esker izan dira".



Paradisuko Atea antzezlanaren pasarte bat Aramaioko kultura etxean. | J.A.

Etxean bezalaxe

Zapatuko emanaldi berezia izan zen Doke antzerki taldeko kideendako, izan ere, Aramaion etxean bezala sentitu izan dira beti: "Hasiera-hasieratik, Doke sortu zenetik, Aramaioko kultura etxeko ateak zabalik izan ditugu gure entseguendako, eta urte asko daramatzagu Aramaion lanean. Oso oholza berezia da guretako eta etxean bezala sentitzen gara". Eta zalantza barik berezitasun eta xarma hori nabaritu zen zapatuko emanaldian.

ESANAK

"Doke taldea eskola bikaina izan da gehienondako, bertan ikasi dugu dakigun apurra"

MARIASUN PAGOAGA | AKTOREA

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



blum **FRANKE** **G. GRUMAL**
LOGISIETE **KESSEBÖHMER**

BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK



Garbigailu integragarria, AWM 129

- A klasea
- 7 kiloko karga
- 1.200 b/min

Prezio garbia,
RAEE barne:

447,65€



Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)

- A/A/A+ klasea
- Zarata maila: 47 db ½. • Karga automatikoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

410,80€



Combi EBQH 20223 F –No Frost totala–

- A+ klasea
- 200x60x65,5 (AlxZabxFon)

Prezio garbia,
RAEE barne:

685,20€



Labe pirolitiko –Newstyle linea–

- A klasea
- Pirolitiko

Prezio garbia,
RAEE barne:

425,86€



Indukzio-plaka, Kic 631 TB –biselatua–

- 3 zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control
- (TB biselatua)

Prezio garbia,
RAEE barne:

345,80€




Mikrouhin-labea, MIC 201 EX

- 20 litro, 32 zm-ko hondoa,
- Altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

175€

Debagoieneko GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tari-mak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

GURE MUSIKA TALDEAK

"Musika akustikoaren tradizioak eta sinpletasunak xarma berezia du"

- ▶ 2013ko otsailean taldeak egindako lau edo bost abestiz osatutako maketa grabatzeko asmoa dute.
- ▶ Nahiz eta aurretik gypsy jazz-a landu, 2011 azaroan sortu zen taldea eta dagoeneko 10 kontzertu baino gehiago jo dituzte.

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Frantzian 30. hamarkadan sortutako gypsy jazz estiloa AEBko jazz-a eta Europako ijitoen musika folklorikoaren nahasketaren ondorioz sortu zen eta, estilo honetan, alaitasuna eta ijitoek musikan jartzen duten sentimendua dira nagusi. Estilo horretan oinarrituta, baina gaur egungo musikaren eraginpean sortu zen Donostian 2011 azaroan Berebille Swing taldea. Proiektu honetaz gehiago jakiteko, talde honen sortzaileetako bat den Igor Letona gitarra jole arrasatearrarekin izan gara.

Nola sortu zen Berebille Swing taldea?

Duela lau edo bost urte, Iñaki Alberdi gitarra jolearekin batera Django Reinhardt jazz gitarra jolearen abesti batzuk prestatu genituen. Bi gitarra jolek talderik gabe jotzeko aproposak dira eta, gainera, Alberdik flamenkoa jotzen zuen eta nik jazz-a. Beraz, biok jotzen genituen estiloen arteko nahasketarik naturalena gypsy jazz-a jotzea zen.

Gero taldea sortu zenuten.

Bai, ideia garatu genuenean, kontrabaxu eta biolina sartu genituen, baina gu baino maila altuagoko musikariak ziren eta formazio horrek ez zuen funtzionatu. Guk gure bidea eta estiloa garatu beharra sentitu genuen, eta berriz ere bakarrik jotzen hasi ginen. Gero, Donostialdean aritzen diren musikari gehiago ezagutu eta aurreko urtean, Jokin Zapa gitarra jolearekin, Joseba Otxoa kontrabaxu jolearekin eta Maria Lobero biolin jolearekin jotzen hasi ginen. Bosten artean zerbait berezia zegoela ikusi eta Berebille Swing sortu genuen.

Euskal Herrian gypsy jazz talde gutxi egongo dira...

Hegoaldean, guk dakigula, Gasteizen badago gypsy jazz-a jotzen duten talde bat, baina egia esan ez dago mugimendu handirik. Iparraldera joan ezker, gauzak asko aldatzen dira: musika denetan gypsy jazz-a jotzeko aproposak diren gitarrak saltzen dituzte eta tabernetan gypsy estiloko kontzertu asko antolatzen dira.

Zentzuk dira gypsy jazzaren ezauzgarriak?

Gaur egun jazz estiloaz ezagutzen dugunaren oinarria da. Hamarkadak aurrera egin ahala, jazz gero eta estilo konplexuagoa bihurtu da, teknikoagoa eta entzuteko zailagoa. Gypsyak, ordea,



Iñaki Alberdi, Maria Lobero, Igor Letona, Joseba Otxoa eta Jokin Zapa dira Berebille Swing. | BEREBILLE SWING

folklorearekin harreman estuagoa du, entzuteko eta dantzatzeko askoz ere errazagoa da.

Ijitoen musikan alaitasuna eta sentimenduak adierazteko duten erraztasuna dira nagusi.

Emozio desberdin asko transmititzeko gai den musika da, abidura handia du, baina oso armonia sinpleak ditu eta entzuteko oso errazak dira. Europa ekialdeko ijitoen musikak oinarri asko ditu: Errusiako musika, Moldaviako, Errumaniako... European zehar ibilitako ijito nomadek kultura ezberdin askoren eragina izan dute... eta hori musikan antzeman daiteke.

Zuen abestia egiterako orduan,

gypsyaz aparte, beste estilo batzuen eragin al duzue?

Bai, Django Reinhardt-en eragina nabaria da, baina baditugu beste estilo batzuen eragina ere. Adibidez, *Bizkaia maite* abestiaren moldaketa egin dugu eta euskaraz abestutako polka bat ere badugu. Musikari bezala, estilo guztia hauek jotzea nire garapen pertsonalean aurrera egiteko balio izan dit.

30. hamarkadan oinarritutako taldea izanda, anplifikaziorik gabeko musika joko duzue?

Bai, entseatzeko orduan ez dugu anplifikaziorik, baina kontzertu askotan, mikrofonoak erabiltzen ditugu. Musika akus-

tikoaren tradizioak eta sinpletasunak xarma berezia du.

Zuen ikusleek jotzen duzuen estiloa ezagutzen dute ala musika entzuterakoan harritu egiten dira?

Jazz kontzertuetan publikoaren eta musikariaren artean tarte handia dago, askotan publikoak ez du musikaria ulertzen. Baina gure formazioarekin hau ez da gertatzen: folkloreak eraginari esker, ume zein nagusiak dantzan hasten dira. Kontzertuak jo ahala, gaztetxe baten edo ezkontza baten jotzeko aukera dugula konturatu gara. Musika honen erritmoa barneratzea oso erraza da! **Zenbat kontzertu jo dituzue?**

Otsailetik maiatzera 10 kontzertu egin ditugu eta udan geldirik egon ostean, hilabete honetan bi kontzertu jo ditugu.

Zuen abestiak grabatzeko asmorik al duzue?

Otsailean, lagun batek Bartzelonan duen estudioan lau edo bost abesti grabatu nahi ditugu. Aurrera egiteko erronka polita da zerbait grabatzea, gainera maketa batek kontzertuak lortzeko ate asko zabaltzen dizkizu.

Ba al duzue webgunerik?

Ez, baina Facebook bitartez gure kontzertuen berri ematen dugu eta bideo bat ere eskegi dugu. Hau da gure helbidea: <http://www.facebook.com/Berebilleswing>.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Baseria salgai Zabola auzoan. Hiru etxebizitza egiteko aukera eta 1.415,44 m²ko lursaila. 629 51 39 22, 636 49 46 89.

Aramaio. Aukera ona. Gantzan etxe bakarra salgai. Egoera onean. 8.000 m²ko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta arborekin. 300.000 euro. 636 94 81 31.

Arrasate. Prezio berria! 174.000 euro. Etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuak 650 01 05 15.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. 170.000 euro. 606 86 71 97.

Bergara. Hiru logela, bi bainu-gela, egongela eta sukaldia. Igogailua eta berokuntzarekin. Guztiz jantzia. 669 53 97 03.

Bergara. 50 m²ko etxebizitza salgai. Logela, sukaldia, komun eta egongela. Balkoiarekin. Oso argitsua. 75.000 euro. Bikoteendako aproposa. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. 647 77 73 92.

Berriz. Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela haundi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldia. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685 72 46 90 / 675 71 23 69.

Elorrio. Duplex etxebizitza, 78 m² erabilgarri (90 m eraikiak). Argitsua eta isila, errekarra begira. Egongela nasaia, logela bi eta bainu-gela bi. Errekakale, 10 2gn solairua. ziertzaloizate@hotmail.com 605 72 29 45.

Elorrio. Elorrio erdigunean estreinatu gabeko etxe salgai. 77m², 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariekin. Prezioa, 230.000€. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 45 72 01.

lurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, lurretan. 66.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 72 80 42.

103. ERRENTAN EMAN

Bastida. Oporretako pisua alokatzen dut pisinarekin. Torre otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibalo pista ditu. 2 logela, bainu-gela, sukaldia eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuok deitu hona: 620 62 92 45. iarteaga@hotmail.com.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainu-gelak. Igogailuarekin. 750 euro hilean. Interesatuok deitu telefono honetara: 675 71 50 36.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 662 56 95 37 / 673 84 08 73.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Bilogela, gasdun berokuntza, PVCzko leihoak, eguzkitsua. 72 metro kuadro. Deitu: 606 65 58 08 edo 660 04 25 25.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainu-gelak. Igogailuarekin. Erostea aukera ere bai. 675 71 50 36.

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen dut Donostian, Antigua auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitzua da eta lasaia. Prezioa 500 euro. 609 48 11 24.

Durango. Durangon, Juan de Itziariko auzunean, pisua alokagai, altzariekin. 653 74 80 13.

Elorrio. 50 m²ko atiko berria alokagai Elorrian. Logela, komun eta sukalde egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. 606 04 38 35.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzibide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta igogailua ditu. Interesatuak arratsalde 652 77 87 15.

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, 2 logela. Deitu 660 45 87 56. zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Pixu bilagabiltzan aretxabaletako bikote gazte bat gara. Nahia dugu txikia izatea. Eskerrik asko! 656 71 31 09.

Baserría. Baserrian bizitzeko desiatzen gauden bikote bat gara. Ateak irekita ditugu edozein proposamenetarako: konpondu, zaindu... Auzoak bizirik mantendu behar ditugu, baserriak ezin dira hutsik egon! Deitu 652 76 73 39 zenbakira.

Bergara. Bilogelako etxebizitza behar dugu errentan. 654 24 13 27 / 687 16 74 63.

Bergara. Familia batentzako etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09.

Etxari Aranatz. Nahiko nuke Etxarri. Interesatuok deitu telefono honetara Interesatuok deitu telefono honetara: 679 76 32 34.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Unibertsitate ondo ondoan, logela bat ematen da errentan, bi neskekin etxe osatzeko. Kalefazio zentrala prezio barruan. Lorea. 620 52 94 98.

Arrasate. Logela ematen da errentan Erguin kalean, unibertsitate gertu. Bilogela, egongela, komun eta sukaldia balkoiarekin. Prezioa: 250 euro. 660 31 37 28.

Bergara. Logela ematen da errentan. 699 09 46 26

Donostia. Pisukidea behar dugu Grosen pisua osatzeko. Neska, langilea, ez erretzalea. 2 neska langile gara eta hirugarren bat nahiko genuke. Logela handia da, ohe bikoitz jartzeko modukoa eta argia du (lehoa kalera). nerea-larraitz@hotmail.es Interesatuok deitu telefono honetara: 626 51 68 82 / 615 70 55 67.

Durango. Bikote kide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 37 28 87.

Durango. Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza Eskola aurrean dago pisua, alde zaharretik oso gertu, eta Tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! Interesatuok deitu telefono honetara: 679 62 04 47.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. - Profesionalen modulua.

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. Interesatuok deitu honetara: 650 73 87 24.

lurreta. lurretan logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. Interesatuok deitu telefono honetara: 600 75 54 18.

Durango. Garajea salgai Plateruen plazan. 28.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 47 57 85.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Interesatuok deitu telefono honetara: 653 74 87 51.

Oñati. Herri erdialdean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila nabil. 225 euro gehi gastuak. Etxe guztiz hornitua dago. Interesatuok deitu telefono honetara: 652 71 52 50.

Oñati. Logelak ematen dira errentan San Lorentzan. Deitu 943 78 31 42 / 688 60 30 52 telefonoetara.

Zumaia. Pisua konpartitzeko bi pertsonaren bila nabil, etxeak hiru logela ditu eta momentuz logela bat bakarrik dago okupaturik. Etxea handia da komun bat, sukaldia eta egongela handiak dituzelarik, edonon interesaturik egonez gero idatzi e mail honetara: roker_8@hotmail.com edo bestela deitu 661 42 61 75 zenbakira.

Durango. Garajea alokagai. Askatasun etorbidea, 35.50 euroan. 675 71 95 54.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Zerkaostetan, Iturbide egoitza parean, garajea salgai. Interesatuok deitu telefono honetara: 600 75 54 18.

Durango. Garajea salgai Plateruen plazan. 28.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 47 57 85.

Elorrio. Elorrioko Berrio Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658 75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 45 87 56.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje edo lokal bat behar da errentan, biltegi gisa erabili ahal izateko. Ahal dela, erdi aldean. Deitu telefono honetara: 688 69 00 07

3. LOKALAK

301. SALGAI

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa, garbitzeko, engratzeko eta IBI lizentzia ditu.

Bulegoko altzariek eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsoneri moldatua. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzeko errenta: 800 euro/hil. 665 75 78 07 (Ana).

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulego bat alokatzen dut Durangon. 42 m². Durango erdian. 656 78 02 15.

305. BESTELAKOAK

Oñati. Kale Zaharrean bulegoa konpartituko nuke. Guztiz egokituta dago. Egokia izan daiteke bulego zein jendea atenditzeko. 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuok deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77.

Debagoiena. Pertsona heldu bat behar da etxeko lanak egin eta nagusi bat zaintzeko. 669 53 97 03.

Zaldibar. Zaldibarren umea eskolara eramane eta etxeko lanak egiteko emakumezko eskalduna behar da. Interesatuok 670 59 84 32.

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska boliviarrak pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informea eta paperak ditu. Gauze eta egunez, baita orduka ere. 618 14 71 34

Arrasate, Eskoriatzan edo Aretxabaletan. Neska eskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egin laguntzeko. Magisteritza diplomata eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta. Neska boliviarrak gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbitzeko egiteko. Eguenez, gauze zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkate eta esperientziaduna naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 14 71 34

Bergara. 47 urteko pertsona lanerako gertu. 606 24 79 09

Bergara. Neska txakurrak pasatzeko eskaintzen da. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 53 29 18

Debagoiena. Administrazioan lizentziatu gaztea lanerako prest. Esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 629 06 93 60

Debagoiena. Garbiketarako egintzuzko. Baita zerbitzari lanak ere. 662 08 22 03

Debagoiena. Gizezko koa edozein lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 654 241 327

Debagoiena. Igeltsari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zainzaile gisa lan egingo nuke. 622 59 92 14

Debagoiena. Lan egiteko emakumea gertu. Umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 610 34 97 88

Debagoiena. Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637 52 89 91

Debagoiena. Mutil gaztea eta esperientziaduna sukaldari laguntzaile moduan eta garbiketari lan egingo luke. 616 62 85 91

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko, garbiketarako eta abar. Baita base-errietan ere. 622 77 60 65

Debagoiena. Mutila gertu, esperientziaduna, nagusiak zaintzen lan egiteko, orduka, egun osoz edo etxean bertan bizitzeko. Berehala hasteko prest. 602 07 12 06

Debagoiena. Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketari lan egin zein nagusiak zaintzeko gertu. 616 62 85 91

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko, garbitasunak egin eta abarretarako. Etxean bertan bizitzeko ere bai. Eskarmentua dut zerbitzari, sukaldari eta hoteleko lanetan, okindegian, lorazain, hiltegiaren edota harrobien lan egiten. 665 98 29 55

Debagoiena. Emakumea edozein lanerako eta edozein ordu egiteko gertu. 600 290 524

Debagoiena. Emakumea edozein lanerako eta edozein ordu egiteko prest. 664 124 325

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko, garbitasunak egin eta abarretarako. Etxean bertan bizitzeko ere bai. Eskarmentua dut zerbitzari, sukaldari eta hoteleko lanetan, okindegian, lorazain, hiltegiaren edota harrobien lan egiten. 665 98 29 55

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila: nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketarako. Gauze zein orduka. Zaintza ikasketak egindakoa. Berehala hasteko moduan. 685 13 48 63

Debagoiena. Neska eskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Esperientzia eta informea ditu. Autoa daukat eta ordu egiteko zein egutegi malgutasuna. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska eskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Deitu telefono honetara: 606 05 11 99

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketarako ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. 602 87 09 30 edo 695 75 42 45

Debagoiena. Emakumea gertu orduka edo asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tabernak ere garbituko nituzke. Disponibilitate osoa. 699 60 91 90

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi eta gaixok zaintzeko. Klinikari laguntzaile tituluararekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96 edo 662 58 96 11

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetarik garbiketarako egin edo bestelako lanerako. Etxean bertan bizitzeko, orduka, gauetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04

Durandaldea. Nagusiak zaintzen zein garbiketari lan bila. Lanaldi osoan, baita gauze ere. Interesatuok deitu 660 70 66 18 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634 12 56 87

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldian ere. Erreferentziak ditu. Autoa ere bai. 680 87 38 66

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldian ere. Erreferentziak ditu. Autoa ere bai. 634 40 64 65

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketari lan egin osoz. Garbiketarako ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. 673 47 53 74

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketari lan egin osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketarako egiten edo sukalde laguntzaile. 662 26 71 41

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketari lanerako. Edozein ordu egiteko. Deitu 630 20 12 03 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketari lanerako. Edozein ordu egiteko. Deitu 679 29 78 89 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketari lanerako. Edozein ordu egiteko. Deitu 679 29 78 89 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketari lanerako. Edozein ordu egiteko. Deitu 679 29 78 89 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu. Baita garbiketarako egiteko ere. Pertsona arduratsua. Orduka zein etxean bertan bizitzeko. Deitu 722 14 42 86 telefonora.

Debagoiena. Ostarlaritza lan egingo nuke: sukaldari edo laguntzaile. 634 41 90 51

Debagoiena. Senar emazteak, erizaintza laguntzaile tituluararekin, pertsona nagusiak zainduko nituzke: etxean bertan bizitzeko, ospitalean, eta abar. 697 35 62 49 edo 943 79 04 69

Debagoiena. Sukaldari edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Zortzi urteko esperientzia daukat. Elikagaiak ibiltzeko titulua daukat. Autoa ere bai. 634 40 64 65

Debagoiena. Sukaldari edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Zortzi urteko esperientzia daukat. Autoa ere bai. 634 40 64 65

Debagoiena. Sukaldari esperientziaduna lan egiteko prest. 943 53 34 24

Debagoiena. Sukalde laguntzaile gisa lan egingo nuke. Sei urteko esperientzia. Elikagai erabiltzaile titulua daukat. Miguel. 634 41 90 51

Durandaldea. Lan bila nabil garbiketari zein umeak edo nagusiak zaindu. Edozein ordu egiteko. Deitu 644 63 51 45 / 631 02 29 82. telefono zenbakira

Durandaldea. Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Garbiketari, sukaldari laguntzaile edo zainzaile, ume zein nagusi. Arratsaldetan. Erreferentziak. 670 67 46 41.

Durandaldea. Lan bila nabil garbiketari zein umeak edo nagusiak zaindu. Edozein ordu egiteko prest, baita asteburuetan ere. Deitu 644 63 51 45 / 631 02 29 82. telefono zenbakira

Durandaldea. Asteburuetan umeak edo pertsona nagusiak zaindu prest dagoen mutil gaztea. Janaria egin, garbiketari, paseoak emateko... 22 urte ditut eta aretara soziosanitario ikasten ari naiz. Interesatuok deitu 622 93 72 86 zenbakira.

Durangaldea. Neska eskalduna haurrak zaindu edota partikularrak emateko prest. 661 37 85 29.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketalaran bila. 632 51 68 61

Durangaldea. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska eskalduna Durangaldean umeak zaintzeko lan bila. 625 70 78 31

Durangaldea. Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauzez. Erreferentziak. 616 78 80 33 Luz Adilia.

Durangaldea. Neska arduratsua eta erreferentziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauzez. 608 24 85 54.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Deitu 660 87 53 60 telefonora.

Durangaldea. Lan bila garbiketara edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Deitu 680 29 66 76 telefonora.

Durangaldea. Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 602 12 22 45 telefonora.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. Deitu 631 02 29 82, zenbakria.

Durangaldea. Emakume eskalduna Durangaldean eta egunean bi hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618 40 58 79 (Izaskun).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631 24 26 07.

Durangaldea. Orduka zein gauzez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 633 93 41 06.

Durangaldea. Erizain laguntzailea, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 608 46 48 44 telefonora..

Durangaldea. Neska eskalduna pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako eskaintzen du bereburua. Asteburuetan edo astegunetan. Deitu 652 72 02 29 telefonora.

Durangaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 690 68 73 95.

Durangaldea. Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, umeak edo edadekoak zaintzen. Lanaldi osoan edo orduka. Erreferentzia onekin. 638 43 79 01.

Durangaldea. Pertsona arduratsua lan bila, pertsona nagusiak zaintzen, garbiketara, lorezaintzan, baserrietan ere aritzeko prest. 622 47 39 41 // 632 37 28 87.

Durangaldea. Mutil arduratsua lan bila, lorezaintzan, nagusiak zaintzen edo altzairu montatzaile moduan. Esperientziarekin. 676 11 21 74.

Durangaldea. Nagusiak zaintzen edo bulego eta harategiak garbitzen lan egiteko prest nago. Lanaldi osoan, goizez, arratsaldez edo gauzez. 690 68 73 95.

Durangaldea. Pertsona arduratsua lan bila, 09:00etatik 14:00etara. Zaintzan zein garbiketara. Deitu 632 72 43 23 telefonora.

Durangaldea. Estetika eta ileapaintzaile laguntzailea lan bila. Deitu 672 69 91 52 telefono zenbakira..

Durango. Neska gazte eskalduna prest dago goizetan umeak eskolara eramane eta ondoren etxera garbitu eta atontzeko. Interesatuak 690 76 82 26.

Durangaldea. 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko prest. 602 12 22 45

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko lan bila nabil, 24 orduz edo asteburuetan. 602 12 22 45.

Durangaldea. Neska arduratsua etxeko lanak egiteko edota nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Orduka. Esperientziaduna eta erreferentziarekin. Deitu 648 20 03 70 telefonora..

Durangaldea. Neska gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketara (portalak, tabernak) zein etxeko lanak egiteko lan bila nabil. 24 orduz, lanaldi osoan edo lanaldi erdian. Erreferentziarekin. 620 82 85 79.

Durangaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusiak laguntzeko eskaintzen da. 24 orduz, egunez, asteburuetan edo jai egunetan. Erreferentzia askorekin. 666 75 21 47.

Durangaldea. Lan bila nabil. 24 orduz, gauetan edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziarekin. Geriatria kurtsoa egina. Papelekin. 634 00 82 22.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. 631 13 22 91.

Durangaldea. Egunez edo orduka 10:00etatik 20:00etara nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketara lan bila. Esperientziarekin. 632 15 80 89.

Durangaldea. Emakumea lanaldi erdiz lan egiteko prest umeen onagusiaren zaindareko garbiketara. Goiz, arratsalde zein gauzez. Esperientzia eta erreferentziarekin. 636 85 20 59.

Durangaldea. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez. Erreferentziarekin. 638 23 37 39.

Durangaldea. Emakumea nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketara lan bila nabil. 24 orduz edo egunez. Papelekin eta erreferentziarekin. 650 10 18 31.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko zein kamarero lanetan aritzeko lan bila nabil. Esperientziarekin eta erreferentziarekin. 630 86 99 21 (Andres Arrieta).

Elorrio. Irailetik aurrera, arratsaldetan, umeak zaintzeko prest (Elorrixon). Esperientzia handiarekin. Informazio gehiagorako deitu 688 64 06 04.

Elorrio. Adineko pertsonak paseatzera ateratzeko prest. Goiz zein arratsaldetan. Interesa baduzu, 688 64 06 04.

Elorrio. Haur hezkuntza eta Hezkuntza berezia eginkari dituen eta udalokutan lanean esperientzia duen neska gazte eskalduna, arratsaldez haurrak zaintzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, 688 64 06 04.

Elorrio. Neska gazte eta eskalduna, Durangaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire. 657 77 54 37.

Honduraseko neska langile eta arduratsua. Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusiarekin haurrak zaintzen eta garbiketara lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26

Zumaia. 36 urteko gitarrista berbera edo beste proiektutan edo taldetan jotzeko prest.... Abestea ere posible izango nuke... Esperientziaduna... 666 27 40 55.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Ingelesko eskola partikularrak hartuko nituzke etxean. Bigarren batxilergoa. 679 74 00 61

Bergara. Marraketa eta neumatikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 678 61 50 45

Bilbo. Euskal filologiako lizentziatu bat behar dugu euskal filologia amaitzen ari den ikasle bati klaseak emateko zein tutore lana egiteko (azalpanak eman, etxerako lanak bidali, lanekin lagundu). Sei edo zortzi klase ordu izango lirarteke astean, goizean bina ordu edo. 609 42 54 74.

Bilbo. Euskal filologiako lizentziatu bat behar dugu euskal filologia amaitzen ari den ikasle bati klaseak emateko zein tutore lana egiteko (azalpanak eman, etxerako lanak bidali, lanekin lagundu). Sei edo zortzi klase ordu izango lirarteke astean, goizean bina ordu edo. 609 42 54 74.

Gitarra ikasi nahi dut Oñatin. Gitarra jotzen ikastea asko gustatuko litzaidake. Erakusteko prest bazaude deitu hona: 635 73 87 54

Gitarra eskolak Oñatin. Gitarrako eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona batetan interesatuak gaude. 626 75 61 12

Ingelesa. Ingeles filologia daukan pertsona behar da Advance azterketa prestatzen laguntzeko. 628 80 03 44

Oñati. DBH 4. mailako eskolak emango dizkidan norbait behar dut, kurtsoan zehar laguntzeko. 627 91 23 21

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut, talde txikitara edo bakarka. Adin guztiak (5 urtetik aurrera). Erreferentzia eta hobekuntza. Azterketen prestatuntza ere bai (KET, PET, FCE...). Deitu eta informatu konpromiso barik. 606 72 47 10

Durango. Mondragon unibertsitatean industri antolakuntzan Goi zikloko ingeniari izateko eginda daukan durangarra naiz. Lehen hezkuntza, DBH zein Batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest, ondorengo gaietan: matematika, fisika, marrazki tekniko eta abar, ingelesaz gain. Beste arloren bat landu nahi izanez gero, jakinarazi mesedez inongo arazorik gabe. Kontaktua: 665 71 11 08. iker.totorika6@gmail.com.

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte eskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest.: 675 00 79 19 egorrono@gmail.com

Durangaldea. Alemaniera klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestatketa. HE0. 670 79 33 12.

Durangaldea. Psikologo eskaldunak ikasketak teknikoak eskaintzen ditu. Deitu 679 38 23 69. zenbakira.

Durangaldea. Erizaintzako ikasle egaduna LH eta DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Ingelesko titulua ateratzen. 665 75 86 48.

Durangaldea. Neska gaztea, ingeniaria eta durangarra, klase partikularrak emateko prest, LH, DBH edota Batxilergoko ikasleei. Edozein ikasgaitan. 635 20 50 12.

Elorrio. Lehen hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginkari. Interesa baduzu jarri harenanetan nirekin: 688 64 06 04.

Elorrio. Lehen hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginkari. Interesa baduzu jarri harenanetan nirekin: 688 64 06 04.

6. MOTORRA

601. SALGAI

Eskaintza. Autoa salgai. Seat Leon 1.9tdi autoa s altzen dut, ez erabiltzeagatik. 2 urte besterik ez ditut. Interesadunak jarri harremanetan telefono honetan 661 42 61 75.

Rover 45 confort 1.4 gasolina. Rover 45 confort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, abs, airbag, pioner 4x4w irrati cda, lapurren kontrako inbibilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konpromezunik gabe. Transferentzia nire kontura.

Salgai furgoneta WG Multivan t4 tdi 2.5. Furgoneta wg multivan t4 tdi 2.5 salgai daukat. Kanbio automatikoa. 102 zaldi dauzka kondizio honean dago. Kanpinarako prestatuta. 609 48 11 24.

7. ANIMALIAK

701. SALGAI

Behorra eta moxala salgai. Behorra eta bere 4 hilabeteko moxala salgai. Deitu 15:00etatik 18:00etara. 679 23 47 46.

Gorbeiaiko ardi txakur kumeak salgai. Gorbeiaiko ardi txakur kumeak salgai. Uztailaren 1ean jaiota. 690 20 55 36. Mikel.

Untxiak salgai. Bi hilabeteko untxi handiak salzen dira. Aitak 8 kilo eta amak 7 kilo dituzte. Untxi bakoitza 15 euroan. 94 621 82 57.

703. EMAN

Katakumak opari. Lau katakuma beltz beltzak oparitzen dira. 606 70 91 18.

704. BESTELAKOAK

Hezitzaile. Neska gazte eskaldun eta esperientziadunak txakurrak hezten lan egingo luke. 697 41 66 24

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 75 65 12.

Aramaio. Zabola auzoan 10.119,34 metro koadroko bi lursail salgai. etxebizitzak egiteko aukerarekin; proiektu, lizentzia eta guzti. 629 51 39 22/636 49 46 89.

Altzariak salgai. Altzariak salgai: ohearen ektura eta bi mahaitxo: diseinu modernoa, neurriak 1,50m x 1,90m, berri berria dago (urte bete), prezioa 450euro (bere salneurria denda 1.800euro). Koltxoia: neurriak 1,50m x 1,90m. Prezioa 60 euro. Ikasteko mahai zuria: berri berria dago, prezioa 50euro. Umeen logelarako bost kaxoidun sinfoniera: prezioa 85euro. Banak markako egurrezko apalak: prezioa 150euro. Banak markako mahai baxua: prezioa 65euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 41 55 11.

Altzariak. Antzinako altzariak salzen ditut: egongelako mahai bat eta 6 aulki, egongelako armairu bat ispluarekin. Materiala: haritz amerikarra euskal herrian tailatua. Egoera ezin hobean eta primerakoa baserri, landetxe eta abarretarako. Interesa izanez gero, deitu 661 42 61 75 zenbakira.

Almirante trajea. Lehen jaunartzeko almirante trajea salgai. Neurria: 10. Zapatak izan ezik gainontzeko guztia. Behin erabiltutakoa, 150€ e. 618 00 08 28

Armairua eta ohea salgai. Haritzeko armairua eta ohea salgai. 1.000 euroan. Negozio-garriak. 600 64 90 96.

Aulkirako patinetea. Bigarren umea eramateko patinete unibertsala salgai. Bumprimer etxekoa. Ia erabili gabea. 45 euro. 663 04 53 99

Biolinak. Hasiberriandako bi biolin salgai Debagoienan. Prezioa negoziatzeko. 643 76 79 64

Bizikleta salgai. Bizikleta estatikoa salgai. Prezioa 65 euro. 610 41 55 11.

Firstwheels bikien aulkia salgai. Firstwheels bikien aulkia salgai: jaioberrien kapazoa, aulkia eta osagarriekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 686 86 52 39.

Furgonetako abantza salgai. Furgonetako sebring modeloko abantza salgai. Guztiz zaratzen da. Neurriak: 370x310 alt 210. 1740ko pisua. Barruko gela dagoa (200x170) eta lurr. Email: aretxalarr@yahoo.es

Gama altuko bizikleta. Cube acid 2012 Mountain bike. Estreinatua barik. Bi urteko bermea. Aukera ezin hobea. 725 euro. Interesatuok Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 29 93 44.

Ileapaindegiko altzariak salgai. Egoera onean. Deitu zenbaki honetara Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 71 74 48

Labea. Labea salgai. Oso gutxi erabilia. Ia berria. Arrasate. Interesatuok deitu telefono honetara: 686 88 46 66

MTB: Mondraker Ventura. Berria bezalaxe. Zuria. 150 165cmko pertsonentzat egokia. 295 euroan saldu edo itxurazko pasioko bizikleta bategatik aldatuko nuke. Deitu zenbaki honetara 670 489 149

Oheak. Bi ohe salzen dira 1.05 neurrikoak, estrenatu gabekoak. Arrasaten. Deitu zenbaki honetara 606 76 36 85

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontaktua: 650 17 22 85 edo strato-kaster@gmail.com

Sehaska eta haurren aldelekua. O 2 urtera arteko minia eta sehaska salgai. Stokke sleepi zuria. 2010eko uztailekoa, egoera oso onean eta gutxi erabilia. 350 euro. Haurren aldagailu zuria (Stokke) 150 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 648 20 37 75

Xurgagailua. Akaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabiltutakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 62 02 49

Yamaha Clavinova pianoa. Yamaha Clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketetako oso egokia. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuok deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. 653 73 78 58

Zeanuri. 2.000 m2 dituzten hiru lur sail eraikigarri dira, eta Gorbeia magalean, Ipinaburu auzoan aurkitzen dira (Zeanuri). Prezio onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 86 39 99.

802. EROSI

Birkien aulkitxo. Birkien aulkitxo erosiko nuke. 663 04 53 99

Bugaboo patinetea. Bugaboo etxeko patinetea erosiko nuke. 663 04 53 99

Estetika tresnak erosteko prest. Kamilak eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 87 95 57.

Negutegi txikia erosi nahi dugu. Bigarren eskuko negutegi txikia erosi nahi dugu, 4x12 gutxienez. Txikiagoa ere izan daiteke. 695 50 83 55.

Zilarrezko gauzak. Zilarrezko edozer gauza erosten ditut, kubertariak, jarroiak, bandejak, txanponak eta abar. Deitu 657 70 43 16 telefonora edo bidali mezua e postaz numipega@gmail.com helbidera.

803. EMAN

Bideoa. Panasonic NV SJ4 10 bideoa ematen da, El Mundo ren "100 peliculas de nuestra vida" bilduma eta guzti. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 55 42 21

CDak. CD pila bat daukat emateko. Arrasaten. Ez dira jatorrizkoak. Denetariako estilotoakoak. Interesa izanez gero 695 78 52 49 (Aitor)

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviara eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberraren bitartez bidaliko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. Interesatuok deitu telefono honetara: 655 71 76 66.

Bidali zure ordenagailua Perura. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberraren bitartez bidaliko dugu Peruko eskoletara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 76 66.

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Inaki. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

806. GALDU

Arrasate. Mustang etxeko botadun zapatilla pare bi galdu ditut, urdinak eta gorriak. Alabari bere egunean oaritzeko ziren. 669 63 93 29

Kamara. Igandean Oñatin argazki kamara galdu nuen, norbaitek topatu badu mesedez deitu telefono honetara. Eskerrik asko. 650 27 05 78

Lepoko katea Oñatin. Lepoko katea galdu nuen irailaren 30ean, domeka, Ilunkaraldea, barraka eta plaza inguruan. Domina bat ere badauka. Miguel izena dauka idatzita. Eskertuko da. 695 73 45 74 edo 943 78 25 71

Soinekoa Arrasaten. Haizeak zetazko soinekoa eramane dit. Beix kolorekoa eta lore marroiak ditu. Aurkitu duenak deitu zenbaki honetara. Eskerrik asko. 656 76 78 13

807. AURKITU

Betaurrekoak Orixol inguruan. Betaurreko pare bat bere poltsan eta zinta beltz eta guzti aurkitu dit Orixol eta Leziaga tartean. 656 72 03 65

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Arrasate eta Bergararik Gasteizera autoan. Astegunetan Arrasate edo Bergararik Gasteizera joateko autoa partekatuko nuke. 14:00etan irten eta 22:00etan itzuli. Interesatuok 627 38 72 38.

Gasteizera autoan goizez. Astegunetan Arrasate edo Bergararik Gasteizera joateko autoa partekatuko nuke. Goizeko 5:10ean irten eta 14:00etan itzuli. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 66 04 56.

Kotxea konpartitu. Astelehetik ostiralera Durangotik Elorriara joateko kotxea konpartitu nahi dut. Elorriko goizeko 08:00etarako egon behar naiz. Gastuak erdibana. 633 01 68 32. Javier

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil, 45 urte ditut, altua eta morenoa naiz, ez ditut kargarik. Harreman iraunkor baten bila nabil. Alai naiz eta bidaiatzeko gustatzen zait. Harremanetan jaritzeko deitu telefono honetara 609 48 11 24.

Etxebila Higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

SALGAI

AMARA: Azken solairua, terraza ederrarekin. 3 logela. Eguzkitsua. 207.000€

AMARA: Altuak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 220.000€

AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 250.000€

AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia

Jobsen galerak markaren liluran ere eragin du

Finantzieroki, baina, inoizko balio altuena dute Apple-en akzioek gaur egun

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Urtea bete da Steve Jobs zendu zela baina haren galerak, ekonomikoki behintzat, ez du kolokan jarri teknologiaren handikiaren posizioa. Zerbait galtzekotan, publikoki gutxienez, lilura sentazioa izan da, berrikuntza teknologikoarengatik baino, Jobs hil eta gero, ekonomia eta epaiketa kontuengatik izan baita albisteetan protagonista Apple. Errekorrak hautsi ditu, bai, burtsan, historian gehien kapitalizatatu duen enpresa baita. Komertzialki arrakasta izaten jarraitzen

dute Apple-en produktuek. Mar txoan kaleratu zuten iPadaren hirugarren belaunaldia eta aurreko astean jarri zen salgai iPhone berria eta salmenta datuei begiratu besterik ez dago. Tim Cooken gidaritzak berak, ez du ahuldu enpresa.

Jobsen heriotzaren ostean ez da egon aldaketarik Apple-en zuzendaritzan ezta ere produktu nagusien arduradunetan ere, lantalde berdinak jarraitzen du. Hain zuzen, zuzendari horiengan daude Apple-en akzioen kopuru handi bat. Enpresaren egoera



Jobsi New Yorkeko denda baten hil ostean egin zioten omenezko aldare bat. | MACRUMORS.COM

finantzieroki ezin hobeak, hain zuzen, makina bat titular bete ditu azken urtean eta horrekin batera, han eta hemen zabalik dituen patentei buruzko epaiketak izan dira albiste iturri. Jobsen garaian berrikuntzak eta produktu berrien aurkezpenak sortzen zuen lilurak betetzen zituen albistegiak. Orain Apple

ekonomia ataletan da protagonista gero eta nabarmenagoa eta teknologia gaietan apaldu egin da harrera hori.

Gailuei dagokionez, ematen du lehiakortasun mailan marka asko iPhone eta iPaden errendimendu mailara geroago eta aiseago heltzen direla eta abantaila konpetitibo txiki da produktu

zehatz batzuekiko. Abangoardia kolokan, Apple markak sorrarazi izan ohi duen lilura hori da orain arte markaren indargunean eta ezaugarri horrek ere zalantza eragiten hasi da prentsa espezializatuan azken modeloez ez baitute lehengo zeresana piztu. Halere, urtebete besterik ez da igaro.

Banda zabalak bezeroak galtzen jarraitzen du mugikorraren mesedetan

Estatuko eskaintza garestia eta kalitate txarrekoa dela diote kontsumitzaile askok

J.B. | ARRASATE

Banda zabalaren kontratazioak behera egin du azken hilabeteetan eta joan den ekainean inoizko kontratazio kopuru txikiena izan du, merkatuaren jaitziera nabarmenarekin, Telefonica eta Telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen datuen arabera. Orain arte egon den kontratazio kopuru txikiena eman da ekainean baina aldi berean baja kopuru handiena ere orduan geratu zen. Telefonica-rena da merkatuaren %96 eta arrazoiaren artean merkatuaren berezko estankatzea dago baina baita ere mugikorrerako Internetaren gorakadak. Horrekin batera, kexa oso hedatu da

Espainiako banda zabalera garesti, murrizta eta zerbitzu oso eskasekoa dela.

Galera handia

Zehazki, Telefonicak ADSLko 20.378 linea galdu zituen eta kable operadoreek 8.359. Bi horiek ez diren operadore alternatiboek soilik 8.330 linea berri kontratatu zituzten, beraz, galera nabaria da. Zuntz optikoan 11.711 alta egon ziren, hala ere. Telefonía mugikorreko datuak hartuta, kontratazioak gora egin du eta hile berean 28.651 linea berri kontratatu ziren. Urte hasieratik honako kontuak aterata milioi bat lineatik gora izan dira bajak.

Aldaketa gehiago Google-en zerbitzuetan

J.B. | ARRASATE

Zerbitzuetan aldaketak egiten dabil Google eta horietako batzuk itxi egin ditu dagoneko, esate baterako zenbait gehigarri eta Places izeneko lekuen direktorioa. Biltegiatze aukeretan etorriko dira orain aldaketarik handienak, bateratu egin ditu eta Picassa eta Google Drive zerbitzuak eta Google Trends-en ere muga batzuk ipini dituzte. Desagertuko diren zerbitzu gehienak beste batzuek ordezkatuko dituzte, halere, Google-en. Hala, orain arte AdSense bitartez albisteen rss-en feed-etan publizitatea txertatzeko aukera Feedburner-en bitartez egin beharko dute webguneetako kudeatzaileek. Aldaketarik nabarmenena, baina, bi zerbitzuen arteko batzuek batek ekarriko du: Picassa argazki zerbitzua eta Google Drive lainoko biltegia. Hilabete gutxi barru biek bat egin eta 5 GB-ko edukiera izango du zerbitzu berriak. Aldaketa txikiak ere kalkulu orrien gadgetetan egongo dira. Desagertuko diren zerbitzuen artean Google Classic Plus dago. Google News zerbitzuan dominak eman eta iradokizunak egiteko aukerak ere kenduko dituzte, Google Trends-ekin batera. Honera, aurrerantzean ezingo da webguneen artean trafiko konparaketarik egin, Analytics-en ez bada.

Youtube-k ere ez du sarrera datu zehatzik egileentzat

J.B. | ARRASATE

Musikari eta artistentzat promoziotik harago etekinak ateratzeko moduak ez dira hain argiak Interneten. Spotify da musika munduan nagusitzen dabilen banatzailea baina handik ere artistek jasotzen duten diru kopurua oso txikia da nahiz eta milioika aldiz entzun den abesti baten egilea izan. Are ezagunago da Youtube. Google-k ez du sekula ere bideoetan txertatzen duten publizitatearengatik zenbat ordaintzen dien artistei baina Dead Kennedys taldeko gitarra jotzailea den Raymon Pepperellek pista batzuk eman ditu. Dead Kennedys taldearen bideoak 14 milioi bidei ikusi dira eta musikariak aitortu du horien artean "ehunka batzuk dolar besterik ez" dituztela jaso. Youtube oso zorrotza izaten da egile eskubideen kontuarekin baina ematen du egile horiei ordaintzeko orduan ez direla hain zorrotzak izaten. Googletik ez dute inon zehazten bideoengatik zenbat eta zelan ordainduko zaien artistei eta kopurua Google-k berak zehazten du beste inolako azalpenik eman barik. Berdin gertatzen da AdSense moduko zerbitzuekin. Egileek edukia sortutako irabazien %45a jasoko dutela dio Google-k baina sortzen dituen diru hori zehazki zenbat den ez dute zehazten.

Facebookek 'atsegite' automatikoak egiten dituela onartu du

Erabiltzaileen onespenez gabe *Atsegite* botoia automatikoki jotzen dutela onartu du Facebooken. E-posta bat bidali ala publizitate istorio baten iruzkina egiterakoan gehitzen dira *atsegiteak*. Facebookeko ordezkariek diote modu honetara ez dela informazio pribaturik bistaritzen baina onartu dute ez dutela baime-nik.

Abian dira Amazonen musika eta lainoko biltegiatze zerbitzuak

Barikutik eros daitezke abestiak Amazonen eta bezeroen eskura ipini dituzte milioika abesti. Kantu bakoitza 0,99 eurotan saltzen dute. *Cloud Player* delako zerbitzua ere abiatu dute, lainoko biltegi bat iOS, Android eta Windowsen sistema eragileetarako. Abestia, jatorria edozein dela ere, igo eta lainotik entzuteko aukera ematen du.

Funtzionamendu arazoekin jarraitzen du WhatsApp aplikazioak

Joan den egunean berriz ere zerbitzariarekin arazoak zirela-eta, zerbitzuak etenak izan zituen. Konpondu dute baina Twitterreko kontu ofizialek diote komenigarria izango litzatekeela aplikazio itxi eta zabaltzea, badaezpada ere. Azken urtean behin baino gehiagotan eten du zerbitzuak WhatsApp-ek.



Telefonicako eraikin baten sarrera. | VOZPOPULI.COM

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

Don Limpioen iruzurra

Don Limpio garbigailuaren azken spota noiznahi eta nonahi ikus dezakegu azken asteotan. 70ko hamarkadatik aurrera gure etxeetan egon dela goraiatzeko dute, harro, eta ustez, duela 40 urteko telebistako iragarkien irudiak erakusten dizkigute 'Don Limpio' izena argi eta garbi erakutsiz!

Ikusleak inozoak garela uste al dute? Denok dakigu 'Don Limpio' lehen 'Mr. Proper' zela, nola izango dute ba izen berriarekin antzinako irudiak? Izen berriak hamarkada eskaseko bizi du soilik, eta izen tonto hori bururatu zaionak ez du bizitzea merezi.

Bestalde, iragarki guzti-guztietan, berriz diot: guztietan, soilik emakumeak agertzen dira garbigailua erabiltzen. Zergatik? Matxismoaren gorespenaren adibidea da? Edo produktua soilik emakumeek erabil dezakete arrazoi teknikoak direla medio?

Beharbada, bigarren azken aukera da zuzena, izan ere, nik behin 'Don Limpio' erosi nuen, botilatxo zabaldu nuen eta tipo burusoila ez ez inondik inora agertu. Luzaro itxaron nuen, ea irteten zen, telebistan bezala; baina ezer ez. Lotsatia izango ote? Ala lotsagarria?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 08



Harmailatik

Asteburuan zehar egondako kirol kontuei erreposoa egingo die Xabier Urtzelaren taldeak. | 22:03

12:25 Magazinea
13:10 Zorion Agurrak
13:15 Onein
13:43 AsteON
14:15 Ekogune
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Zorion Agurrak
15:13 Hauteskundeak 2012
16:45 Berriak
17:05 Eguraldia
17:08 Onein
17:40 Josetxo Imaz memoriale
18:10 Harira
18:40 Ekogune
19:10 AsteON
19:40 Musikaz Gain
19:50 Zorion Agurrak
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Hauteskundeak 2012
22:03 Harmailatik
22:48 Berriak
23:08 Eguraldia
23:11 Magazinea
23:56 Harmailatik
00:41 Gurean gaur
01:41 Eguraldia

MARTITZENA 09



Harira

Harira saioan, Eneko Azkarate kazetariarekin, gaurkotasanaren inguruko elkarrizketa berri bat. | 22:03

12:00 Magazinea
12:45 Hauteskundeak 2012
13:45 Zorion Agurrak
13:50 Harmailatik
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:21 Gurean gaur
16:47 Berriak
17:07 Eguraldia
17:10 Hauteskundeak 2012
18:10 Harmailatik
18:55 Laino arteko plana
19:23 Erreportajea
19:49 Zorion Agurrak
19:54 Berriak
20:14 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Hauteskundeak 2012
22:03 Harira
22:33 Musikaz Gain
22:43 Berriak
23:03 Eguraldia
23:06 Magazinea
23:51 Gurean gaur
00:51 Harmailatik
01:36 Berriak
01:56 Eguraldia

EGUAZTENA 10



Ekogune

Julen Iriondok aurkeztutako saioan, hirian bizikletan ibiltzeko aholkuak ikasteko aukera. | 22:00

12:00 Magazinea
12:45 Hauteskundeak 2012
13:45 Harira
14:18 AsteON
14:48 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Erreportajea
15:36 Onein
16:06 Harmailatik
16:51 Berriak
17:06 Eguraldia
17:09 Hauteskundeak 2012
18:09 Zorion Agurrak
18:14 Musikaz Gain
18:25 Laino arteko plana
18:55 Harira
19:28 Zorion Agurrak
19:33 Musikaz Gain
19:43 Musikaz Gain
19:55 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Hauteskundeak 2012
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gurean gaur
00:40 Harira
01:10 Berriak
01:15 Eguraldia

EGUENA 11



Mikel Arana

Ezker Anitzeko hauteskunde hauetako hautagai den Mikel Arana platoan izango dugu. | 21:00

12:00 Magazinea
12:45 Hauteskundeak 2012
13:45 Zorion Agurrak
13:50 Tertulia
14:20 Onein
14:43 Zorion Agurrak
14:46 Berriak
15:06 Eguraldia
15:09 Erreportajea
15:35 Gurean gaur
16:05 Musikaz Gain
16:16 Ekogune
16:46 Berriak
17:06 Eguraldia
17:09 Hauteskundeak 2012
18:09 Musikaz Gain
18:19 Erreportajea
18:49 Planik bai?
19:09 Harira
19:39 Musikaz Gain
19:49 Berriak
20:09 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Hauteskundeak 2012
22:00 Gipuzkoa kultura
22:30 Planik bai?
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Gurean gaur
00:58 Ekogune
01:28 Berriak
01:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 12



25+1 Goya sariak

Kursaaleko kubo-kutxa aretoan dagoen 25+1 Goya sariak erakustaldia Gipuzkoa kultura saioan. | 20:20

10:00 Erreportajea
10:30 Zorion Agurrak
10:35 Ekogune
11:05 Bizitegia
11:35 Planik bai?
11:55 Onein
12:23 Berriak
12:38 Magazinea
13:38 Gipuzkoa kultura
14:08 Harira
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:00 Onein
15:32 Erreportajea
15:58 Planik bai?
16:18 Hauteskundeak 2012
17:18 Zorion Agurrak
17:23 Berriak
17:38 Laino arteko plana
18:08 Magazinea
19:08 Planik bai?
19:28 Musikaz Gain
19:38 Harira
20:10 Musikaz Gain
20:20 Gipuzkoa kultura
20:50 Magazinea
21:50 Planik bai?
22:10 Ekogune
22:40 Harira
23:10 Hauteskundeak 2012
00:10 Taula gaimean
00:40 Musikaz Gain
00:50 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

Oñatiko jaietako bixamon eguna 'Igo autobusera' saioan

Astelehenean hasiko da berriz Igo autobusera saioa, uda giroa saioari errelebo emateko. Lehenengo saioan, Oñatiko bixamona egunean izango gara Oñati Irratiko Miren Urkiolaren eskutik. Bertako mozorro eta bixamonei buruz jakin beharreko dena entzuteko aukera.

Oñati-Arrasate XXIX. lasterketa datorren asteburuan

Datorren urriaren 13an, zapatua, Oñatin hasi eta Arrasaten bukatuko duen lasterketa antolatuko dute Antxintxiketan K.E., Arrasateko atletismo taldeak eta Bergarako Hanka Labanka patinaje taldeak. Lasterketa honen berri izateko antolatzaileekin egongo gara Arrasate Irratian.

Berriketan taldearen kontzerturako sarrerak irratian

Urriak 11an, Arrasateko Gaztetxean txalaparta eta flamenkoa nahasten dituen Berriketan taldeak kontzertua eskainiko du. Astero, Kooltur Ostegunak ekimenerako Arrasate Irratiak kontzertuaren sarrerak zozketatuko ditu. Sarrerak lortzeko: 943 25 05 05 telefono zenbakira deitu edo irratia@goiena.com.

TELE-ALBISTEAK

Oñatiko jaien erreposoa gaurko Magazinean Maider Arregi eta Txomin Madinarekin

Tarte osoa asteburuan Oñatin gertatutakoari eskainiko diote gaur

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Asteleheneko Magazinea tarte Oñatiko jaietako osorik eskainiko zaie. Asteburuan zehar, antolatutako ekitaldietan egon dira Goiena telebistako lankideak, eta gaur horren guztiaren berri emango dute Maider Arregi eta Txomin Madinak.

Herri egunean, Oñatiko sagardozaleen postuan, ganadu erakustaldian, barazki, fruta eta gazta lehiaketan eta talo eta txorizo postuetan egon dira eguna jai giroan pasatzen.

Lazarraga jauregia

Domekan, Errosaixo egunean, zabaldu berri den Lazarraga jauregiko lorategian, udal bandak eskaini zuen kontzertuan egon ziren gure lankideak, herritarrei



Ekialdeko zirkoa Oñatin aurreko urtean. | GOIENA

lorategiari eta jaietako buruzko inkestak egiten. Eta gaur bertan, Errosaixo bixamon egunean, Oñatin egon da Maider Arregi, bertako

gazte eta ez hain gazteekin, mozorro onena, koadrila onena eta karroza onena zeintzuk diren ikusteko asmoarekin.

Hauteskundeei buruzko elkarrizketak aste osoan zehar


Alderdi nagusietako kideak gaurkotasan politikoa aztertuko dute platoan

J.D. | ARRASATE

Hauteskunde kanpainaren barne, Naroa Iturrik aurkeztuko ditu datozten egunetan alderdi nagusietako hautagaiekin egindako elkarrizketak. Eguenean, urriaren 11, gaueko 21:00tan Ezker Anitzeko Mikel Arana izango da platoan, eta galderak egiteko, Deia eguneko Bingen Zubiria, Berriako Martxelo Otamendi, Garako Iñaki Soto, eta Goienako edukien zuzendari den Eneko Azkarate egongo dira hautagaiekin platoan.

Alderdi gehienak platora

Datozen egunetan, beste alderdietako kideak platotik pasatuko dira. Hain zuzen, PSE-EE alderdiko Idoia Mendia eguaztena 12an; EH-Bilduko Laura



Goienako mahai-ingurua. | GOIENA

Mintegi datorren astelehenean, hilak 15; eta EAJ alderdiko Iñigo Urkullu urriaren 16an, martitzena.

Datozen hauteskundeei buruz mintzatuko dira datorren astean zehar.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Nora Garcia Alvarez
Urriaren 14an, urtebete.
Zorionak familiaren partetik!



BERGARA
Aritz Unamuno
Urriaren 13an, 12 urte.
Zorionak etxeko guztion partetik!



ARRASATE
Garbiñe Beitia
Urriaren 13an, 34 urte.
Zorionak, tia Garbi!
Gutxienez, argazkiko egunean bezain ongi pasatu! Kiloka muxu potolo eta belarri tirakada pila-pila, etxekoen eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, printzesa!



BERGARA
Nahikari Lopez Manterola
Urriaren 12an, 5 urte.
Zorionak zure urtebetetzean zorionak ta urte askotarako zorionak belarritik tiratzean zorionak ta muxu bat zuretzako.



BERGARA
Udane eta Ion Unamuno
Zorionak, bikote! Udane urtebete urriaren 11n, eta Ionek 34 urte, urriaren 21ean. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunean familia guztiaren partetik. Muxu handi bana.



BERGARA
Nerea Leceta Alberdi
Urriaren 11n, 5 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
Beñat Arregi Unamuno
Urriaren 11n, Beñatek urtebete! Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Julen eta Josu Arenaza
Julenek urriaren 11n, hiru urte eta Josuk urriaren 12an, 39. Zorionak, tio eta Julen! Ondo pasatu eta patxo handi bat Landerren partetik!



ARRASATE
Maialen Sampedro Elorza
Urriaren 11n, 9 urte.
Zorionak, Izaro, aitatxo eta amatxoren partetik!
Ondo-ondo pasatu zeure egunien!




ARRASATE
Uxue Iturbe
Urriaren 10ean, 8 urte.
Mila kilo zorion! Zelako handi ein zarien! Jarraitu modukua izaten! Maitte zaitugunon partetik karrokara bat muxu. Batez ere Elaia, Unax eta Eneko.



BERGARA
Hugo Cachafeiro Rodriguez
Urriaren 10ean, 9 urte.
Lucia, Danel eta Jon lehengusu-lehengusinen partetik, zorionak! Muxu handi bat!



OÑATI
Sara Isasisasmendi Egaña
Urriaren 10ean, 9 urte.
Zorionak, sorgintxo, eta egun ona pasatu! Pa handi bat familia danaren partetik.



ARRASATE
Oier Alonso Perez de Arriucea
Urriaren 9an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Bi urtetxo gure mutikotxoak. Ederto ospatu egun berezi hau Maeztun eta tartako kandelatxoak fuerte-fuerte putz egin. Etxekoen eta bereziki lehengusu Beñat eta lehengusina Marenen partetik, kilo bat txokomuxu, maitxia!



ARRASATE
Roman Lopez Rubio
Urriaren 9an, 77 urte.
Zorionak, aita! Ederto ospatu egun berezi hau. Txokomarrubizko kiloka patxo, etxekoen eta bereziki iloba Beñat, Uxue, Maren eta Aurkene!



BERGARA
Haizea Ayastuy Markina
Urriaren 9an, 3 urte.
Zorionak, printzesa! 3 urtetxo jada. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean, eta patxo handi-handi bat maite zaitugunon partetik.



BERGARA
Telmo Irizar Arzamendi
Urriaren 8an, 4 urte.
Zorionak, Telmo! Patxo mordo etxeko guztien partetik eta ondo pasatu eguna, mutiko handi!



ESKORITATZA
Ibai Sanz Eraña
Urriaren 8an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik, bereziki, June eta Manexen aldetik. Ze txuladita!



OÑATI
Gotzon Osinaga Uriarte
Urriaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, potxolo. Aitona mundiala zara. Eneritz, Malen, Auritz, Lier, Ane eta Intza.




OÑATI
Peru Barroeta Lete
Urriaren 7an, 3 urte. Gure bizkaitar oñatiarrak hiru urte betetzen dauz. Zorionak!



OÑATI
Unax eta Mikel Zubia Martinez de Albeniz
Urriaren 7an, 2 urte. Zorionak bixoiri pottokok! Egun on-on-ona pasatu zuen urtebetetzian eta holako alai eta maitegarri jarraitu bixok! Patxo handi bat danon partetik, baina bereziki Teo, Urdin eta hainbeste maitte zauein eta maitte dozuen zuen arreba Sarak!



ARRASATE
Julian Zubizarreta
Urriaren 7an, urtebetetzea. Benidorren eztau Arrasateko txikiteoik baina ala ta be ondo ospatu zure eguna eta zorionak etxeko danon partetik. Muxu potolote bat!



ARRASATE
Maren Egia Igarzabal
Urriaren 7an, 2 urte.
Zorionak! Patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik. Ondo pasatu eguna.



BERGARA
Jon Larrañaga Marco
Urriaren 6an, Jonek 9 urte! Zorionak eta muxu handi bat aitatxo, amama eta tien partetik.



BERGARA
Sara De la Torre Gonzalez
Urriaren 6an, 2 urte.
Zorionak, potxola! Muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
Doris Nancy Segura Lizano
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi-handi bat maite zaitugun guztion parte! Munduko lagun eta amarik onena zara!



ARETXABALETA
Julen Garcia
Urriaren 5ean, 3 urte.
Zorionak, Julen! Ondo pasatu urtebetetze eguna eta muxu potolo bat familia eta lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Gari Martin Izurategi
Urriaren 5ean, 7 urte. Aupa, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Luken, amatxo eta aitatxoren partetik. Zorionak!



ARRASATE
Malen Gonzalez Rodriguez
Urriaren 5ean, 7 urte.
Zorionak, Malen, bihotz-bihotzez zure zazpigarren urtebetetzean. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Libe, aita eta ama.



ESKORITATZA
Peio Lizundia Kortazar
Urriaren 4an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu eguna familia danaren partetik! Bereziki aitatxo eta amatxok! Pila-pila patata tortilla!



OÑATI
Alluiz Markuleta
Urriaren 4an, 3 urte.
Zorionak eta hiru muxu handi aitatxo, amatxo eta etxeko danen partetik.




ARETXABALETA
June Iturbe Etxeandia
Urriaren 4an, urtebete.
Zorionak, printzesa! Gure sorgintxoak urtebete egin du! Laztan handi-handi bat etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Unai Laskurain
Urriaren 4an, 10 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat Haizea, Alaitz eta Eñauten partetik.



ARRASATE
Ekhi Arriaran Zubillaga
Urriaren 4an, 2 urte.
Zorionak! Oso ondo ospatu eguna. Txokolatada handi bat prestatukou.



OÑATI
Oier Ezkibel Bastida
Urriaren 4an, urtebete.
Zorionak, potxolo, aitatxo, amatxo eta Izarren partetik. Patxo handi-handi bat!




BERGARA
Ibai eta Leire Moncayola Garcia
Urriaren 3an, urtebete.
Zorionak eta muxu handia familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Enara Lopez Ormaetxea
Urriaren 3an, 33 urte.
Zorionak, tia Enara!
Primeran pasatu eguna, txokomarrubizko muxu potolo-potoloak etxekoen eta, bereziki, iloba Beñat eta Marenen partetik. Muxuak, printzesa! Maritutan ederki ospatuko dugu, txin-txin!




ESKORITATZA
Ander Agiriano
Urriaren 3an, 27 urte.
Zorionak viejezillo! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat monitore sexienari!



ARRASATE
Aitor Gallego Bereziartua
Urriaren 1ean, 7 urte.
Zorionak, Aitor! Muxu handi bat etxeko guztien partetik: aitatxo, amatxo, Xabier eta Maialen.



ARETXABALETA
Manex Beltran de Heredia
Urriaren 1ean, 10 urte.
Manex! Zorionak!



ESKORITATZA
Ana Nevado
Irailaren 30ean, 32 urte.
Zorionak, amatxo. Etxekoek maite zaitugu.

ESKER ONA

Bixente Guridi Arregi
—Goian bego—

2012ko Irailaren 30ean hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2012ko urriaren 8an.

MEZA

Angel Beitia Zugasti
—Goian bego—

Arrasaten hil zen 2012ko urriaren 6an, 74 urte zituela.

Ezkon anai-arrebak: Jose Antonio, Jesus, Roman eta M. Pilar, M. Jesus eta Jose Ramon, Dorleta, Juan Angel (†) eta Elena.
Ilobak: Aner, Aitor eta Amaia, Asel, Beñat eta Laura, eta Maialen.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, astelehena, urriak 8, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Eskoriatzan, 2012ko urriaren 8an.

Babeslea:



Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

JAIOTAKOAK



Ihintz Alberdi Jorge

Aretxabaleta. 2,470 kilo. Irailaren 28a. Gurasoak: Julia eta Luis Mari. Argazkian, Ihintz osaba Gorkarekin.



Aimar Zabaleta Legaristi

Oñati. 3,240 kilo. Irailaren 20a. Gurasoak: Ainhoa eta Iker. Argazkian, Aimar kuman.



Jhon Alderson Correa Gomez

Arrasate. 4 kilo. Irailaren 29a. Gurasoak: Sandra Milena eta John Edwin. Argazkian, mutiko jaioberria sehaskan.



Sara Arenaza Barriola.

Oñati. 2,290 kilo. Urriaren 3a. Gurasoak: Maddalen eta Gorka. Argazkian, sehaskan lo.




Libe Idigoras Garcia.

Oñati. 3,240 kilo. Urriaren 3a. Gurasoak: Maite eta Iban. Argazkian, gurasoekin.



Jon Elduaian Azula

Arrasate 3,180 kilo. Urriaren 4a. Gurasoak: Itziar eta Jabier. Argazkian, Gurasoekin.




Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA



HITZ GEZIDUNAK

	Animalia hegalar * Eskoriatza-ko elizatea	Fruitu arbola Gehiegi, sobera	Bazkide Arloa
	Eritasun		
Lasaitasun	Damu		
Zelan, nola	Pl., idazteko tresnak	Ale landare	
		Bokala	
Sultaneriko burua			Putre
Mehatxu		Kontsonantea 1 eta 500	Sufrea
			Iridioa
Gauza		Atomo kargaduna	
Sukaldeko langile		Kontsonantea	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

I	R	V	D	T	V	K	U	S
V	I	O	I	I	V	G		
S		D	I	V	W	E	Z	
	V	N	V	I	T	U	S	
O	T	O	Z	V	T	O	N	
I	V	B	R	V	G	S		
Z	I	V	G					
O	V	T	E	G				
S		O	H					

BILA-BILA 7



Benetakoa da, ez marrazki biziduna

Irudiko neska Anastasiya Shpagina da, eta bere fisikoa moldatu du animea gustatzen zaiolako. Eskerrak ez zaiola Chewbacca gustatzen!
www.astromonster.tumblr.com



"Espero dut galderak ez izatea zu bezain beroak"

SALAH ABDEL MAKSUD | EGIPTOKO MINISTROA

Egiptoko Hezkuntza ministroaren hitzek erantzun azkarra izan zuten elkarrizketa egingo zion Dubaiko telebista bateko emakumezko kazetariaren partetik: "Epelak izango dira; hotzak, esango nuke". Gehiago ere ez zuen merezi.

www.abc.es



Max. 27°

Min. 14°

Zerua nahiko garbi egongo da, baina arratsaldean hodeiak nagusituko dira.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-10-08

HAMARREKOA

Zuhaitz Gurrutxaga Elgoibarko San Migel auzokoa, Realean egin zen ezagun. Futboleant jarraitzen du, Beasainen, baina Vanpopel musika taldearekin kontzertuz kontzertu ere badabil. | TXOMIN MADINA

"Urduriago nago futboleant agertokian bakarrik baino"

1. Musikaria eta futbol jokalaria. Ez dirudi konbinazio ohikoena...

Ezta errazena ere. Batzuetan, domekan partidua duzu eta zapatuan kontzertua; deskantsatzeko asti laburragoa dago, eta biak ondo egiteko moldatzea ez da erraza.

2. 19 urterekin, debuta Realean. Goizegi, akaso?

Bai, baina, beharbada, beranduago sekula ez zen aukerarik izango; orduan bete nuen gipuzkoar gazte askoren ametsa. 24-25ekin hobeto heldu izango nioke, gazteegia izanik presioak gehiegi eragiten zidalako.

3. Garai hartako zerbaitekin gertzekotan, zerekin?

Realarekin lehen mailan jokatu dudala kontatu ahal izatearekin. Hasieran, laudorio eta txaloak asko izan ziren; ez genuke horren zain egon beharko pozik bizi izateko, baina denoi gustatzen zaigu, eta maitatua sentitu nintzen.

4. Zeu izan omen zinen Lee Chung Sooren lehen gelakidea.

Denboraldi-aurrean gelak binaka ziren, eta nirekin jarri zuten. Koreera bakarrik zekien; nik euskara, eta erdara justu-justu. Gure elkarrizketak motzak ziren, hutsaren hurrengoak. Baina joan zen ikasten.

5. Jokalariak berdin bizi du futbola lehen mailan edo hirugarrenean?

Argi dago ezetz. Lehenengo mailan orain baino askoz gehiago irabazten nuen; baina egun, askoz bizi kalitate hobea dut lasaitasunean eta kalera irteteko orduan.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Bakoitzak zoriontsu izateko aukera"

"Makila benetan gogorra bada, bati baino gehiagori burutik behera emango nioke! Baina serio jarrita, eskatuko nuke mundu guztiak zoriontsu izateko aukera izatea; bakoitzak ikusiko du nola, baina aukera, behintzat, izatea".

6. Irratian eta kontzertuetan entzunda, ezin zaizu aplikatu futbolarik oso hitzunik ez diren topikoa.

Maila handietan politikoki zuzena izatea ia ezinbestekoa da. Orain ez dut horren beharrik; beti ere inori min egin gabe, pentsatu eta nahi dudana esan dezaket. Mailaz jaitzearen liberazio bat da hori.

7. Futbolarekin duzun harremanari abesti bat idatzi beharko bazenu, zein kutsu izango luke?

Desamodioarena; erromantizismoa nola jaisten den erakutsiko luke. Gustura egon arren ikusten dut urtekin futbol gosea jaisten joan dela.

8. Nolatan musikari?

Futbolak denbora libre luzea ematen du eta duela urte asko hasi nintzen gitarra jotzen. Agertokiak gustuko ditut; seguraski, urduriago nago futboleant agertokian bakarrik baino. Gustuko dut jendeari nire gauzak erakutsi eta sekretuak kontatzea.

9. Con celos y señales da zuen lehen lanaren izena. Zuzena, bada.

Sekretu gutxi dauzkatz. Kantuak jelsortasunak edo amodiorik ezak sortuak dira eta hitz-jokoa egin ez jarri genion izenburua.

10. Duela urtebete atera zenuen diskoa. Nolako urtea izan da?

Badakit Realean aritu izanak ate asko zabaldu dizkidala, arreta pizten du futbolarik batek abesteak, eta aprobetxatu egin dut hori. Uste dut jendea gustura egon dela kontzertuetan; 2012an 30 eman ditugu; hasiberriak izateko, dezentere dira.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



NDPNDNTZ

Bosgarren greba orokorra eta manifa erraldioak iragan berri; langabezia gora ta gora (ereserkia bezala?); etxe desjabetzeak egunero; murrizketak, ostiralero (ministro kontseilu espainol bakoitzeko); mailegu bat lortzea, mirari bat da; erreskatearen kate "erreza" gero eta hurbilago; euskaraz ezin dugu esnerik saldu; barrura begiratzeko leihorik ezin dugu zabaldu; "nazionalistak" gara; kontzertu ekonomikoari esker bizi gara; Garoñako Santamaria, orapronobis baten beharrea; Osasuna, Osakidetza eta Osasunbide oso ahul; pentsioak zintzilik; euririk ez du egiten; ez perretxikorik, ez hondorik; argindarra merketu egin dute, baina BEZ-ari esker faktura lehen baino garestiago aterako zaigu; euskaldunok ez dugu kurrikulunik; euskal qultura... horrelaxe dabil; Euskararen transmisioa, ez dute erretransmititzen; Dialean, euskarazko irrati bat aurkitzea, beste mirari bat da; Euskal Herria kimer bat baino ez omen da.

Konklusioa: hobe dugu, Nafarroa bizirik den artean, NDPNDNTZ eskuratzea, bestela ez dago hau konponduko duenik; hala ere, geureak eta bi kosta behar zaigu, baina uste dut aukera bakarra dela. Gora bihotzak!!! Grutxo Marx-ek zioen bezala, "egin egin genuen, ezinezkoa zela ez genekielako"; eta halaxe da; ez dugu jakin nahi ere NDPNDNTZ ezinezkoa dela.

Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak

kontsulta berria ireki du:

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Esan baietz betiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko